




MINARETEAK URDAIBAIN

JOSE MARI PASTOR

HITZAURREA:
HARKAITZ CANO



 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

berria

berria.eus

JOSE MARI PASTOR

Minareteak Urdaibain

Artikuluak

BERRIAko lagunei.

Eta Alazne Aiestarani
-lankidea eta, batez ere,
laguna-, haren asteroko
zuzenketa eta aholkuengatik

AURKIBIDEA

Non dago Darwin?	7
Tolosako eskaleak	9
Minareteak Urdaibain.....	11
Rudolfen itzala.....	13
Tiririca	15
Llangollengo bildotsak.....	17
Prostitutak	19
William & Kate.....	21
Gasteizko bananondoak.....	23
Chimezieren lagunak.....	25
Nork inkubatu du arrautza?	27
Gosea Salzburgon	30
Etsipenaren geografia.....	32
Miraria Milanen	34
Igerileku terapeutikoa	36
Perpinyatik Perpinyara.....	38
'La ETA'	41
'This is America'	43
Donut egunak.....	45
Jobs	47
Ongi etorri, Mr Blair!	49
Mereziko du	51
Carrero Gernikan	54
Hemengo turkiarrak.....	56
'Delicious'.....	58
Metropoliko kosmopolitak.....	60

'Relu a vorbit tata'	62
Ez ligatu ezezagunekin.....	64
'What else?'	66
Brontzezko oihuak.....	68
Gau erromantikoa	70
Apian, apika.....	72
Eskerrik asko alde z aurretik.....	74
Eskoziarra izan nahi nuke	76
Ume lapurtuak.....	78
«'Yes, sir'»	80
Pablo eta sexua.....	82
Prizzitarren ohorea.....	84
Grebarik ez.....	86
'Aire delizius huntan'	88
Urte luzea	90
Aspirinak Missourin.....	92
'Adeu, Espanya!'	94
'Halal', 'burger' eta abar.....	96
Perrexil japoniarra.....	98
Gerra jokoak.....	100
Bibotedunak Aerofloten.....	102
Puntaren puntan.....	104
'Laika' ametsetan	106
Garitano gabarran.....	108
Epilogo.....	110

Non dago Darwin?

Hitzaurrea

Egunkarietan idazten duenak aukera dezake artikulugintza autobiografikoari nahi dion heldu ala analistaren tresnak baliatzea duen gurago. Ispilua nahiago duzu ala leihoa? Kronista izan nahi duzu ala iruzkingile? Notario ala autopsiagile? Disekzioa ala behaketa dira komenigarriago? Disekziona daiteke behaketarik gabe, egiaz? Eta zeure burua ezagutu gabe? Zeure burua disekzionatu, diozu? Zenbat zutabetarako eman lezake norbere buruak, ordea? Mundua aldiz, gure ondoan, arrotza eta zabala da, hari buruz helarazten zaigun interpretazioa murrizta eta klaustrofobikoa begitandu dakigukeen arren sarri. Nazioarteko egunkarietako albiste eta iritziak irazi ditzakezu, sare sozialak eskuaretu, *zeitgeist*arekin sintonizatzen saiatu, munduaren setak eta norbere obsesioak zelanbait parekatzen ahalegindu, hartara, irakurlearekin, zapaltzen dugun lurraz gain, obsesioñoren bat ere konpartituko duzun itxaropenarekin. Erreferente jasoak, literarioak, pentsalarien maxima biribil eta iraunkorrak eskura izatea komeni da, noski; klasikoak beti dira lur irmoa eguneroko zingiran ez hondoratzeko. Baina zergatik ez graffitiak, pop kultura eta kalean alirizira entzundako elkarrizketa zati guztiz apetatsuak, bidaietan bizi izandakoak, haurtzaroko oroitzapenak? Marmolean idatzitako esaldiekin soilik ez goaz inora; ongi etorriak zatar paperak eta post-it-ak. Teknika eta baliabide guztiak erabiltzen ditu Jose Mari Pastorek, tamainan eta neurritsu, egunkari batean zerbitu daitekeen koktelik osatuena eskaintzeko: dotorea, garratza, ongi sedimentatua. Batek daki nola, bere iritziekin bat egin dezagun lortzen du beti, zerbitzatu digun edabea hurrupatu ahala buruaz baietz-baietz egiten dugularik, bere arrazoiaren indar ideologiko zein kasuistikoak alubioi batek bezala arrastaka eramaten gaituen bitartean. Noiz defentsaren eta noiz fiskalaren rola bere eginez aztertzen ditu gairik arantzatsuenak, josteta serioan edo ironia finez, irribarre maltzurrez, umore sal(b)atzailez. Bere probokazioak pertinenteak dira oso, baita –bereziki– inpertinenteak direnean ere. Gustatzen zait pentsatzea, egunkarian leiho bat ematen diotenean, leiho horren presentzia azpimarratzeaz haratago, leiho horretatik ikusten diren beste leiho batzuk seinalatzea dagokiola idazten duenari, eta horretan, maisu dugu. *Rear Window* hartako James Stewarten gisan, geure mundutxoko atzeko patioa erakusten digu asterik aste. Fikziozko narratzaile onenek bezala, geure kontraesanik mingarrietan murgiltzen asmatzen du, “bestea” deritzogun horren larruan sartzen da –

trabestismo modu bat ere badenez kazetaritza–, eta era kontziente edo inkontzientean guk “bestearengan” dugun (eta “besteak” gugan duen) portzentaia horri atximurka egiten dio errukirik gabe. Tentazioa handia da, prentsan ere, talaiako profetarena jokatzekoa. Nola izan Nostradamus, ordea, gertaeren abaila profezia bano handiagoa denean? Nola, asmatu edo huts egindakoengatik inork kargurik hartzen ez dizunean? Hausnarketa gehiagorekin eta memoria sakonagoarekin, beharbada? Gertaerak eta garaiak josi eta saretzeko gaitasunean ez dauka Pastorrek parekorik: (ahaztu) ditugun datuak elkarrekin harremanetan jartzea aski baita askotan artikulu on bat idazteko. Obturadorea zabalegi dagoenean ixtea eta mira estuegia denean zabaltzea. Denboraren makinarekin apurtxo bat bidaiatzea. Pastorrek bere du eszentritatearen bertutea, hitzaren zentzurik literalenean: ispilu berberaren aurrean jartzen ditu itxuraz elkarrekin zerikusirik ez duten elementuak, halako moldez non ispiluak erakusten baitigu zerikusirik ez zutela adierazi nahi izan zaigun bi egoera horiek –*surprise, surprise*– berdinak direla. *Hipotesi hedatuaren* teknika ere baliatzen du usu horretarako, diren eta ez diren mundu paraleloetan barrena promenarazten gaitu. Hitzetan eta ekintzetan dauden iruzurrak seinalatuz, *Non dago Wally?* albumetako Wally pertsonaiak bezala, errege biluziak seinalatzen dizkigu etengabe. Izutu ere egiten gara zenbatzen hasitakoan, aizue. Goizero ispilu aurrean topatzen dugunarekin aski ez eta, zenbat eta zenbat errege biluzi leihotik ageri!

Wally barik... non dago Darwin, ordea? Espezieek eboluzionatzen al dute batere? Ezezkoan geundeke, Pastorren lanak irakurriko ez bagenu.

Harkaitz Cano (2018ko otsaila)

Tolosako eskaleak

Geltokiaren aurreko ubidea aterpe dute eskaleek. Emakume presatuak horretaz ohartarazi gaitu *Canal du Midi* nondik zeharkatu galdetu diogunean. «Ez da oso atsegina hemen ibiltzea, arloitez beteta baitago. Hobe duzue Wilson plazara joan eta zerbait hartu». Ubidera begiratu eta herritar ikusezinak ikusi ditugu: lau gizon botata, botilak eskuan. Gabonetako arbola txiki batean apaingarri dirdiratsuak eskegi dituzte: garagardo eta Coca-Cola lata koloretsuak. Ehun bat metrora, eskale bakarti bat dago, zubiaren azpian etxea egin duena: hortxe ditu bere fardelak, koltxoia, altzari zaharrak. Hortxe ditu arropak eskegita.

Arropak etxean eskegita utzi dituzte Donostiako denda ezagun batera kulero eta galtzontziloetan joan direnek, eskaintza paregabeak erakarrita: merkealdiko lehen egunean produktuak dohainik eman dizkiete ia larru gorritan bertaratu diren bezeroei. Ekimenak izandako oihartzunak etekinik ekarriko zion, bai, dendari. Erosle aktiboen eta begirale pasiboen laguntzaz ohi baino gehiago saldu du, seguruena. Gainera, dendaren izena egunkarien webguneetan dugu ikusgai atzodanik, eta gaur ere idatzizko edizioetan agertuko zaigu. Publizitate ederra, xentimorik ordaindu gabe: ez ekimenaren berri eman duten hedabideei, ezta modelo eta maniki agertu diren gizon eta emakumeei ere.

Krisi garaian, kontsumoa bultzatzeko ekimen txalogarria da Donostiakoa. Eta, bide batez, paketea zuzenean markatzeko aukera, zurikeriarik gabe: utzi suhiltzaileen eta besteren argudioak giharrak erakutsi edo gorputz ederrei damu barik begiratzeko: pobreekiko elkartasuna, aitona-amonentzako dirua biltzea, bla, bla, bla... Sen primarioenei bide emateko ez dut elkartasunaren aitzakia behar: garaje batera joan, Pirelli egutegiari begiratu eta segituan asetzen naiz.

Hedabideek nabarmendu dutenez, Donostiako ekimenean parte hartu duten gehienak 20-30 urte bitarteko herritarrak izan dira. *Big Brother* belaunaldiko gazte bat hala agertzeak ez du meriturik baina. Meritua *Egi Bidean* programaren jarraitzaileek izango lukete. Jende mordoa biluzik hiriburuaren erdian. Niri bost. Egin dezala bakoitzak nahi duena bere gorputzarekin, albokoa ziprztintzen ez badu. Duela urte batzuk lagun talde bat epaitu zuten eskandalu

publikoagatik Gipuzkoan, Goierriko taberna batean kubata eta kruasana galtzontziloetan gosaltzeagatik. Absolbitu gintuenean epaileak ahora eraman zuen eskua, barreari eutsi ezinik. Orain ez da eskandalua barruko arropetan ibiltzea, batez ere kontsumoa bultzatzeko bada. Harritu egin nau, ordea, biluzteko arrazoiak, ekimenaren zioa ez baita arropa dohainik lortzea, arropa gehiago musu-truk lortzea baizik. Helburua ez da arropa benetan behar dutenei oparitzea, bezero gehiagori erosteko premia sorraraztea baizik.

Biluztasuna kontsumorako erakargarri bihurtu dute, baina matxinada ekintza ere bada, boterearen kontra erabiltzen bada. Protesta politiko, ekonomiko edo ekologistetan, esate baterako. Moda denda baten aurrean larru gorritan geratzea morrontza edo errebolta izan daiteke, betiere zertarako biluzten garen: arropa *fashion* batzuk dohainik lortzeko ala arropa horiek ekoizten dituzten eta enpresa jakin batek esplotatzen dituen Bangladesheko umeen eskubideak aldarrikatzeko.

Okzitaniako Tolosako eskaleei Donostiako dendan sartzen utziko zieten atzo, todo a cien-eko galtzontzilo ziztrin zikinetan joan balira?

Minareteak Urdaibain

Behin batean bazen Bizkaiko armadore bat, hegaluzearen denboraldia amaitu eta Mediterraneoko kostaldera joaten zena, beste arrain batzuen bila. Gizona Levante aldeko herri hartako taberna-kafetegi-klub dotoreenean sartzen zen, egunean zenbateko kutxa egiten zuen galdetu jabeari, eta diru hori baino gehiago biltzen zuen billete berde mordoa ipintzen zuen barraren gainean: «Itxi lokala. Gaur neu izango naiz zure bezero bakarra».

Bapo bizi ziren, urrezko urte haietan, arrantza munduan negozioa zutenak. Etxe eta auto ederrak, arrain-dolarrei esker. Dirua barra-barra irabazi eta barra-barra gastatu. *Basque Coast Way of Life, yeahhhh*. Arrain-dolarrak amaitu egin dira gurean, baina badirudi laster petrodolarrak etorriko direla. Lehen gure enpresariak egiten zutena Golkoko monarkia guztiz demokratiko eta aberatsetako eliteak egingo du orain.

Horixe iradoki du Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendari Isabel Muelak Qatarren, Patxi Lopezek bertara eginiko bisitan. Bezero dirudun horiek etortzea nahi du Jaurlaritzak, luxua maite dutenak. Muela andrearen ustez, *hiper-mega VIP* turistek pribatizatu egingo dituzte jatetxeak edo hotelak, zenbait kasutan. Hau da, hotel osoa hartu, soil-soilik haien familiaren eta segizioaren zerbitzuko. Armadore hark behinola bezala egingo dute, baina diru askoz, askoz, askoz gehiagorekin. Ezin konparatu bilbotarkeriak eta qatartarkeriak. Euskaldun aberatsok ez ditugu *morito* pobreak nahi alboan. Arabiar aberatsek ez dituzte gustuko *vasquito* pobreak; ez dituzte maite gure sagardo hatsa eta gure korroskadak.

Gasteizek herrialde arabiar horietako turistak erakarri nahi ditu Espainiako eskualde aberatsenetakora. Bai, halaxe definitu dute EAE Dubain egindako ekitaldi ofizial batean. Lehenik, Espainia; gero, eskualdea. Horixe gara, azken batean. Gauzak argi, eta txokolatea lodi. Eskerrak ez duten gure aberastasuna laudatu Eustatek langabe kopuruaren igoera kezkarriaren berri eman duen egunean. Lehen industri moldaketa izan eta gero, eta bigarrena hemen dugula ohartuta, nago turismo herri bihurtuko ez ote garen, euskal enpresek herrialde arabiar horietan lortuko omen dituzten kontratuak gorabehera. Edo, akaso, jarduera industrialak eta turistikoa bateratuko dituen eredu oraindik zehaztu gabea garatuko dugu.

Sasoi berrietara moldatu behar. Ez haserretu Sheraton, Carlton eta Londres hotelak soilik xekeentzat badaude zabalik, gure futbolariek kontzentratzeko leku egokirik izan ez, eta partida galtzen badute. Edo Hondarribiko paradorean Ilargierdiaren bandera ageri bada. Berdin Guggenheim berriak arabiar aberats asko biltzen baditu, eta meskita bat eraikitzen badute Urdaibain. Kristau integristaren bat kexatzen bada, minareteak 37 zentimetro moztu eta arazorik ez. Gure bisitarien konkubinaren bat burka eta guzti badator, hor ere protestarik ez. *Poderoso caballero es don dinero*. Non zaude, Quevedo?

Aberastu egingo gara. Eta ikasi, mundura zabaltzen ikasi. Eta hurrengo batean, EAEko lehendakari bat Qatarra doanean, eta emirraren andrearekin elkartzen denean, ez gara harrituko egunkari batean argazki oin hau irakurtzean: «*Halaxe hartu zuen emirraren andreak lehendakaria*». Halaxe? Halaxe, bai: soineko beltz dotorea jantzita, burutik orkatiletara. Zer espero genuen, ba? Qatarko emirraren andrea tanga *brasileiroan* eta *Ron Collins* bat eskuan agertzea Lopez jaunaren aurrean?

Rudolfen itzala

Irlanda iparraldekoa zen, eta arazoak izan zituen bertan. Izan ere, protestantea zen, baina irlandarren batasuna onartzeko prest zegoen. Horrek gatazkako bi aldeak molestatzen zituen. Azkenean, hanka egin behar izan zuen. Hemengo bozak izan ziren egun batean gurean egon zen. Telebistan emaitzak ikusi, eta abertzaleak zeintzuk ziren galdetu zidan. «Alderdi gehiegi. Horrela inoiz ez duzue ezer lortuko», esan zuen.

Joera ez da biziki aldatu geroztik. Euskal abertzaleak, banatuta. Espainolak, batuta, «interes nazionala» gogoan. Bihar alderdi berria aurkeztuko du ezker abertzaleak. Espainiako Justizia ministro Francisco Caamaño argi utzi du ez duela onartuko «Batasunaren segida» den alderdirik. Batzuek kuarentena eskatu dute ezker abertzaleko kideentzat. Bada horiek naziekin konparatzen dituenik ere. Antonio Basagoitik behin baino gehiagotan egin du. Hona iazko urrian *Vanity Fair* aldizkariari esan zizkionak: «Hitler eta alderdi nazia dira adibideak. *Führer*-a hil ondoren, naziei ez zieten bozetan parte hartzen utzi».

Berriz entzungo ditugu halakoak. Nazien ondorengoak erakundeetatik kanpo omen daude Alemanian. Gezurra. Alderdi naziaren segida den alderdia —**Caamaño** esango lukeen moduan— legezkoa da bertan. Alemaniako Alderdi Nazionaldemokrata (NPD) landerretako legebiltzarretan dago: Saxoniako legebiltzarrean zortzi diputatu ditu —aurreko legegintzaldian hamabi zituen—, eta Mecklenburgo-Pomeraniako ganberan, sei. 2005ean Alemaniako barne inteligentzia zerbitzuek hauxe azaldu zuten txosten batean: «NPDren adierazpenek antza dute, funtsean, nazionalsozialismoarekin». NPDk demokrazia parlamentarioa «bota» nahi duela zioen txostenak, «nahiz indarkeria baztertzen duen, arrazoi taktikoengatik». Hala ere, Alemaniak ez du debekatu.

Iraganaz damu da NPD? Ez. Udo Voigt, NPDko presidentea, lasai ageri da Rudolf Hess gerra kriminal nazia omentzeko ekitaldietan, haren argazkia atzean duela. Hess martiria izan zela dio. Rudolf Hess, alderdi naziaren burua eta Estatu ministroa izan zena, martiria! Voigt ez dute horregatik auzipetu. Arnaldo Otegi, berriz, kondenatu egin zuten Jose Migel Beñaran *Argala* gogoratzeko ekitaldi batean parte hartzeagatik. **Argala**, Francoren garaian

ETAn sartu zena eta 1978an indar parapolizial espainolek hil zutena. Nazismoa gaitzesteko eskatzen diote NPDri? Ez. Ezta biktimak errespetatzeko ere. 2005ean minutuko isilunea egin zen Alemanian, holokaustoak hildakoak omentzeko. Saxoniako legebiltzarrean ekitaldia hastear zegoen unean, NPDko hamabi parlamentariak ganberatik irten ziren. Omenaldia lehertuta. Ez zitzaien deus gertatu.

Ados egongo gara —edo ez— Alemaniaren barne politikarekin, baina ez da etikoa historia eta errealitatea manipulatzeko, gezurrak hedatzeko. Naziak eta ezker abertzalea parekatzea argudio politiko ahula baino zerbait askoz larriagoa da: errebisionismo historikoa, hemengo errealitatea nazismoarekin konparatzea holokaustoa erlatibizatzea baita. Nazismoaren biktimak iraintzea. Hemen inork ez dio aurrekoa baino gehiago denik. Hemen inork ez du 1.000 urtean iraungo duen inperiorik sortu nahi, beheko arraza edo herrien kontura. Hemen, gizartearen zati handi bat dago, munduko herri libreen parean bizi nahi duena. Ez eskubide gehiagorekin, baina ezta eskubide gutxiagorekin ere. Besterik ez.

Ian Britainiako herri batean bizi da egun, andre italiar batekin. Garagardoa haren etxean edaten du orain.

Tiririca

Hasi dira bilerak Brasilgo legebiltzarrean. Bozen ostean aurpegi berriak agertu dira ganberan, haietako batzuk oso ezagunak herrialdean: Romario futbolari ohia, Acelino *Popo* Freitas boxeolaria izandakoa, *Big Brother* programako protagonista bat? Baina oihartzun mediatiko handiena Francisco Everardo Oliveira Silvak lortu du. Tiririca izen artistikoaz ezaguna da Oliveira Silva, eta pailazoa dugu. Haren mezuak sostengu handia jaso du Sao Paulo estatuan, milioi bat boto baino gehiago bereganatu dituelako. Hauxe izan da haren kanpainaren leloa: *Orain baino okerrago ezin*.

Pailazoa legebiltzarrean. Parlamentari hautatu berriari analfabetoa izatea leporatu diote aurkariak, eta Tiriricak azterketa bat egin behar izan du irakurtzen eta idazten badakiela frogatzeko. Proba gainditu du, mihi gaiztoek kostata izan dela dioten arren. Europan inori ez zaio halako frogarik eskatzen. Denok omen dakigu idazten eta irakurtzen. Analfabetismo kultural eta linguistikoa eta hari lotutako gorrotoa eta maltzurkeria, aldiz, ez dira desagertu. Kirol munduan egunotan izandako bi gertaera ditugu adibide.

Igandean Gironako entrenatzaileari aurre egin zioten Huescan, Kataluniako hedabideei katalanez erantzuteagatik. Raul Agne katalan hiztuna da, eta aragoitarra jaiotzez, Mequinensakoa. Herria Franja de Ponent delakoan dago, katalanez egiten den Aragoiko eskualdean. Estatistiken arabera, hantxe ematen da katalanaren ahozko ezaguera handiena, herritarren %88k egiten dutelako katalanez. Paradoxa: portzentajearen katalanaren ahozko ezagutza non izan handiena eta Kataluniatik kanpo, herri txiki horietan. Mequinensako Udalaren web-orria gaztelerez idatzita dago, baina **herrian** argi uzten dute gaztelera hizkuntza ofiziala bada ere, ama hizkuntza eta kale hizkuntza katalana dela. Bertakoa zen Jesus Moncada idazlea. Huescakoak bezain aragoitarra dela esan du Agnek, katalanez egin arren, baina hangoek baztertu nahi izan dute, Mequinensako herritar gehienek ama hizkuntzaz mintzatzeagatik.

Euskal Herrian ere ika-mikak. Jose Luis Mendilibar Osasunako entrenatzaile berria hedabideei euskaraz erantzuten hasi denean, Patxi Izko presidentek euskaraz esandakoa itzultzeko eskatu

dio. Euskaraz galdetu duen kazetariari ironia maltzurrez aritu zaio Izko: «Bazeneukan gogoia euskaldun bat etortzeko, ezta?». Izko jauna, bistan da, ez da oso eroso sentitzen inguruan euskara entzuten duenean. Bere hitz egiteko eran eta berbak aukeratzeko moduan antzematen zaio. «Euskaldun bat etortzea». Nafarroan euskaldunak *sioux* modukoak dira, erreserbetan ondo gordeak, ofizialtasun mugatu eta guztiz irrealaren esparruan. Urdiain edo Arbizuko euskaldunak jasan beharreko anormaltasuna dira, nonbait. *Alien* taldea, nafarkeria espainolistaren defendatzaileen ustez. Etxepare eta Axular, euskal literaturako erreferentzia historiko handienetakoak, nafarrak zirela ere ez dakite. Edo ez dute jakin nahi. Horiek ere anormalak ziren Nafarroan.

Izko jauna eta bera bezalakoak pozik egongo dira Nafarroako Parlamentuak ez duelako onartu euskara ofiziala izatea. Euskara ofiziala? Halakorik ere! Ofizialtasuna eskatzea politika egitea dela argudiatu dute proposamenaren aurkakoek. Pailazorik agian ez, baina analfabeto kultural linguistiko maltzur askotxo bai, gure politikarien artean. Arrazoi du Tiriricak. Orain baino okerrago ezin. Nekez.

Llangollengo bildotsak

1987ko udan Galesera joan ginen Garth, Mike, John eta laurok. Bidaiako lehenengo eguna Manchester aldean eman ondoren, Llangollenerantz abiatu ginen. Galesko paisaia berdea, garbia, idilikoa iruditzen zitzaidan, abere haiek ikusi nituen arte. «Zergatik dute ardi horiek marka gorri bat gorputzean?», galdetu nuen. «Txernobylgo erradioaktibitateak kutsatuta daude», erantzun zuen Garthek.

Ukrainako hondamendi nuklearretik ia mende laurden pasa bada ere, arazoa ez da konpondu. Haizeak milaka kilometrora, Gales iparralderaino, eraman zuen Txernobylgo erradioaktibitatea, eta euri bortitzak goiko larreetan utzi zuen. Pozoiak han segitzen du. *Daily Post* egunkariak horren berri eman zuen iazko udan (<http://www.dailypost.co.uk/news/north-wales-news/2010/07/06/farmers-in-wales-still-stalked-by-chernobyl-55578-26791477/>) Galesko 300 abeltzainek baino gehiagok ezin dituzte 180.000 bildots saldu. Gobernuko funtzionarioek abereen erradioaktibitate maila neurtzen segitzen dute, bildotsak bazkan dabiltzan larreak oraindik ere kutsatuta daudelako. Glyn Robertsek, Galesko Nekazarien Elkarteko presidenteordeak, badaki haiena ezer gutxi dela Ukrainako egoeraren aldean: «Guretzat zama bat da, baina haientzat heriotza mehatxua. Gurea oso ordain txikia da haienarekin konparatuz gero».

Noiz arte egongo dira kutsatuta Galesko larre eta bildotsak? Noiz arte izango da Fukushima lur errea? Ez dut ulertzen Japoniako lurrikarak eta tsunamiak zentral nuklearrean eraginiko istripuaren harira hemengo botereak hedatu nahi izan duen mezua. Orain ez omen da unea zentral nuklearrei buruz mintzatzeko; emozioek ez omen digute laguntzen afera osotasunean eta modu egokian ulertzen. Lasai heldu behar zaio gaiari, antza; hoztu egin behar **dugu**, bestela ez ditugu-eta ondo ulertuko orain hozteko eskatzen digutenek gero kaskoak berotzeraino errepikatuko diguten leloa: energia nuklearra beharrezkoa, garbia eta segurua dela.

Orain ez omen da eztabaidatzeko unea. Horixe nuklearren aldeko agerikoen eta ezkutukoen zinismoa. Orain ez bada, noiz **izango da**, ba? Ustezko segurtasuna erabiltzen dute, bai, argudio gisa, baina ezustekoren batek segurtasunaren ispilua birrintzen duenean, segituan alboratzen

dute gaia. Inoiz lortuko ez den erabateko segurtasuna saltzeko neurrien berri ematen dutenean, badugu baimena gaia aztertzeko. Energia nuklearraren arriskuak gordin ageri direnean, ordea, aparkatu egin behar da auzia. Umeak bagina bezala tratatzen gaituzte. Burua hotz eduki behar omen da. Herri honetan erabaki asko, gehiegitxo, hartu dira bero-beroan egoera hotzean aztertu barik —gure egoera politikoari eragiten dioten ebazpenak datozkit gogora—. Erabaki horiek beroan bultzatu dituzten politikariak dira orain energia nuklearraren gaia hotzean aztertzeko eskatzen digutenak. Kopeta ederra gero!

1972an zentral nuklearra eraikitzen hasi ziren Zwentendorfen (Austria), Vienatik 32 kilometrora. Plantaren kontrakoek mugimendu handia eratu zuten. Protesta ekintza asko izan ziren, bederatzi amak Bruno Kreisky kantzilerraren egoitza instituzionalaren aurrean eginiko gose greba kasu. 1978n erreferenduma egin zuten Austrian: boto-emaeleen %50,47k zentralaren kontra bozkatu zuten. Hortxe amaitu zen kontua. Lanak gelditu egin ziren. 2009an eguzki energia planta ireki zuten Zwentendorfen. Energia atomikoa ekoizteko zen eraikina energia naturala sortzeko tresna da egun.

Prostitutak

Gaizkile talde batek bi urteko umea bahitu eta atxiki du, haren ama —legez kanpoko etorkin nigeriarra— prostituitzera behartzeko. Haurra Espainian zuten gaizkileek; ama, aldiz, Italian zegoen mehatxatuta, Erroman. Espainia eta Italiako poliziek harrituta eman dute gertatutakoaren berri. Denetik ikusi omen dute, baina halako kasurik inoiz ez.

Duda egiten dut PPko kideek eta *terrorismoaren* zenbait biktimak Nigeriako emakume horri eta, oro har, mundu zabaleko prostitutei erruki edo errespetu txikienik ere izango ote dieten. Baten batek galdetuko du zergatik lotzen ditudan eskuin espainiarra, berez muturreko eskuinaren ordezkaria ere badena, eta alde bateko indarkeriak eraginiko biktimen kolektibo bat prostituzioarekin. Biktimak eta prostitutak gauza bera al dira, ba?

Batzuek hala uste dute. Martxoaren 11n Pilar Manjonek eta Madrilgo atentatuetako biktimen elkarteko beste kide batzuek kontatu zuten, atentatuaren zazpigarren urteurrenaren harira Espainiako hiriburuko alkateorde Manuel Coborekin elkartu ziren, eta El Pozoko geltokian oroigarririk jarriko ote zuten galdetu zioten. PPko zinegotziaren erantzuna ezin doilorragoa izan zen: «Edozein egunetan monumentu bat egingo diegu Monterako putei». Adierazpen horien bidez M-11ko biktimak eta Madrilgo putak iraindu nahi izan zituen PPko politikari txit ohoragarriak, baina bere burua baizik ez zuen lotsagarri utzi, zitalkeria moral hori zela eta. Cobok M-11ko biktimak eta prostitutak konparatu zituen. Zergatik? Biktima horiek ez direlako ETaren biktimak. Gainera, Cobok eta PPko zenbait kidek ez diete barkatzen konspirazio faltsuen aurrean makurtu ez izana. Ondorioz, ez dute errespeturik merezi. Prostitutak omen dira.

Alta, Cobo jaunaren portaerak baino askoz gehiago asaldatzen du beste batzuen erreakzio ezak. Adierazpen askatasunaren mugak nahierara zehazten dituen estatuak ez du ezertxo ere esan aferari buruz. Beste zenbait kasutan, ostera, badaki zorrotz jokatzeko: urtebeteko kartzela zigorra Espainiako erregea torturatzaileen burua dela esateagatik, adierazpen horiek neurri handi batean logikoak direnean: zuk enpresa bat badaukazu, bertako buru guztiz boteretsua bazara eta, zure enplegatu batzuek iruzur egin arren, isiltzen bazara, iruzurgile horien burua

zara, onean eta txarrean. Askoz ilogikoagoa da M-11ko biktimak eta prostitutak alderatzea. Haien minari barre egitea. Jokaera horri ez diote jazartzen, baina.

Beste horrenbeste esango nuke AVTko jendearen inguruan. Zer ez zuten esango PPK M-11ko biktimei eginiko iseka ETAREN biktimei egin balie Euskal Herriko udal bateko zinegotzi batek, horiek monumentu bat eskatu eta hauxe esan balie, Bilboko prostitutak gogoan: «Edozein egunetan monumentu bat egingo diegu Palankako putei». AVTkoek amen batean jarriko zuten kereila auzitegian. Baina burla PPKo politikari batek egin du eta M-11ko biktimen mina ez da ETAK eragina.

AVT eta PP, besteak beste, gaur zortzi aterako dira Madrilgo kaleetara Espainiako gobernuaren kontra egiteko eta ETAREkin negoziatzeko ez izateko eskatzeko. Biktima horiek justizia nahi omen dute, beren justizia. Tellagorri zaharrak, Pio Barojaren pertsonaiak, hauxe zioen: errespetu handiagoa ziola ur-txakur bati herriko apaizari baino. Nik errespetu handiagoa diot Montera eta Palankako prostituten jarduerari zenbait biktimaren jokaerari baino.

William & Kate

Zerga iraultzailea eskatzeari utzi egin diola jakinarazi du ETAk. Albiste pozgarria da, gurean den indarkeriaren alde bat desagertzeko bidean dagoela erakusten duelako. Enpresarien buruak itxaropentsu azaldu dira, eta «beste terrorismo mota bat» ere baztertzeko eskatu dute, enpresari txikien aurkakoa: mehatxuak, pintadak, eta abar.

Enpresariak erantzukizun sozial bat dute —erakundeek eta beste eragileek bezala—, eta horrek bi alde ditu haien kasuan: batetik, lana sortzen dute; bestetik, etekinak lortzen dituzte. Inork ez du enpresarik sortzen dirua galtzeko. Inozokeria litzateke. Arazoa hauxe da: noiz egiten duten talka erantzukizun sozialak eta etekin nahiak; batzuen diru gosea inoiz asetzerik ote dagoen. Zuk enpresa bat baduzu, oso ondo dabilena eta dirua ematen dizuna, baina beste leku batera badaramazu gehiago irabazteko, non uzten duzu erantzukizun soziala hazkunderan lagun izan dituzun herritarrekiko? —lanpostuen truke, ados—.

Enpresarien kolektiboak arrazoi du bere interesei begiratu eta «beste terrorismo mota bat» desagertzea nahi duenean. Enpresariak ez diren beste eragile sozial batzuk ere zuzen daude beste indarkeria mota batez kezu direnean. Lehengoan Slavoj Zizek filosofoak «terrorismo administratiboa» aipatu zuen egunkari honetan eginiko elkarrizketan. Alegia, zer gertatzen den munduan «munduan ezer gertatzen ez denean». Zer gertatzen den ETAk enpresariak mehatxatzen ez dituenen. *Terrorismo* ekonomikoa desagertzen da?

Ez dago dudarik: zerga iraultzaileak ez ditu enpresari asko motibatu aurrera egiteko, baina hori aitzakia moduan erabili duenik ez dagoela pentsatzea ergelkeria da. Orain aukera ezin hobea dute gure enpresariak erantzukizun sozialari eusteko, ETAREN mehatxurik gabe: deslokalizatorik ez egiteko, langileek urteetan lortutako eskubideen kontra ez egiteko —hori ere kontratu sozialaren zatia da—, kaleratze mozorroturik ez egiteko, legea bete eta lan osasunaren aldeko neurriak ezarri eta errespetarazteko.

Enpresariei ez zaie eskatzen Giangiacomo Feltrinellik bezala jokatzeko, jatorri aristokratikoari uko egin eta, argitaletxe aitzindari bat sortzeaz gain, iraultzaren aldeko bonbak jartzen hiltzeko.

Lekutan daude Italiako langileek Fiat edo Pirelliko jauntxoek kontra 60ko hamarkadaren bukaeran egiten zituzten zigor ekintzak. Enpresariei ez zaie eskatzen lelo marxista besarkatzea: *bakoitzak bere gaitasunaren arabera, bakoitzari bere beharren arabera*. Kontua errazagoa da. Antonio Gamoneda poeta espainiarrak zorrotz azaldu zuen duela gutxi: «Akats humano handiena enpatiarik eza da, gizakiak haxe pentsatzea: hor mundu bat dagoela eta hortik ahalik eta etekin handiena atera behar duela. Gizaki hori berea ez den oinazeari sorgorizatea».

Hemengo hedabide gehienek edizio digitaletako albiste nagusia printze baten semearen ezkontza izan zen atzo. Espainian, Madrilek administratutako Euskal Herria barne, ia bost milioi langabe daudela bigarren mailako albistea genuen. Barkatu esatea, baina gizartea hala narkotizatzea ere indarkeria da. «Zergatik ez duzu neska-lagunik?» —galdetu zion lehengoan tabernan mutil batek lagunari—, «hipoteka edo alokairua erdi bana ordainduko zenukete». Neska batekin hasi, etxea ordaintzeko. Kriak erromantizismoa hiltzeraino eramane gaitu, baina ez beti: William eta Kate ezkondu egin zaizkigu. Hara! Erdi bana ordainduko dute alokairua?

Gasteizko bananondoak

Duela urte batzuk proiektu erraldoi bat aurkeztu zuten Alemanian, Baden-Wurttemberg landerlean, tren garraio-sistema aldatzeko. Stuttgart hiriburuan geltoki berria lur azpian eraikitzea zekarren horrek, eta inguruko parkeko hainbat zuhaitz botatzea. Geltokiaren gaineko orubeetan etxebizitza berriak, merkataritza gunek eta abar eraiki **nahi zituzten**. Herritar asko kontra bazeuden ere, lanak 2010eko otsailean hasi ziren.

Proiektuaren aurkakoen manifestazioak areagotu egin ziren orduan. Landerlean CDU Batasun Kristaudemokrata zegoen agintean, FDPko liberalekin batera. Gatazka konpontzeko bitartekaritza foroa sortu zuen gobernuak, proiektuaren aldekoak eta kontrakoak elkartu eta haien iritzia jasotzeko. Azkenean aldaketa batzuk onartu ziren. Aurtengo martxoan bozak izan ziren Baden-Wurttembergean, eta CDU-FDP koalizioak ez zuen boterean segitzeko beste botorik lortu. Ondorioz, gobernu osatu dute Berdeek eta SPDko sozialdemokratek. Ekologistak Stuttgart 21 proiektuaren kontra daude; sozialdemokratek, alde. Azken hitza herritarrei eman diete. Erreferenduma urrian izango da.

Stuttgarten gertatutakoa etorri zitzaidan gogora asteartean, Patxi Lopezek bere mezu apokaliptiko eta demagogikoa hedatu zuenean. Lopezen arabera, Euskal Herria «gelditu» egingo litzateke Bilduk boterea hartuko balu. Bestalde, Txarli Prieto sozialistak esan du Bilduren programak «*banana errepublika*» bat ekarriko lukeela. Azpiegiturak eta proiektu guztiak bertan behera utziko omen lituzke. EAJ eta PP ere antzera mintzatu dira. Bildu guztiaren kontra omen dago; harekin ez dago aurrera egiterik.

Bilduk ez du azpiegiturak egitea debekatu nahi. Koalizioak garrantzi handiko gaiei buruz eztabaidatzea proposatu du, eta herritarren iritzia kontuan izatea. Hemengo zenbait agintari kudeaketarako gaitasuna eta label demokratikoa eskatzen ari zaizkio aurkari politikoari. Nago Bilduk ez ezik, beraien ere badutela zer ikasi. Lezioak ematen hasi aurretik Stuttgartera joan beharko lukete, krisiak eta desadostasunak eztabaida irekian eta herritarren parte hartzearekin nola kudeatzen diren ikusteko, goitik ezer inposatu gabe. EAJk asko ikasiko luke CDUtik; eta sozialistek, SPDtik.

Stuttgart 21 proiektuari buruzko eztabaida foroko bitartekaria Heiner Geissler izan zen, CDUko buruzagi historikoa. Geisslerrek demokraziaren eta herritarren arteko harremanen inguruan hitz egin zuen *Der Spiegel* aldizkarian, 2010eko abenduan. Hona haren adierazpen batzuk: «Botoa emateko eskubidearekin batera, herritarren oinarritzko eskubide garrantzitsuena hau da: hauteskundeak izan arteko denboran ere bere ustez zer den zuzena esatea». Eta herritarren aldarrikapenei buruz: «Herritarren ekimenak gizarte zibilaren ekimenak dira, helburu batekin: demokrazia zuzenera gehiago hurbiltzera ausartzea. Legebiltzar baten zeregina legeak proposatu eta onartzea da, baina ez geltoki edo energia plantei buruz erabakitzea. Parlamentariak ez dira horretarako aukeratzen. Hori demokrazia ordezkatzaila faltsutzea da».

Baden-Württemberg Alemaniako lander aberatsenetakoa da. Bertan daude Mercedes, Bosch, Porsche, IBM... Langabezia %4,2koa dute. Gazteen artean %2,7koa da portzentajea —%43koa Espainian, ia %30ekoa Hego Euskal Herrian—. Stuttgarteko gobernuak egindakoa XXI. mendeko demokrazia europar ez perfektu baten jokaera da, ez *banana errepublika* batena. Garrantzi handiko aferetan erabakitzeke herritarrei zuzenean hitza emateak sistema demokratikoa sendotzen du. Lau urtean behin bozkatu eta bitartean isilik egoteko eskatzea, ordea, jauntxo erresuma baten oinarria da. Macondon eta Gasteizen.

Chimezieren lagunak

Baduzu George Michaelen azken aferaren berri? Intziri asko egiten du Samantha Foxek ohean? Aktore horren taketa zenbat zentimetrokoa da? —barkatu, zenbat *inche*koa, *Britishen* zakilak ez baitira zentimetroetan neurtzen—. Fine Young Cannibalseko kantaria orgia batean egon da? Guk badakigu hori; hementxe duzu testigantza...

Halako kazetaritza egiten zuten duela urte batzuk *The Sun* egunkariak eta *News of the World* haren igandekariak; halaxe egiten segitzen dute orain. Atzoko *The Sun*ek hauxe azaldu zuen azalean: King's of Leoneko kantari Caleb Followillek emaztearen dei bat jaso zuen kulero moreak janzen ari zela esateko. Andrea, Lily Aldridge, Victoria's Secret enpresaren modeloa da, baina sekretu gutxi dago haien bizitzaren inguruan. Nork helarazi zion informazioa egunkariari? Kazetariak erositako mihi luzeek? Bikotearen lagunak? Protagonistek beraiek?

Egunero milioika irakurlek hartzen dute *The Sun* esku artean. Rupert Murdochek egunkaria gehien irakurtzen dena da Londresen, Erresuma Batuan bezala. Hiriburuko eskualde guztietan ditu irakurleak: High Barnet kontserbadorean, Golders Green auzo juduan, Kilburn gune irlandarrean, Kensington aldeko pijoen habian, Aldgateko *cockney* jatorren artean, Brixton «arriskutsuan»...

Chimeziek ere *The Sun* erosten zuen, eta Margaret Thatcherri botoa eman behar zitzaiola esaten zuen Tally Ho Cornerreko pubean, egunkaria erakutsita. Tabloideak iruzkin arrazistaz jositako artikuluak argitaratzen zituen, baina horrek ez zion ardura jatorri nigeriarreko lagunari. Gainera, *Maggie* —hark hala deitzen zion— Finchley bertan aurkezten zuen Alderdi Kontserbadoreak, hauteskunde-barruti hartan. Pare bat garagardo edan eta gero, lanera joaten zen Chimezie, pozik. Lisa ilehoria zortziak aldean hasten zen beharrean. Lankide guztiak zorutzen zituen. Gehienak gizonezkoak, baina bazen emakumezkoak ere tartean.

News of the World itxi behar izan du Murdochek entzuketan aferagatik, baina *The Sun* argitaratzen segitzen du. Hedabideak iritzia publikoa bideratzeko duen eragina itzela da. Zabor albiste horiekin batera, ideologia mota bat ere saltzen du, itxuraz politika kutsurik ez

duten albiste horiek politikaz kutsatuta daudelako: pentsamolde libertarioa dute zentzurik kontserbadoreenean, oinarri nazionalista, klasista, matxista eta populista, adjektibo hori ez baita zenbait ezkertiarren monopolioa.

Sean Horek, Murdoch-en enpresako kazetariak, egunkari horien joko zikina salatu zuen bere buruaz beste egin baino lehen. Gordin deskribatu zuen bere bizimodua: *rock izarren gosaria* hartzen zuen —koka *tirito* bat eta whiskya— eta gero zurrubiloan sartzen zen, festaz festa, jende famatuaren usainean. Horrela egunero, urteetan. Kazetari asko zebiltzan gisa horretan. Dinamika hori uzten zuena baztertu egiten zuten enpresan. Sekta bat ematen zuen.

Zertarako izan kazetaria? Nola eta zertan eragin behar dio kazetaritzak gizarteari? Asko hitz egin da *News of the World* deko entzuketen auziaz. Aferak kritika sakona behar du. Azken batean, kazetaritza mota hori negozio handia da, herritarren zati handi batek bere egin duelako. «Herriak badaki, hutsezinezko usainari esker, noiz defendatzen dituen egunkari batek interes pribatuak, eta noiz publikoak. Eta hura erosteari uko egiteak mugatu egiten du egunkari horrek min emateko duen gaitasuna», idatzi zuen Joseph Pulitzerrek duela ehun urte baino gehiago. Herriak sudurra galdu ote du geroztik hona?

Chimezieren lantokian hogeit hamar minutuko atsedena zegoen bazkaltzeko. Lankide batzuek egunkaria irakurtzen zuten orduan. Egun batean *The Sun* ez zen egunkari bat eraman zuen lagun batek. «Zergatik erosten duzu *The Guardian*? Hau Finchley da», esan zion Ciarak. Neska zorrotza zen Ciara, Lisaren lagun mina. Irlandarra zen jatorriz, baina ez zen Kilburnen bizi, High Barneten baizik.

Nork inkubatu du arrautza?

Aurten 25 urte bete dira Olof Palme hil zutenetik, eta indarkeriak Eskandinavia astindu du berriz, oraingoan Norvegian. 1986ko otsaileko 28an ezezagun batek Suediako lehen ministroa tirokatu zuen Stockholmen, politikaria emaztearekin zinematik irten eta gero. Palme aurrerakoia zen: presio fiskal handia ezarri zion kapitalari eta demokrazia soziala garatu zuen, herritarrei guk hemen nekez ezagutuko ditugun zerbitzuak eskainiz. Etorkinei, esaterako, bidea eman zien jaioterritik irakasle bat eramateko Suediara, estatuaren diruaz seme-alabei ama hizkuntza irakasteko.

Gamla Stanen, Stockholmeko alde zaharrean, ibiltzen ziren hegoamerikarrek azaltzen zizuten hori guztia —orduko Suedian anitz ziren Txile, Argentina eta Uruguako iheslari politikoak—. Palmek demokrazia industrialak ere bultzatu zuen: langileen ordezkaritza enpresetako administrazio kontseiluetan, kasu. Hego Afrikako *apartheid*-aren kontra jardun zuen gogor, eta AEBen politika inperialistaren aurka —Sobiet Batasuneko askatasunik eza ere kritikatu zuen.

Izan zen Palmeren hilketaz poztu zenik, eta ez soilik eskuinetik. Nire lagun batek «sozialdemokrata zikina» deitu zion hilketaren berri izan bezain laster. 1975ean, Suediako lehen ministroa zen garaian, Stockholmeko kaleetara irten zen Palme, itsulapikoa eskuan diru eske, Francok hiltzera kondenatutako borrokalariekiko elkertasunez. Alta, lagun haren ustez, Txiki, Otaegi eta FRAPeko hiru kideren alde egin zuenak heriotza merezi zuen, sozialdemokrazia sistema kapitalista apaintzeko tresna baitzen. Pentsatzen genuenok iraultzak testuinguru historiko eta baldintza sozio-ekonomiko jakin batzuetan baizik ez direla ematen eta, bitartean, justizia sozialaren alde egitea aurrerapausoa dela susmagarriak ginen.

Norvegiako atentatuen egileak Islamaren eta Europaz kanpoko etorkinen kontra ezer ez egitea leporatu dio Jens Stoltenberg sozialdemokrataren gobernuari. Erraza da erasotzailea zorrotzat jotzea, baina zoro horrek ez du burua galdu fantasiak puztutako ameskerietan. Zoroak gizartean hedatua den pentsaeratik edan du. Haren mezua ez da arrazakeria klasikoan oinarritzen; arriskutsuagoa da. Izan ere, arraza edo herri batzuk beste batzuk baino gutxiago direla esatea defendaezina da gaur. Inork gutxik onartuko du kanpotik etorritako herritarren

gaitasun intelektual edo fisikoak orokorrean gureak baino eskasagoak direla. *Untermensch-*aren teoriak ez du saltzen. Kultura desberdinetako kideak elkarrekin bizi ezin daitezkeela aldarrikatzeak, ostera, bai. Kasu honetan, kanpoko ez da gu baino gutxiago, diferentea baizik, eta arriskutsua, gure bizimoduari erasotzen diolako. Horren arabera, erlijio, balio eta eredu kultural diferenteek kalte egiten diote bizikidetzari.

Ez da zaila halako mezuak gizartean txertatzen, Ingmar Bergmanek *Ormens ägg* —Sugearen Arrautza— filmean nazismoaren sustraiei buruz erakutsi zuenez. Ildo horretan, eraso horien gaineko erantzukizun morala ere aipatu behar da, Daniel Poohlek, Expo arrazakeriaren aurkako aldizkariko zuzendariak, nabarmendu duenez. Eskuin-muturrak musulmanak kriminalizatzen baditu erasotzaile islamisten erlijioa dutelako, musulman eta etorkinen kontrako mezuak hedatzen dituen eskuina eraso arrazisten erantzulea da, haien pentsaera bera duelako. Mezu arrazistak hedatzeak sugearen arrautza inkubatzen du, eta orduan errazagoa da hura noizbait lehertzea.

«Ez dago herrialderik halako erasoetatik guztiz babestua denik», esan du Norvegiako lehen ministroak atentatuei buruz. Stoltenbergekin «demokrazia eta gizatasun handiagoak» agindu ditu. Oso inozoa izan behar da Norvegiar ezertxo ere aldatuko ez dela pentsatzeko, baina bertako gobernuaren lehen erreakzioak itxaropentsuak izan dira. Kohesio soziala, hezibidea eta errespetua aipatu ditu. Gizarte guztietan dago indarkeria hondar bat, politikoa, ekonomikoa, soziala. Agerikoa, edo ezkutukoa, sinbolikoa. Indarkeria, gatazka hori behar bezala kudeatzen jakitea da gakoa; gizarteko kontraesanetatik jabetzea eta denontzako elkarguneak bilatzea dugu konponbide inperfektua. Horretan etsi gabe jardutea erraza izango ez dela jakin arren. Denak susmagarri bihurtzea, lortu ezinezko erabateko segurtasunaren aitzakiaz askatasun zibilak gehiago murriztea, ez da bidea. Gorrotoa eta odol egarria hedatzea ere ez. Horretaz, esanguratsua izan da egunotan Espainiako zenbait hedabideren mezua: norvegiarrek oso kondena samurrak ezartzen omen dituzte, hilketa bakoitzeko hiru hilabeteko zigorra besterik ez du jasoko hiltzaileak ... Badirudi Espainiako kode penal krudela esportatu nahi dutela. Hauxe erantzungo nieke: aukeratzen hasita, nahiago dut sistema bat, halako sarraskiaren egileari 21 urteko epai irmoa ematen diona, kutzazain automatiko bat erretzeagatik 10 urteko kondena, behin betikoa, ezartzen duena baino.

Olof Palmeren hilketak ez zen inoiz argitu. Susmo gehienek nazioarteko eskuin-muturra egin zuten erantzule. Mundua aldatu egin da geroztik: globalizazioaren aurpegi atzerakoiak dugu nagusi, eta Palmek garatutako neurri sozialak oraintxe bertan sinatuko lituzkete, begiak itxita, haren heriotzaz poztu ziren iraultzaileek —bulego eder batean eserita ez daudenek, behintzat—. Gu ere aldatu gara: garai haietako susmagarriok eszeptikoagoak gara, baina oraindik segitzen dugu pentsatzen justizia sozialaren aldeko edozer egitea aurrerapausoa dela gizateriarentzat. Nire orduko lagun horrek, iraultzarik odoltsuena nahi zuenak, EAJko karneta du egun. Bozka egunetan jeltzaleen ordezkari ibiltzen da, tarteka, Bizkaiko herri batean.

Gosea Salzburgon

Siriako irudiekin bazkaltzen ari gara egunotan, eta Libiakoeekin afaltzen. Somaliako gosetearen irudiak ere erakusten dizkigu telebistak, baina askoz gutxiago. Gure laguntza humanitaria bertara heltzen denean izango da momentua. Bitartean ez da komeni jangelan ume gosetuen sabel puztuak ikustea. Siriako errepresioaren odola ondo ezkontzen da gure platereko txuletoiaren zuku gozo gorriarekin. Afrikako ume horien begirada galdua, ordea, ez.

Salbuespenak albuespen, Europako alde honetako 50 urtez beherako herritarrok ez dakigu zer den benetako gosea, gizakia osotasuna eta duintasuna txikitzeraino makurrarazten duen gosea. Ogi puska bat lurrera erortzen bazaigu, hiru aukera ditugu: bertan utzi eta ez jaso; jaso, behar bezala garbitu eta jan; jaso eta garbitu gabe jatea —desesperatuta gaudelako edo, saiatuta ere eta guztiz garbitu ez dugun arren, jan beste erremediorik ez dugulako—. Gu hiru maila horietako bigarreneira iritsi gara, gehienez. Hirugarreneira, ez. Laugarren mailaren arrastorik ez dugu: ogia irudikatzea, sukarrak hartuta ia-ia, ogi hori zoro moduan zaborretan bilatzea.

Jean Ziegler, NBEren elikatze eskubidearen kontseiluko kontalari berezi ohia, hitzaldia ematera gonbidatua zen Salzburgoko jaialdiaren irekiera ekitaldian. Azkenean betatu egin **dute, baina**. Mendebaldean ez dago zentsurarik, ez horixe, baina Ziegler *persona non grata* izendatu dute Salzburgon, gosearen kontrako laguntzak gero eta eskasagoak direla salatu nahi zuelako: «Bost segundotik behin ume bat hiltzen da gosez. Ez dago dirurik, dirua bankuak salbatzeko erabiltzen baita», esan behar zuen ekitaldian. Zieglerri atea ixteko arrazoia Gaddafirekin harremanak dituela argudiatu dute Salzburgon, NBEko kontalari ohiak Libiako buruzagia «psikopatatzat» jo izan duen arren. Boikotaren benetako arrazoia, Zieglerren iritziz, jaialdiaren babesle handienen presioa izan da: Nestle jaki enpresarena eta Credit Suisse bankuarena. Biak suitzarrak dira, Zieglerren modukoak. «Gustura asko egingo nuke irekiera hitzaldia» —esan zion irakasleak *Kurier* egunkari austriarrari apirilean— «hor esertzen direnak aberats okituak dira. Ordu erdiz entzutekoak entzun beharko lituzkete, atea itxita. Ez lukete alde egiterik izango». Ez da hala izan. Zieglerrek liburuxka batean atera behar izan du bere testua —*Der*

Aufstand des Gewissens, Kontzientziaren matxinada — ecowin-Verlag argitaletxean, uztailaren amaieran, Salzburgoko jaialdia hastearekin bat.

Azken hamarkadetan gosea gure mugetatik kanpo gertatu da ia beti, hirugarren mundua delakoan. Uste baino gehiagotan bertako herritar eta agintarien ezgaitasunari lotu diogu izurrite horren arrazoia. «*Beltz horiek ez dakite euren burua gobernatzen, badakizu*». Orain, askonahiak eta lukurreriak gurean eragin dute krisia. «*Zuri horiek ez dakite euren burua gobernatzen. Merkatuari begira daude orain, beldurrak akabatzen*», pentsatuko dute afrikar gosetuek.

Gure *spa* gizartearen krisiak ez die gehiegi eragingo. Gehien jota, gure errukia lehortu egingo da: laguntza gutxiago bidaliko diegu, eta ez dugu dirurik izango haien aldeko 3D kontzertu erraldoia ikusteko txartelak erosteko. Haiek gosez hiltzen segituko dute, baina horrek ez dio ardura finantzen munduari. Merkatuek ez dute kontzientziarik, eta Salzburgoko mezenasek poltsikoan dute bihotza. Aberats okituen ustez, ez da haien errua fatalismo demografikoak lurralde idorretan kokatu bazituen gizaki behartsuenak. Horiek Afrikan gosez hiltzera kondenatu bazituen jainko beltzak, zergatik salbatu behar ditu Europatik jainko zuriak?

Etsipenaren geografia

Londresko istiluek etsipenaren arrastoa utzi dute bertako kaleetan. Zaila da indarkeria mota hori defendatzen, baina erraza haren sustraiak ulertzen. Istiluek oinarri politikorik ez dutela diote batzuek, nihilismo hutsa direla. Neurri batean hala da, baina hori ondorioa da, ez kausa. Kausa auzo pobreetako gazte zuri eta beltzak elkartzen dituen zerbait da: esperantzarik eza, pobrezia kontsumo gizartean. Hezkuntza sistema publikoa gero eta eskasagoa da Ingalaterran; langabeziaren mamua hor dago; laguntza sozialak murrizten ari dira. Laguntza horiekin gazteek Tesco edo Sainsbury's supermerkatuetan jatekoa erosteko beste diru dute, baina diru hori ez da nahikoa kontsumo gizartean herritar sentitzeko.

Londres, Birmingham, Manchester... Etsipenaren geografia porrot politikoaren mapan. Lekukoen arabera, saltokiak txikitu dituzten gazteek ez dute jatekorik lapurtu, markako arropa baizik. Kontsumo gosea. Gure sistemak piztu du gose hori, eta orain ez da hura asetzeko gai. Matxinatuetako askok gaizkile moduan jokatu arren, istiluek sustrai politikoak dituzte, gizarte mota guztiak erabaki politiko, ekonomiko eta sozialen bidez osatu eta egituratzen direlako.

Arrazoi horiei beste bi faktore sozial gehitu behar zaizkie, oso espezifikoak, ezertan laguntzen ez dutenak: Ingalaterrako familia egitura eta gizartearen ezaugarriak. Han familia ez da koltxoi afektibo eta ekonomikoa, ez hemengo moduan behintzat. Gurean, semea edo alaba amaxoren etxera azaltzen da edozein egunetan, abisatu gabe, eta amaxok otordu ederra prestatzen dio poz-pozik. Ingalaterran, behin egingo du hori. Hurrengoan alde aurretik telefonoz deitzeko esango dio amak, eta orduan berak erabakiko du. Konparazioa gehiegizkoa da, baina ez dago errealitatetik oso urrun. Horrekin batera, beste faktore bat: Ingalaterra Mendebaldeko gizarte klasistenetakoa da. Nahiz eta loteria irabazi, pobrea bazara, beti izango zara pobrea betiko aberatsen begietan. Oso zaila da maila sozialetik igotzea. Kolonia ohietatik bertara doazen herritarrek —Australia edo Zelanda Berrikoek, esaterako— onartzen dizute hori. Zuriak hori badiote, zer ez dute esango Tottenhameko gazte beltzek? Zer ez dute egingo poliziak haietako bat tiroz hiltzen badu?

Harold McMillan kontserbadorearen agintaldian lehenik, eta Harold Wilson laboristaren garaian gero, Afrika, Asia eta Karibetik joandakoen ondorengoek baztertuta ikusten dute euren burua Ingalaterran. 60ko eta 70eko urteetan desberdintasunak zeuden, baina aldi berean estatuaren babes sozial handia zegoen egoera hori samurtzeko, Thatcher heldu arte. Ez zen Ludwig Erhardek Alemanian garatutako merkatu ekonomia soziala, baina funtzionatu egiten zuen. Orain hori guztia desagertzen ari da; merkatu ekonomia basatia dago. «Langabeziak piztu zuen nire kontzientzia politikoa», aitortu zuen Harold Wilsonnek behin, txikitan etxean bizitakoa gogoan. Nork esan du langabezia, bazterketa eta etsipena ez direla politikoak?

Miraria Milanen

Libian egiten ari den **esku-hartze** militarri eutsiko dio NATOk Gaddafi boteretik kendu eta gero, erakunde militarrek atzo jakinarazi zuenez. Mendebaldeko potentzien erasoak bere horretan segituko du, herrialdean «mehatxurik den bitartean». Kolonialismo politiko-ekonomikoak ez du lana amaitu, antza. Reuters agentziak hedatu duenez, egoera berriak «esperantza» piztu du petrolio enpresa handien artean —Frantziako Total eta Italiako ENI, besteak beste—. Astelehenean NATOren bonbek horien kotizazioa hobetu zuten burtsan: ENIren akzioak %6,33 igo ziren Milanen. Paris eta Erroma matxinoekin ari dira hizketan urre beltzaren kudeaketari buruz. Gaddafi erori egingo da. Ospakizunetako sua prest dago Milango aldarean.

Libiako erasoak Magrebeko erreboltei lotu nahi izan diete batzuek. Hala ere, ez du zer ikusi handirik harekin. Tunisian eta Egipton herri errebolta izan zen, armarik gabea, kanpoko esku-hartzerik gabea, zuzenean behintzat. Arnasa berria. Libian, aldiz, ondo hornitu eta armatutako matxinoek piztu zuten sua. Ez omen zuten NATOk troparik nahi, euren irudiari kalterik ez egiteko Libiako herritarren artean. NATOk soldaduek ez dute lurralde libiarra zapaldu; bonbek, ordea, bai. Azken bost hilabeteetan 19.877 aire eraso egin ditu aliantzak Libian, hark berak emaniko datuen arabera. Horrek ondorio latzak utzi ditu, azkena hilaren 9an, Zliten herrian. Bertan 85 herritar hil zituzten bonbek: 33 ume, 32 emakume eta 20 gizon. Zibilak babestu? Zibilak hil, matxinoak indartzeko.

Berlusconirekin eta Sakozyrekin egindako argazki ez hain zaharretan ikusi dugu Gaddafi egunotan. Nork erabaki du hura kendu behar dela? Zergatik orain? Magrebeko matxinaden aitzakiak testuinguru ezin hobea eskaini die Libiako matxinoei altxatzeko, eta Mendebaldeari horiei laguntzeko, domino efektua baliatuz. Abagune hori gabe askoz zailagoa izango zuen oposizio ahulak aurrera egitea. Bestalde, Mendebaldeak ez zuen alternatiba argirik ikusten Gaddafiren ondoren, Tripoliko megalomanoaren seme nagusiak boterea hartzea ez bazen. Diktadura hereditarioa eragotzi beharra zegoen, Sirian gertatu zena saihesteko: aitaren semeak boterea hartu eta *status quo*-ak, Mendebaldearen aldekoa ez denak, beste hamarkada batzuetan irautea —Saudi Arabian ere diktadura hereditarioa dugu, baina ez da horren

kontrako erreboltarik babestuko—. Gaddafiren kontrako erasoaz mezua igorri diote Siriari — Israelen arerio nagusietakoa Ekialde Hurbilean—. Izan ere, Bashar al Assad tiranoa izango da, baina itsua izan behar da Siriako errebolten atzean Mendebaldearen atzaparrak ez ikusteko.

Afganistan, Irak... Gerra hasi eta gerra amaitu ez, ofizialki amaitutzat jo arren. Orain Libiaren txanda da. Mehatxuei buruz hitz egin du NATOk, baina NATO bera ez al da mehatxua?

Igerileku terapeutikoa

Irúñean ia dena prest dago espetxe berria irekitzeko. Eraikina azken ukituen zain dago urte berriarekin batera funtzionatzen hasteko. Agintariek aste honetan aurkeztu dute «XXI. mendeko kartzela eredua». Halaxe definitu du espetxea Mercedes Gallizok, Espainiako Espetxe Erakundeetako idazkari nagusiak, Nafarroako hiriburuan. Telebistan ikusi ahal izan dugu eraikin modernoa: gela zuri garbiak, gimnasioa, frontoia... Igerilekua ere badu kartzelak. Txandaka erabiliko dute presoek, modulo bakoitzak egun jakin batean. Igerilekua «terapeutikoa» dela zehaztu du Gallizok, «ez jolaserako», eta hor zalantzak agertu dira: ez dago argi bainua hartzeko baimena soilik bizkarreko mina duten presoek emango ote zaien eta, hala bada, zergatik beste presoek ez duten izango Michael Phelps berdindu nahi izateko eskubidea. Bestalde, ikusteko dago erabilera terapeutikoa izango duten gatibuei onartuko ote zaien uretan plisti-plasta ibiltzea, instalazioa jolaserako ez bada.

Kartzela berriak mila lagun ingururentzako lekua izango du, eta hura betetzeko kanpoko presoak ekarriko dituzte Euskal Herrira. Hemendik presoak eraman, handik presoak ekarri. Dispersioa bi norabideetan, horixe politika. Distantzia, urruntzea, tresna izan da beti presoak eta haien senideak gehiago zigortu eta makurrarazteko. Ingalaterrak Australiaraino bidaltzen zituen gatibu arriskutsuenak; Frantziak, Guyanara —Steve McQueenek eta Dustin Hoffmanek ederto azaldu ziguten Frantziako kartzela sistemaren krudelkeria *Papillon* filmean—. Espainiak bere lurralde afrikarrak erabili ditu euskal presoak zigortzeko: Ceuta, Melilla edo Kanariar Uharteak —Afrikan daude, ezta?—. Eskerrak Ekuatore Gineak independentzia lortu zuen 1968an; osterantzean hara bidaliko zituzten.

Gallizo oso baikor **azaldu** da hedabideen aurrean. “Espetxea gure demokraziaren mailakoa da”, argudiatu du. Hor ere zalantzak, demokrazia non kokatzen duzun. Eraikina Euskal Herrian dagoenez, eta demokrazia espainiarra dugunez, badago kartzelaren kalitateaz duda egiteko arrazoirik. Batez ere ohartzen bagara igerileku terapeutiko hori Europako kartzela sistema latzenetako batek diseinatu duela. Espainiako demokraziaren mailako kartzela sistemak, alegia.

Ez da hor bukatu marketina. Espainiako Gobernuaren ordezkariak izurra izurtu du, kartzela

eskulan egokia lortzeko tresnatzat jo baitu, krisiari aurre egiteko, antza. Ildo horretan, tailerretan parte hartzeko deia egin die Nafarroako enpresariei, «presoak bergizarteratzen laguntzeko». «Deslokalizazio garaietan kartzelak alternatiba onak izan daitezke», adierazi du.

Kartzelak deslokalizazioak saihesteko. Zenbat eta preso gehiago egon, orduan eta aukera gehiago enpresarientzat eskulan merkea lortzeko. Gatibuek lanbidea ikasiko dute tailerretan, eta haien lan indarra salduko diete enpresariei bergizarteratzen laguntzearen truke, ia sosik jaso gabe. Hala, gure empresa gizon-emakumeek ez dute tentaziorik izango lantegia Turkiara edo Marokora eramateko. Bertan baino behargin askoz merkeagoak izango dituzte Iruñeko kartzelan. Langile gatibuak baino hobeto aterako zaizkie preso langileak. Hemengoak zein Turkiakoak edo Marokokoak. Denak pozik: gatibuak eta enpresariak. Presoek, gainera, aukera izango dute igerileku terapeutikora joateko, lanaren ondorioz bizkarreko minik badute. Eta aitzakia uretan plisti-plasta ibiltzeko, Gallizo andereak jolas egiten uzten badie.

Perpinyatik Perpinyara

Aitor dezadan, gaur kalera irten ondoren inork galdetu aurretik: duela hamar urte, 2001eko irailaren 11n, Perpinyan nengoen *Visa pour l'Image* nazioarteko argazki kazetaritza erakusketaz gozaten. Halakoetan ohi denez, argazki bilduma gehienek ez zuten errealitate zoragarriak islatzen: Schengen espazioa eta etorkinen arazoak Europan, Ramalako umeak, Errusia Putinen menpe, Pakistan herrialde txikitua... Ez nuen New Yorkeko erasoen berri izan trena hartu, muga pasatu eta Port Boura iritsi arte. Bertako geltokian ikusi nituen dorre bikiak sutan, telebistako albistegian. Gaueko bederatiak pasatxo ziren.

Irailaren 11ko erasoek Bushen agenda inposatzeko balio izan zuten munduan. Agenda hori AEBen nagusitasun politiko, ekonomiko eta militarrean oinarritu da urte hauetan. Erasoen ostean munduan demokrazia hedatzeko mezua aireratu zuen AEBetako presidentek, garai berrien hasiera, baina demokraziaren eta giza eskubideen aldeko borroka omen zena demokrazia *sui generis* bat ezartzeko gurutzada bihurtu zen, oso modu berezian: Afganistan eta Irak gaiztoetako despotak zigortzeko eta herritarrak saritzeko demokrazia hori eraman zuten bertara; Mendebaldearen aliatuak ziren estatu arabiar onetako despotek, aldiz, sustenguaren saria jasotzen segitu zuten eta haien menpeko herritarrek indiferentziaren zigorra.

Erasoen ostean normaltasunez bizitzeko deia egin zien Bushen herritarrei, beldurrik ez izateko, kalera irten eta kontsumitzeko, kontsumorik gabe ez baitago demokrazia kapitalistarik. Beldurrik ez izateko segurtasun sentazioa hedatu behar zen eta horretan jardun dute gure agintariak azken hamarkadan —kontrol handiagoak, lege zorrotzagoak...— baina ez dute helburua lortu. Mundua orain seguruagoa dela esaten digute. Alta, kontu bat da segurtasuna eta beste bat segurtasun sentazioa. Horra paradoxa: egun seguruago omen gaude, geure askatasun berez murriztuak eman dizkiegu segurtasun horren truke baina, hala eta guztiz ere, ez gara lehen bezain seguru sentitzen. Segurtasunik ezaren sentazioa nagusitu da. Zertarako balio du seguru egoteak seguru sentitzen ez bagara?

Bushen terrorismoaren kontrako gerrari eutsi dio Obamak, baina arrandiarik gabe. Irailaren 11 baino lehen 1.800 ziren AEBetako indar berezietako eliteko kideak; egun, 25.000. AEBetako armada sekretua dira, *The Washington Post*-en arabera. Ezkutuko operazio batean hil dute aurten Osama Bin Laden. Al Kaedak ez du gerra irabazi —inork uste zuen hala izango zela?— eta aurten herrialde arabiarretan izandako erreboltak ez dira haren eskuetatik etorri, herritar xumeen ekimenetatik baizik. Libian, Mendebaldeak esku-hartze zuzena izan duen matxinadan, bestelakoa izan da prozesua. Al Kaedarekin loturak izateagatik atxilotutako gizon bat da orain Tripoliko buru militarra: Abdel Hakim Belhaj. Talde Islamiar Borrokalaria sortu zuen Belhajek. Taldeak bi entrenamendu gune zituen Afganistanen I-11 baino lehen. Haietako batean Al Kaedako boluntarioak hartzen zituen. AEBek jihadistak baliatu zituzten Afganistanen sobietarren kontra. Orain antzera jokatu dute Gaddafi botatzeko. Belhajek-eta loturak izan zituzten New Yorkeko atentatuak egin zituen erakundearekin, baina horrek ez dio ardurarik.

Duela hamar urte jaun eta jabe ziren AEBak munduan eta egun, ñabardurak ñabardura, halaxe segitzen dute. 2001ean lehen hamar urteak pasatuak ziren Sobiet Batasuna eta sozialismo erreala deiturikoa desagertu zirenetik. Orain, hamar urte geroago, merkatu librearen globalizazioak kontsumitzaile apolitiko bihurtu ditu demokrazietako herritarrak, eta globalizazioak sortutako desberdintasunak indarkeriaranzko bidea dira, Eric Hobsbawm historialariak *Globalizazioa, Demokrazia eta Terrorismoa liburuan* adierazi duenez. Demokrazia kapitalista hedatu da munduan, baina sistema horrek gero eta gutxiago du demokraziatik, eta gero eta gehiago kapitalismotik. Duela hamar urte termino zaharkitua ematen zuen demokrazia kapitalista horrek, baina halaxe deitu beharko genioke sistemari, alienazioak ezarritako tabu semantikoak gainditzen jakingo bagenu. Rafael Pochekek era honetan azaldu du *La Vanguardia* egunkarian: «Frantziako Iraultzaren aurreko oligarkia bezalako oligarkia batek zuzentzen du gaur egun nazioen etorkizuna. Orduan boterea monopolizatzen zuten kleroa eta nobleza populazioaren %2 baino ez ziren. Gaur antzeko oligarkia baten eskuetan dago mundua. Azken diferentzia ez da demokraziaren eta demokrazia ezaren artean, oligarkia gobernu moten artean baizik (...) Baldintza normaletan, botoak ez du gauza handirik erabakitzen, ez baitu funtsezko ezer aldatzen».

Aurten Perpinyan izan naiz berriro, urteroko argazki erakusketa ikusten. 2001eko gaiak ez daude, baina haiek salatutako errealitateak bere horretan dirau: Schengen etorkinen kontrako gotorlekua da, Ramalako umeeek Israelen zapalkuntza sufritzen dute oraindik, Errusia Putinen menpe dago eta Pakistanek txikituta segitzen du. Aurtengo gaiak ez dute esperantza izpi askorik ekarri: Afrikako gerrak, Afganistango egoera, Kolonbiako drama, Txinako ospitale psikiatrikoak... Guatemalari buruzko erakusketako tituluak gerra zibilaren ondoko bakean indarkeria inoiz baino biziago dagoela agertzen du: gerra baino askoz bortitzagoa den bakea. Hausnarketak Guatemalarako ez ezik mundu osorako ere balio du, I-11ren hamargarren urteurrenean: zer gertatzen da munduan, bakea lortu arren, bake iraunkorrerako benetako oinarriak ez dagoenean? Zer gertatzen da herritarren eta herrien eskubideak errespetatzen ez direnean, justizia bermatzen ez denean eta belaunaldiz belaunaldi errotutako miseriak indarkeriarako atea irekitzen duenean? Baztertuen, haserretuen matxinadak izango dira datorren hamarkadako gizarte errebolteko protagonistak?

'La ETA'

La Pili, la Maria, la Dolores... Aspaldidanik ez nuen entzun espainolezko esamolde horien modukorik, derrigorrez zentzu peioratiboa izan ez arren esaten duenaren heziketa maila eskasa agerian uzten omen duena. Herenegun aditu nuen berriz, Candido Conde-Pumpido jaunaren ahotik. Sorturen legalizazioari buruz **halaxe** mintzatu zen Espainiako Estatuko fiskalburua urte judiziala hasteko saioan: «*Sortu no debe ser legal mientras que en el telón de fondo de su presencia política persista la terca y desafiante sombra de la ETA*» —«Sortu ez da legezkotu behar, baldin eta haren presentzia politikoaren atzean temati eta erronkari badirau ETAREN itzalak»—.

La ETA. Candido Conde-Pumpidori *España cañí* delakoaren espiritu narrasena azaleratu zitzaion, ohartu gabe, traje dotorearen azpitik. Hizkuntza batzuetan guztiz normaltzat jotzen da artikuluaren erabilera izen propioen aurretik. Katalanez, esaterako: *la Merce, el Joan, la Montse...* Edo alemanieraz: *der Kurt, die Brigitte, der Klaus...* Gizarte maila guztietako jendeak erabiltzen du artikulu hori; ez da arrunkeria. Espainolez, aldiz, bai. Baldarkeria seinalea da, analfabetismo primitiboenaren mugetan daudenen ezaugarri. Arrunkeriatzat jotzen da. Oraindik entzuten da heziketa handirik gabeko zenbait herritarren artean. Horiek ez dira derrigorrez nekazal giroko zaharrak; gazterik ere bada tartean, *txoni*-en eta *poligonero*-en hizkeran aditzen baita. Hortxe dugu *Yo soy la Juani*, Bigas Lunaren filma. *La Juani* pertsonaia Veronica Echegui dugu. *La Vero*.

Atzoko egunkarietan ez zegoen *la ETAREN* arrastorik Conde-Pumpidoren adierazpenetan. Agentziek edo erredaktoreek fiskal ilustratuaren hizkera zuzendu eta txukundu egin zuten. Prentsan, *ETA* agertzen zen, artikulu barik. Arrunkeriak, ordea, grabatuta segitzen du, ikusgai. Hara zertarako balio duen *EITB nahieran* zerbitzuak.

Ostegunean Sortu ez legezatzeko eskatu zuen Espainiako fiskalburuak, alderdi abertzalearen auzia laster aztertuko baitute Madrilen. Gaur pozik egongo da *el Candi*, Auzitegi Nazionalak gogor zigortu baititu *el Arnaldo, el Rafa, la Miren, el Arkaitz* eta *la Sonia*. *La Angelak* eta beste epaileek ETAREN itzal temati eta erronkaria ikusi dute *Bateragune auzian* epaitutakoen atzean.

Epaiketa eta haren prozedura zuzenak izan balira ere, auzitegiak bazuen epaia Euskal Herriko errealitate politiko berrira egokitzea, zuzenbideak halako interpretazioak egiteko aukera ematen baitu. Ez du egin, baina. Zigorra nahiago izan du, helburu politikoak lortzeko indarkeria arbuia duten independentistak kondenatu, bide guztiz baketsu eta demokratikoak proposatzen ari direnak isilarazi. Ez ditu libre nahi, gatibu baizik, gehiago makurrarazteko esperantza hutsalaz. «Soilik gizon-emakume libreek negoziatu ahal dute, gatibuak ezin dira negoziatioetan sartu», esan zuen Nelson Mandelak preso zegoenean. Kontua da Espainiak guztiari buruz negoziatzen edo hitz egiten uzten duela, eztabaidagaia haren batasun sakratua ez bada. *Manu militari* inposatu zuen batasunari *manu militari* eutsi nahi dio, konstituzioa baliatuz. Badirudi batzuek indarkeriaren eremua nahiago dutela, hor beti indarraren arrazoia izango dutelako. Haien tranpan erortzea huts handia izango litzateke egun.

«Nire herrian lehenik kartzelara joaten zara, eta gero presidente bihurtzen zara», azaldu zion Mandelak behin kazetari bati. Espainiako demokraziak independentismoa espetxeratu nahi du. Orroka hasi da, fiskalburuaren hizkeraren narraskeria bera erakutsiz. Atzodanik argiago geratu da zein den borroka. *El Candi, el Jose Luis, El Alfredo, el Mariano* eta besteak urduri daude. Bataila hasi baino ez da egin.

'This is America'

Troy Davis exekutatu dute Jacksoneko kartzelan (Georgia, AEBak), 1989an polizia bat hil izana leporatuta. Davisen auziak zalantza eta gorabehera ugari sortu ditu azken bi hamarkadetan: hiru aldiz atzeratu behar izan dute exekuzioa azken unean; akusazioaren zazpi lekukok hasierako adierazpenak aldatu dituzte; armarik ez dago, zio argirik ere ez... AEBetan eta kanpoan Davis ez hiltzeko eskatu dute. Alferrik.

Davisek azken unera arte errepikatu du ez zuela polizia hil. Azken hitzak exekuzio gelan esan zizkien kristalaz beste aldean injekzioa noiz sartuko zain zeuden hildako poliziaren senideei: «Nik ez nuen egin. Sentitu egiten dut haren heriotza, baina nik ez nuen hil zuen aita, anaia edo semea». Bera hil eta gero bere errugabetasuna frogatzeko lanean segitzeko esana zien, lehenago, senide eta lagunei. Kasua ez zegoen argi. Zentzuzko zalantza zegoen, baina ez dute kontuan hartu. Davis errugabea zela frogatuz gero, zer pentsatuko du hiltzera kondenatu duen epaileak? Zer sentituko du asteazkenean, heriotzaren erakusleihoari so, mendekuaz gozatzen ari zen poliziaren semeak?

Heriotza zigorraren kontra daudenek diotenez, garrantzitsuena ez da Davis errugabea zen edo ez, baina kasu hau larrigarria izango da etorkizunean heriotza zigorrari buruzko eztabaidan. Horren aldekoek beti izango dituzte argudioak defendatzeko, Davis errugabea izanik ere. Zubi bat txarto eraiki eta erori arren, zubiak egiten segitu behar dugula esango dute zinikoki. Baina zubi bat ez da gizaki bat. Zubi batek ez du sentitzen; ez da pozten, ez da tristatzen. Zubi batek ez du bizitza hauskor mugatua —eta horregatik preziatua—; zubi bat harrizko heriotza mugagabearen metafora da. Zubi batek ez du ez eskubiderik ez aukerarik bere patua erabakitzeko. Zubi batek ez du esperantzarik; ezin du desiratu bere errepidean auto gehiago ibiltzea. Zubi batek ez du bihotzik; ez du negarrik egiten ume jaioberri baten lehen arnasagatik. Zubi bat kopiatu daiteke, errepikatu; gizaki bat, bere osotasun fisiko eta psikikoan, errepikaezina da. Hortxe datza gure berezitasuna.

Asteazkenean, Davis hil zuten Jacksonen. 437 kilometro beherago, Jacksonvillen (Florida), Eric Gein izengoitiaren atzean ezkututzen den gizonak negozioak egiten segitzen du egun:

AEBetako *serial killer* handienen objektu eta oroigarriak saltzen ditu. Badaki krimenzaleak daudela gizartean gaizkiak eragiten duen morboagatik, eta horretaz aprobetxatzen da. *Der Spiegel* astekariaren arabera, Geinek 20 urte eman ditu harremanetan hiltzaile horiekin: egunkarien harpidetzak edo aldizkariak bidaltzen dizkie, behar dituzten gauzak... Horren truke presoen objektuak jasotzen ditu —gehienetan gutunak—, eta saldu egiten ditu Interneten bidez. Anthony Sowell, hamaika emakume hil zituenak, eskuz idatzitako gutun batek 150 dolar balio du; hark bidalitako Eguberrietako postalak, 225 dolar; Charles **Manson** *serial killer* ezagunaren gauzak ere daude salgai: bere oraingo argazki batek, sinadura eta guzti, 250 dolarreko prezioa du.

Geinek edonon ikusten du negozioa. Duela gutxi lagun bat bidali zuen Sowell hamaika emakumeen gorpuak lurperatu zituen lorategira, bertako lurra hartzeko. Lur hori Gabonetako opari edo agur moduan saltzen ari da orain. Gramoak 25 dolar balio du, eta negozioa primeran doa. Sowell hildako bi emakumeren senide batek —haren ahizpa eta lehengusina izan ziren biktimak— protesta egin du, baina Geinek harro defendatu du bere burua: «Nire negozioa legezkoa da, eta nik dirua irabazten dut horrekin. Ezer txarrik egiten ari naiz ala? Hau Amerika da».

Donut egunak

Lanak makaldu, histu, tristatzen omen gaitu. Lanak gure energia positiboa xurgatzen du, eta hori nabari da egunaren joanean, *Science* aldizkariak argitaratutako artikulu batean ageri denez. Horren arabera, Cornelleko Unibertsitateak (New York, AEBak) «nazioen pultsua» edo aldartea neurtu nahi izan du, herritarrek Twitterren sartutako mezuak aztertuz. Ikertzaileek 140 karaktereko testuak irakurri dituzte, eta ondorio hauek atera: eguneko ordu edo une jakin batzuek gure emozioak baldintzatzen dituzte. Jendea «nahiko zorionsu» esnatzen da goizetan, eta gaueko azken orduetan ere gogotsu egoten da. Sentsazio ona nabarmenagoa da asteburuan. Horren guztiaren arrazoiak argi daude: astegunetan txartoago egiten dugu lo, eta goizago jaikitzen gara. Gainera, lanak estresatu egiten gaitu, eta horrek biziki eragiten digu eguneroko bizimoduan.

Nolako mezuak hedatzen ditu David de Gea Twitterren? Lan nekagarriak biziki atsekabetzen du Manchester United futbol taldeko atezaina, eta haren portaerari eragiten dio? Izan ere, *The Sun* egunkariak zabaldu duenez, kirolari espainiarra donut bat lapurtzen atzeman dute Tesco etxearen supermerkatu batean, Altrincham-en (Manchester Handia). Segurtasun kamerek De Gea grabatu dute *lanean* ari zela, eta zaindarien gela batera eraman dute galdekatzeko. Gero, libre utzi dute besterik gabe.

De Gearen lapurreta txikia —bihurrikeria iritziko diote batzuek— kritikagarria da, baina ez soilik kirolariek gizartean duten itzal handiagatik. Kirolariak humanoak dira, eta huts egiten dute, beste edonork bezala. Kontua ez da kirolari batek donut bat lapurtu duela, baizik eta astean 80.000 euro inguru irabazten dituen pertsona batek —berdin dio kirolaria edo zinema edo musika izarra— 1,35 euroko jaki gozoa hartu duela ordaindu gabe, legea hautsiz. Zertarako? Zer erakutsi nahi zuen jokaera horrekin? Ustezko gaizkilea ez dute zigortu. Zergatik?

Hogei urteko gaztearen jokaera baino askoz kezkarriagoa da supermerkatu katearena. Ez diote isunik jarri, ez dute Polizia deitu. Manchester ez da Kent eskualdea, Ingalaterrako leku pobreenetako bat baizik. Jende txiro asko daude bertako zenbait auzotan. **Seguruena**, ustezko lapurra beste era bateko pertsona izan balitz —pertsona, ez pertsonaia— bestela jokatuko

zuten supermerkatuko arduradunek. De Gearen jokaera barkagarria izan daiteke; Tescorena, ordea, ez. Zer egingo zuten bertako zaindariak donut zalea Bradford edo Harpurhey eskualdeetako gaztetxo bat izan balitz? —datu ofizialen arabera, auzo horietako zenbait lekutan umeen %99 oso pobreak dira eta bazterkerian bizi dira—. Nire iritziz, lehen kasuan ondorioz gabeko bihurrikieriaz jotzen dena falta edo delitu bihurtuko litzateke bigarrenean. Lapurretan ibiltzeagatik gaizkilearen familiari, zigor moduan, laguntza soziala kentzen dion sistemak ez du ezer egin goi mailako pribilegiatu ekonomiko batek legea hautsi duenean. De Geari ez diote zigor txikiena jarri edo komunitate edo auzo lanak egiteko agindu, hobeto sozializatzeko. Ez du behar, antza. Nahiko lan izango du gaur bere atea defendatzen Norwich City taldearen aurka.

Justizia? Zer da hori? Hau ikusita, inor ez dadila harritu Manchesterko gazteak gaur edo bihar Tesco supermerkatuetara joan eta protesta moduan donutak lapurtzen hasten badira, De Gea ustezko lapur txotxoloari eskaini zaion begirunea eskatzeko. Eta, tratamendu hori jaso ezean, bertako kaleak berriz sutan jartzen badituzte. Ez nuke halakorik justifikatuko. Baina ulertu egingo nuke.

Jobs

Steve Jobsen heriotzak tristezia zabaldu du mundu osoan, batez ere komunikazio teknologiarik berrienak eskura ditugun herritarron artean. Gure mundu digitala beste era batera amestu eta eraiki zuena joan da. Umezurtz utzi omen gaitu. Aitor dezadan: ni ere tristatu naiz Jobsen heriotzaren berri jakinda. Miretsi egiten nituen haren lanak eta haren filosofiaren alde batzuk. Jobsen heriotza sentitu dut, baina hau ere argitu beharra daukat: gehiago hunkitu ninduen Vicente Ferrerren heriotzak, duela bi urte.

Geure ideia eta subjektibitateen menpe bizi gara, eta horrek gure sentimenduak bideratzen ditu. John Lennonen heriotza, esaterako, Jobsena baino gehiago sentitu nuen —eta beste batzuen ere bai, baina hobe ez esatea, ondorio penalik izan lezake eta—. Facebookeko hormetan *Steve Jobs 1955-2011 BB* idatzi duten askok ez dute jakingo Ferrer nor zen. Ferrerren heriotzagatik Indian negar egin zuten askok ez zekiten, ez dakite, Jobs nor zen. Ez zuten Facebook, horman dolumina agertzeko: *Vicente Ferrer 1920-2009 BB*. Beste mundu batekoak dira.

Ferrer ez zen talde iraultzaile bateko militante armatua. Misiolaria zen, eta, iPada izan ez arren, gu baino irribarretsuagoak diren gizon eta emakumeen alde egiten zuen lan. Gizon ona zen. New Yorken, Jobsen heriotzak eragin du negarra; Anantapurren, Ferrerrenak eragin zuen. Bizitza ulertzeko modu diferenteak ditugu geure munduan eta beste paraje horietan, bai. Guk komunikatzeko beharra daukagu —askotan komunikazio hori azalekoa bada ere—. Haiek, beste haiek, tripazorria hil beharra daukate. Nork, zerk jarri dituen egoera horretan ondotxo iradoki du Frei Betto teologoak: «Akatsak egin arren, miseriaren globalizazioa ez du Txinako sozialismoak ekarri».

Jobs hil egin da, eta emozioak arrazoa lausotu du. Izan da, hasiera batean, Appleko burua Leonardo da Vincirekin konparatu duenik. Gero, hotzago mintzatu dira hedabideak: «Appleren sortzaileak ez du ezer garrantzitsurik asmatu, baina gailu erakargarri eta erabilerrazak sortu ditu», idatzi du horietako batek. Jobs Leonardo da Vinci? Bere inperioa Sokratesekin hitz egiteko aukera izatearen truke aldatzeko prest zegoena gorritu egingo litzateke, hori aditzeko

bizirik balego. Izan ere, Jobsek ondo zekien Da Vinci nor zen. Jobs argia, azkarra, ameslaria, apurtzailea zen. Komunikatzaile bikaina eta *businessman* ezin hobea, giza harremanak negozio bihurtzen asmatu zuelako, hain zuzen.

Dan Gillmorrek, herritar kazetaritzaren aitak, bete-betean asmatu du Steve Jobsen lana neurtzean. Haren ustez, Jobsen ekarpen onena, «seguruenik», Stanfordeko Unibertsitateko ikasleei esaniko hitzak ditugu: «Zuen denbora mugatua da, ez galdu beste baten bizitza biziz. Ez zaitzatela dogmak harrapa, ez bizi besteen pentsamenduetara makurtuta». Horazioren *carpe diem* hura, alegia. Ni gehiago astindu ninduten hitzaldi hartako beste hitz hauek: «Inork ez du hil nahi. Zerura joan nahi duenak ere ez du hil nahi hara heltzeko. Heriotza denok partekatzen dugun patua da. Inork ez dio ihes egin. Eta halaxe izan behar du, heriotza baita, seguruena, bizitzaren asmakaririk onena. Heriotzak bizitzaren aldaketa eragiten du. Zaharra kentzen du, berria ekartzeko».

Stanfordeko diskurtsoa. Horixe Steve Jobsek utzitako ondarerik preziatuena. Doan da, edozein iPod, iPhone eta iPad baino askoz hobea. Heriotza bizitzaren asmakaririk onena. Latza, gero! Aiseago barneratuko dugu Appleren azken gailuaren funtzionamendua Jobsen esaldi estoiko hori baino. Zerura joan nahi dutenek ez badute hil nahi, nolatan onartuko dugu patu latza zerurik ez dugunok? Gizakiak gara. Gizatiarrak. Manhattaneko duplex dotoreetan eta Anantapurko txabola zikinetan. Malko digitaletan edo azafraizko negarretan.

Ongi etorri, Mr Blair!

Jonathan Powell, 90eko urteetan IRAren zenbait agiri idatzi zituen gizona, Donostiako Nazioarteko Konferentzian izango da etzi. Agiri horiek idatzi zituenean, ez zen IRAko kidea: Powell britainiarra da, eta irlandar independentista armatuen arerioen ordezkari politikoa zen orduan. Tony Blairrek, Erresuma Batuko lehen ministroak, Irlanda iparraldeko bake prozesua aurrera eramateko aukeratu zuen. Powellek azaldu duenez, Martin McGuinnessekin eta Gerry Adamsekin lehen aldiz elkartu zenean ez zien eskua luzatu. Militar familia bateko kidea izanik, IRAk haren aita eta anaia mehatxatuak zituen. Nolatan agurtu IRAren beso politikoko buruzagiak? Eskua eman ez, baina haiekin hitz egin bai. Elkarrizketek segida izan zuten. Gorabehera handiekin, baina amore eman gabe. Powellek berak aitortu duenez, zenbaitetan IRAren agirien zirriborroak idatzi zituen, erakunde armatuari helarazi, militanteek edukia eztabaidatu eta guztien artean azken bertsioa adosteko. Prozesua ez zen **eten eta**, azkenean, Ostiral Santuko Akordioa lortu zuten.

Powell Donostiara etortzeak berebiziko garrantzia izan du. Azken batean, hura ez da gaizto ofizialen ordezkaria izan, hemengo gaizto ofizialei aholkuak ematera etorri dena. Powell ez da hirugarren munduko gerrilla talde bateko komandantea, hemengo buru argi lehen mundukoek zorotzat jo eta baztertuko luketena, kontrakoa baino: Powell on ofizialen ordezkaria izan da urteetan. Gainera, era gordinean sufritu ditu Irlandako gatazkaren ondorioak. Senideak mehatxatuta eduki arren, britainiarren ordezkari politikoa izan zen, eta, beste batzuekin batera, alde bien arteko akordioa ahalbidetu zuen. Zer esango dute haren aurka? Ez da erraza halako ibilbidea duena deskalifikatzea. Are gutxiago Blairren laguntzailea izandakoa bada, eta Blair bera, agian, Donostiara etorriko dela zabaldu bada. Afrikako gerrillari bati muturrekoa eman diezaiokezu ateaz; Erresuma Batuko lehen ministro ohiari edo haren ordezkariari, ez.

Hori guztia airean egongo zen herenegun sozialistek konferentziari buruz eginiko bileran. Donostiako ekimenak joko zkanpo utzi ditu hasieran, baina erreakzionatzen jakin dute, diskurtso bikoitza egituratu behar izan duten arren: batetik, ekitaldia ezker abertzalearen propaganda politikoa ote den susmoak azaldu dituzte; bestetik, bakearen aldeko edozein ekimen ongi etorria dela esan dute. Aldaketa positiboa, ñabardurak ñabardura. Orain,

behintzat, ez dira galdetzen ari nork fitxatu edo ordaindu dituen prozesuaren aldeko nazioarteko sustatzaileak. Orain, zuzenean izango dute Powellen esperientziaren berri. ETArri bai, baina ETA ez denari ere mugitzeko eskatu behar zaiola entzungo dute. Bakea ez dela laguneren artean lortzen, etsaiekin hitz eginez baizik. Ausart jokatzuz gero, Moncloak datozen hilabeteetan kaleratu beharko lituzkeen adierazpen ofizialen zirriborroak egiteko eskatu ahal izango diote Powell, gero PPkoei pasatzeko mahaiaren azpian. Ez digute ezer esan behar, hamar urte barru jakingo dugu. Blairrek ere IRAREN agiri bat osatzen jardun omen zuen, eta orain ezagutu da. Eskuak libre dituzte.

Blairren itzala kritikatu dute batzuek. Ni ere ez naiz oso Blair zalea, baina onartu egin behar zaio Irlandako prozesua aurrera eramateko izan zuen kuraia politikoa. Blair hori nahiago dut Bagdad bonbardatu zuena baino. Hobe Blair hemen egotea eta haren ahaleginak bakea bultzatzera bideratzea Azore Uharteetan berriro ikustea baino, oraingoan Irani edo Siriari bonbak noiz eta nola bota aholkatzen. Etorri zein ez, Blairren itzala Donostian izango da. Ongi etorri, Mr Blair! Politika egitea, batzuetan, eskuak zikintzea da. Politika ez egitea ere bai.

Mereziko du

1972ko uztailaren 21ean IRAk 22 bonba leherrarazi zituen Belfasten. 11 pertsona hil zituen, baina haietako bi baino ez ziren soldadu britainiarrak. Besteak, bederatzi, zibilak ziren. *Bloody Friday* delakoan bederatzi herritar eta bi soldadu hil ziren, eta 130 lagun zauritu. 2002an, IRAk agiri bat hedatu zuen barkamena eskatzeko: «Uztailaren 21a IRAren operazio baten 30. urteurrena da. Orduan bederatzi lagun hil ziren eta askoz gehiago zauritu. Ez genuen borrokalariak ez zirenak hil edo zauritzeko asmorik, baina horixe izan zen gure ekintzen ondorioa, kasu honetan eta beste batzuetan. Gertakari tragikoaren urteurrenean, egoki iruditzen zaigu ez-borrokalarien artean eragindako heriotza eta zauri guztiak gogoratzea. Geure benetako doluminak ematen dizkiegu senideei eta barkamena eskatzen diegu. Biktimak alde guztietako borrokalarien artean izan dira. Haien senideen sufrimendua eta samina aitortzen ditugu». Horixe esan zuten garai batean armak eskuan borrokatutako irlandarrek. Euskal Herrian badugu zer ikasia.

ETAk Donostiako konferentziaren lurreratze pista behar izan du mende erdiko ibilbidea bukatzeko. Espainiako politikari askok eta gizarteko zati handi batek ere lurreratze pista beharko dute haren batasun sakratuaren inguruan bost mendean eraikitako pentsamendu nazionalista baztertzailerik gairatzeko. Ikusi besterik ez dago Donostiara etorritakoei egin dieten mespretxua. Espainiako ordezkari politikoak munduan barrena ibiltzen dira haien trantsizio «eredugarria» saltzen, lezioak ematen. Hala ere, ez dute aholkurik onartzen Espainiak baino tradizio demokratiko askoz handiagoa duten estatuetakoko politikariak gurera datozenean. Erresuma Batua munduko demokrazia parlamentario zaharrenetakoa dugu; Frantzia, iraultza burgesaren sorteterritik; Norvegia, munduko ongizate gizarte garatuena, han-hemenka bakegintzan ari dena. Horrek berdina dio Espainiari. Zenbat urte ditu demokrazia ez perfektuak Espainiaren historian? Mende erdi? Askoz gehiagorik ez. Espainiak lezioak ematen ditu; hartu, ez. Harrokeria. Maila eskasa.

Espainiako lehen errepublikan (1873-1874) eredu federala proposatu zuten. Estanislao Figueras presidentearen ministro kontseiluan hainbat katalan zeuden, eta bileretan katalanez egiten zen sarri. Azkenean, federalismoa baztertu eta Espainia zaharkituaren espirtua nagusitu

zen. Figuerasek amore eman behar izan zuen. Halaxe esan zien ministroei azken bileran: «*Senyors, els hi penso ser sincer: n'estic fins als collons de tots nosaltres*». —«*Jaunak, egia esango dizuet: potroetaraino nago gutaz guztiotaz*»—. Espainia ez zegoen federalismorako prestatuta. Are gutxiago Pi i Margallek, Suitza oinarri, proposatzen zuen konfederalismoa onesteko. Egoera bestelakoa izango zen orain, Espainiak bide hori hartu izan balu. 137 urte pasatu diren arren, pentsamolde hori ez da asko aldatu.

Jonathan Powellek, Blairrek Donostiara bidalitako ordezkariak, politika egiteko modu pragmatikoa azaldu zuen behin: «Herri batean denbora luzean agindu nahi baduzu, kontsentsua bilatu beharko duzu (...) Botere autonomikoa emanaz gero, autodeterminazioaren eta banatzeko nahiaren presioa moteltzen duzu. Asmo horiek disolbatzeko modu onena jendea kontsentsuaren inguruan biltzea da, ez autodeterminazioaren inguruan. Azkenean, akordio batera iritsi zen Ipar Irlandan, eta akordio hori herritarren kontsentsuaz baizik ezin da aldatu».

Espainiak asko ikasiko luke hitz horietatik. Izan ere, Euskal Herriak ez du Espainia seduzitu behar, alderantziz baizik. Euskal Herriak ez du Espainia bereganatu nahi; Espainiak nahi du Euskal Herria atxiki. Hasi dadila lanean euskal gizarteari onena Espainian segitzea dela pentsarazteko. Garai berri hauetan independentistek ere gogotik egin beharko dute lan herritarrak euren diskurtsoaz konbentzitzeko. Ideien bataila izango da: nork bere proiektua landu beharko du, gizarteari bizikidetza eredu erakargarriak eskaintzeko. XXI. mendean ideiak borroka politiko baketsuen bidez defendatu behar direla ulertu da Euskal Herrian. Inposizio zaharretan oinarritutako diskurtsoek XXI. mendean ez dutela lekurik onartu beharko dute Euskal Herritik kanpo. Aberria, herria, gizartea egunero egiten direlako.

Aurtengo maiatzean Ingalaterrako erregina Irlandara joan zen. Bertan, britainiarrek Irlandan eragindako minari buruz mintzatu zen: «Inoiz ezin izango ditugu ahaztu hemen zauritu eta hildakoak eta haien senideak. Geure iragan gatazkatsuen ondorioz sufritu duten guztiei benetako begirunea eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu». Horixe esan zuen garai batean batasunari indarrez eutsi nahi zion erresumako ordezkari gorenekoak. Espainian badute zer ikasia.

2011ko urriaren 20an Euskal Herrian jaio ziren umeak beste gizarte mota batean hazi eta heziko dira. Gu, mende erdian iragan goibela besterik bizi izan ez dugunok, lagun izango gaituzte. Etorkizuna gu guztiona da baina, batez ere, haiena, belaunaldi berriena. Duintasunean eta errespetuan oinarritutako bizikidetza ez da aise eraikiko. Bidea luzea izango da. Nekagarria batzuetan, bizigarria beti. Mereziko du.

Carrero Gernikan

Luis Carrero Blanco zenak monumentua du Santoña jaioterrian. ETAk 1973an hil zuen Francoren gobernuko presidentea, eta hango udalak haren aldeko monumentua eraiki zuen gero. Kantabriako herrian inor ez da ausartu oraindik monumentua kentzera, ezta sozialistak ere. Santoña berezi samarra da. Bertako udalean falange frankistak Espainian duen zinegotzi bakarra dago: Leoncio Calle Pila. Calle jaunak odola isurarazteko mehatxua egin zuen 2007an —orduan ere zinegotzia zen—, inor bazihoan Carreroren omenezko monumentua botatzera. «Beharrezkoa bada, tiroak izango dira», esan zuen. Espainiako justiziak ez zuen haren kontrako auzibidera jo, noski. Callek zinegotzia izaten segitzen du, eta prest dago diktadorearen oinordekoa izan behar zuenaren aldeko monumentua tiroka defendatzeko.

Pertsona bat ezagutzen dut, behin, Carreroren monumentu horren aurrean, «*voló, voló, Carrero voló*» kantatzen hasi zena, ia ohartu gabe. Eskerrak inguruan falangistarik ez zegoen, bestela errepasso ederra emango ziguten hari eta harekin geundenoi. Une txoro batean hitz horiek kantatu zituena ez da ezker abertzaleko kidea. ETA kritikatu izan du, baina barneratu du Carreroren aurkako atentatuak herritar ugariaren artean eragindako sentimendu ez bereziki goibela. Horretaz poztu ziren asko amnesiak jota daude orain. Carrero *terrorismoaren* biktima gisa aurkeztu digute egunotan. ETAk bere jarduera armatua betiko uzteko erabakiaren berri eman eta biharamunean, erakunde armatuak hildako 829 lagunaren izen-abizenak argitaratu zituzten Espainiako egunkariak. Hedabide ustez aurrerakoienetan biktima agertu zen Carrero, baita Meliton Manzanask ere, Francoren polizia politikoko torturatzailea.

Biktimen gaia tentu handiz ibiltzekoa da. Alde bateko zein besteko indarkeria sufritu dutenen mina hor dago. Erraza da aholkuak ematea halakorik zuzenean sentitu ez denean. Alde humanotik, sufrimenduari dagokionez, biktima guztiak berdinak dira. Baina berdinak ote dira bakoitzaren erantzukizun politikoaren aldetik? Arlo horretatik begiratuta, berdin-berdinak dira Meliton Manzanask eta Carrero Blanco eta Diego Armando Estacio eta Carlos Alonso Palate? Gauza bera ote dira diktadura frankistako errepresioaren sinboloak eta Barajasko atentatuan hildakoak?

ETAren borroka deslegitimatuta nahi duten askok arazoak dituzte batzuetan. Idoia Mendiak joan den astean esan zuen ETAk 30 urte galdu dituela armak uzteko. Baten batek uler lezake 1981 baino lehenagoko atentatuak justifikatuta daudela. Bizkaiko Diputazioko presidente Augusto Unzetaren kontrakoa 1977an izan zen. Ontzat jotzen du? Txarli Prieto sozialistaren ustez, aldiz, ETAk duela 34 urte gelditu behar zuen. Gipuzkoako Diputazioko presidente Juan Maria Araluze 1976an hil zuten. Beraz? Urkulluk adierazi duenez, ETAk ez zuen inoiz sortu behar, ez baitago «heriotza bat bera ere» merezi duen aberri, erlijio edo ideiarik. Inoiz Mandelaren aurrean izanez gero, halakorik esango lioke EBBko buruak Hego Afrikako diktadura arrazistaren kontra armak eskuetan borrokatu zenari? Pedagogia egiteari lotuz gero, hobe luke batzokietan bertan hastea. «*Que corra la sangre hispana mientras dure la invasión ...*» edo «*eta tiro, eta tiro, eta tiro beltzari; eta tiro, eta tiro belarrimotzari ...*» dioten kantak EAJko zaharrei entzun dizkiet, ez ezker abertzaleko gazteei.

Garai berriak datoz. Denok egin beharko ditugu autokritika eta hausnarketa sakonak. Denok. Baina kontuz, *mea culpa* esateko modu asko daude. Carrerok badu bere monumentua Santoñan. Ez diezagutela eska orain beste bat eraikitzeko Gernikan eta, «beharrezkoa bada», tiroka defendatzeko.

Hemengo turkiarrak

Euskal diasporaren ordezkariak elkartu dira aste honetan Donostian. Agintariek, haien lana goraiatu, eta gure herriaren ahotsa mundu zabalean hedatzen segitzeko eskatu diete. Komenigarria da nondik gatozen jakitea; eskubide hori dugu, eta beharra ere bai. Dena den, aurrera egin behar da, bizitzak jarri gaituen lekuan eta denboran. Euskal diaspora hor dago, baina lagun horiek joan egin ziren, eta gehienak ez dira itzuliko. Euskal Herriaren etorkizuna ez da Boisen jokatu, Bilbon, Iruñean edo Baionan baizik. Uste dut garrantzi handiegia ematen diogula kanpoan dagoen diasporari, eta txiekia geurean dugun diasporari. Partida etxean jokatzen ari da, baina badirudi ez garela konturatu. Eta partida etxean jokatzen denean batzuetan zailagoa da irabaztea, erlaxatuago ateratzen garelako zelaira, aurrean dugun taldeari kasu handirik egin gabe edo, are okerrago, hura ondo identifikatu gabe.

Der Spiegel aldizkariak Alemanian bizi diren etorkin turkiarrei buruzko erreportajea kaleratu berri du. Honelaxe dio artikuluko sarreran: «Duela 50 urte etorri ziren lehen etorkin turkiarrak. Beste etorkin batzuek bezala, haiek ere seme-alabak eta bilobak izan dituzte, baina belaunaldi gazteetako kide askok arazoak dituzte Alemanian. Hezkuntza, identitatea eta perspektiba falta zaizkie».

Guri ere perspektiba falta zaigu. Noiz hasi ziren euskaldunak Ameriketara joaten? Orain mende bat baino gehiago. Noiz hasi ziren etorkin gehienak Euskal Herrira heltzen? Duela 50 urte. Hala ere, soilik azken urteotan gurera azaldu diren etorkinei buruz mintzo gara sarri. Euskal ikuspegi nazional batetik begiratuta, hemen dauden etorkin bakarrak ez dira Boliviatik edo Marokotik etorriak. Hala irizten dionak pentsamolde espainiarra du buruan. Boliviarrak baino lehen beste etorkin batzuk etorri ziren. Horiek etxeetan pilatuta bizi ziren Otxarkoagan —euskaldunak Idahoko etxaldeetan bezala—, baina haien bilobek, horretaz ahaztuta-edo, barre egiten diete orain baldintza beretan bizi diren azken etorkinei.

Kontua ez da nor noiz etorri zen, nork duen eskubidea eta nork ez. Eskubideak —eta beteharrak— denok ditugu. Kontua da zer gertatu den duela mende erdi Euskal Herrira iritsitako etorkinen ondorengo ez gutxik oraindik euren burua euskal nazioaren barruan ez

kokatzeko, gure proiektua ez sentitzeko. Hemen —onartu edo ez; ohartu edo ez— denok gara proiektu baten parte aktiboa edo pasiboa: abertzaleok Euskal Herria dugu xede; espainiar *kosmopolitek* —barkatu etena, barreari eutsi ezinik nabil eta—, Espainia. Argi esanda: mesede handiagoa egiten dio euskal proiektu nazionalari Mikel izeneko umea D ereduko eskola publikora bidaltzen duen herritar boliviarrak euskaltzaleak Miguel izeneko umea hiru eleko eskola pribatu *modelnora* bidaltzen duen euskal herritar erdaltzaleak baino. Eztabaida soilik azken immigrazioaren eremura mugatu nahi dutenak oker daude —edo zuzen, ikuspegi espainolista batetik—. Auzia sakonagoa da euskaldunontzat. Izan ere, hemengo turkiarrak geure eremura etorritak ez baditugu, zer egin behar dugu hori behingoz lortu eta, gainera, azken urteotako beste etorkinak ere erakartzeko?

Inor ez dadila asalda hemengo turkiarren metafora aipatu badut. Ni ere turkiarra naiz jatorriz. Hala ere, Andaluziako Gobernutik inoiz gonbidapenik iristen bazait, hango etorkinen ondorengoei zuzendutako kongresu batean parte hartzeko, ezezko adeitsu baina biribilaz erantzungo diet. Eta esango diet gustatu egiten zaidala Andaluzia —udako beroaldietan izan ezik—, baina ez daitezela kezkatu diasporaz, bikote andaluziar baten semearen ustezko herriminaz. Kezkatu daitezela han dauden andaluziarren bizi-baldintzak hobetzeaz. Hori egin dezatela. Ni hemengoa naiz, eta berdin egingo dut hemengo herritar guztien alde, turkiarrak izan edo ez.

'Delicious'

Nik ama hiltzea nahiago dut amona hiltzea baino», esan du mutil gazteak autobus geralekuan. Lagunek harrিতuta begiratu diote. «Ez esan halakorik!», aurpegiratu dio neskak. Mutila gorritu egin da, baina bere burua defendatu du; badaki «zergatik» pentsatzen duen hori. Hamabost urte inguru izango dituzte. Gaia aldatzeko edo, eskolako etxeko lanei buruz galdetu du besteak.

Bihar zortzi Espainiako Diputatuen Kongresurako bozak izango dira. Kanpainako gai nagusia krisi ekonomikoa bada ere, hezkuntza ere izan da hizpide. Gurean ez asko, baina horrek ez du esan nahi kezkarik ez dagoenik. Herenegun, gaiari heldu zion Josu Erkorekak. Eusko Jaurlaritzatik egindako murrizketak salatu zituen jeltzaleak, eta kalitatezko hezkuntzaren alde egin zuen.

Umeentzat hezkuntza sistema onena eskatzeko eskubidea dute gurasoek, baina nork bermatu behar du eskubide hori? Hezkuntza sistema aukeratzeko askatasuna aldarrikatzen dugu, sarri hori egiteko benetako aukerarik ez dagoela ahaztuta. Mundu guztiak ez du askatasunaz gozatzeko dirua, eskubide hori ordaindu egin behar delako. Gurasoek haurrentzat heziketa bikaina nahi izatea ulergarria da, baina noraino da onargarria ekimen pribatuak nahi hori asetzeko negozioa egitea?

Estatuak kontrolatutako hezkuntza sistema proposatzen ari naizela esango dute batzuek. *Kontrolatu* aditzak ez du izen onik egun; beraz, botere publikoek kudeatu eta zuzendutako hezkuntza sistemaren alde nagoela esango dut. Bai, zeren, bestela, nork bermatuko du eskubide hori? Ekimen pribatuak? Inork negozioak egin nahi baditu, kabiarrak inportatu eta saltzeko enpresa bat sor dezala, kabiarrak barik bizi daiteke eta. Hezkuntza negozio bihurtzea herritarren funtsezko eskubideak urratzea da. Kalitatezko hezkuntza sistema publikoa ezinbestekoa da aukera berdintasunean oinarritutako gizartea eraikitzeko. Hori gertatzeko bide bakarra ez da hezkuntza estatuaren monopolioa izatea. Bada beste biderik. Esaterako: zuk seme-alabak eskola elitista eta ustez onenetara bidali nahi badituzu, bidali itzazu, ondo dago. Gero estatuak zuk ordaindutako diru gehiena hartuko du eskola pribatu horretatik zergen bidez. Behia ondo jetziko du, errapeetatik ateratako esneaz hezkuntza

sistema publikoa elikatzeko. Eskola pribatu horiek ozta-ozta bizirik segitzeko moduan geratuko dira, orain ikastetxe publiko asko dauden moduan, hain zuzen. Eskola publikoak baliabide gehiago izango ditu, eta herritar guztien eskura izango da. Hezkuntzaren arloan dirua irabazterik ez dagoela ohartuta, beste eremu batera joko dute buruan negozioa dutenek.

Hezkuntzan eskubide-berdintasuna garatzea ez da igualitarismo irentzailea ezartzea. Berdintasunak hauxe esan nahi du: bizitzaren bidean hasi berri diren gizakiei euren potentzial guztiak garatzeko aukera berdina eskaintzea. Jaiotzatik bertatik desberdintasunak izaten dira, jatorri sozial, ekonomiko eta kulturelek haurrak bereizten dituztelako, eta haien garapena baldintzatu. Hezkuntzak arazo hori konpondu beharko luke ahal duen neurrian, ez gehiago sakondu. Manfred Max-Neef ikertzaile txiletarrak definitu duen garapena lortuko litzateke orduan: «Gizarteko kide guztien sortze-ahalbideak askatzea».

Mutilak ez du gaia aldatu nahi. «Dibortzioa duela hiru urte lortu zuen aitak, urtebetetze egunean. Hori poza! Esan zuen hori zela inoiz jasotako oparirik onena». Autobusa iritsi da, eta barrura sartu da bi lagunekin batera. Kamiseta gorria du jantzia. Bertan estetika zaharreko emakume ilehoria ageri da, irribarretsu. Haren azpian Coca Colak 1904. urtean hedatutako leloa dago idatzita. Urte hartan, martxoaren 3an, igandeetan lan ez egitera behartzen duen legea onartu zuen Espainiako Diputatuen Kongresuak. *Delicious and refreshing.*

Metropoliko kosmopolitak

Bihar bozak izango dituzte Espainiak administratutako lurraldeetan. Garaileak betikoak izango dira: subiranista espainiarrak. Oraingo honetan, baina, alderdi subiranista urdinak irabaziko du, itxura guztiaren arabera. Ez dio ardura. Hegoaldeko metropoliko gobernuetan subiranista espainiarrak egongo dira beti.

Horren kontra ez dago asko egiterik, subiranismoa eta independentismo arduratsua aldarrikatzea ez bada. Subiranista naiz, uste dudalako XXI. mendean inor ez dugula behartu behar inorekin bizitzera, lehenago harekin bizi nahi ote duen galdetu gabe. Uste dudalako garai hauetan dibortzio politikoak modu zibilizatuan gauza daitezkeela. Independentista arduratsua naiz, badakidalako erabateko independentzia oso zaila dela egun. Badakit nahi adina arrazoi historiko, kultural, sozial eta ekonomiko argudia daitezkeela independentziaren alde, baita kontra ere. Egia esan, horrek guztiak ez dit ardura. Ez dut antzinako erresuma bat amets, ezta Albaniako konkista ere.

Independentismo arduratsua aldarrikatzen dut arrazoi ximple batengatik: uste dudalako nire kolektibitateak —edo kasualitate demografiko hutsaren ondorioz munduan kokatzen nauen herriak— beste herriek adina eskubide eta ahalbide izan behar dituela hemen bizi garen guztion arteko bizikidetzaren oinarriak finkatzeko. Uste dudalako euskaldunok espainiarrek eta frantsesek beste eskubiderik dugula horretan asmatu edo huts egiteko. Zuzentasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzen saiatzeko, herritar guztiak eskubidez eta betebeharez berdintasunean biziko direna. Guztiak. Goizeko hiruretan edozein musika ozenek molestatzen nau lo nagoenean, berdin dio musika hori bachata edo trikitia izan. Uste dut hemengoak izateak ez digula ematen hemengoa ez denari baino eskubide gehiago zarata egiteko. Denok gara berdinak, hemengoa ez den hori, hemen dagoenetik, hemengoa ere badelako.

Ez dut sinesten metropoliko herritar *progre* askoren ez-nazionalismoan. Bai, haietako batzuek Londres ezagutu eta maite dute, oso *cool* dira, *yeahhh baby*, baina aukera balute, botoa ez liokete Erresuma Batuko Alderdi Laboristari edo Alderdi Kontserbadoreari emango. Espainiako Alderdi Sozialistaren edo Alderdi Popularraren alde bozkatzeko segituko lukete, hots,

subiranotasuna soilik herri espainiarrean datzala defendatzen dutenen alde. Ez naiz fio horiek esaten dutenean ez direla nazionalistak. Sor dezatela Espainian alderdi politiko bat, munduko herri guztiak muga, pasaporte eta inposiziorik gabe berdintasunean bizitzea proposatzen duena. Neurea izango da haien aldeko lehen botoa. Baina utopia hori gauzatu artean aukera izan nahi dut, beraiek bezalaxe, mugak, pasaportea eta besterik izateko, inolako konplexurik gabe. Badago kosmopolita, internazionalista eta solidarioa izatea Gaztelu plazatik edo San Andres plazatik, Puerta del Sol edo Bastillaraino joan gabe.

Alemaniak lortu duenaz harro badagoen galdetuz gero, baietz erantzungo zuela esan zuen, duela gutxi, bertako presidente ohi Johannes Rauk. «Baina alemaniarra izateaz harro ote nagoen beste galdera bat da», azaldu zuen. Harro? Zertaz? Bizitzaren loteriak leku ustez txukun batean jaiotzea oparitu zizulako? Izatekotan, esker onekoa. Ni ez nago bereziki harro euskalduna izateaz, baina ez naiz lotsatu ere egiten —ez genuen besterik behar!—. Munduan zehar sorterrria zein dudan galdetu didatenean euskalduna naizela esan dut, paparra atera gabe, baina kikildu egin gabe, tartean arrisku edo mehatxurik sumatu ez badut. Izan ere, ez naiz heroia, ez naiz martiria. Batzuetan, gizaki adoretsua naiz; beste batzuetan, koldarra. Gizakiak ulertzen saiatzen naiz eta, ahal dela, maitatzen, zenbaitetan zaila bada ere. Euskal Herrian eta munduan. Munduan eta Euskal Herrian.

'Relu a vorbit tata'

Eskuko telefonoa konpontzera eraman duzu, eta dendan modelo zaharra utzi dizute, bi aste hauetan erabiltzeko. Hura piztu, eta lehenagoko erabiltzaileak bidalitako mezu batzuk daudela ohartu zara.

Hartzaileen zenbakiekin batera, testuetako lehen hitzak ageri dira. Mezu horietako bat hizkuntza ezezagun batean idatzia da. Jakin-minak bultzatuta, ireki egin duzu.

Ezer ulertu ez, eta Interneten bidezko itzulpen zerbitzu batera jo duzu. Testua idazten ari zaren artean, jokaera ez dela oso itxurosoa pentsatu duzu. Mezu horretako hizkuntza ez da hasieran zuk uste zenuena. Bigarren aukera bururatu zaizu. Oraingoan, bai. Itzulpena trakets samarra da, baina ulertzeko modukoa: «Relu aitak hitz egin zuen autoari eta dena utzi esan zuen». Hurrengo sei mezuak bost digituko zenbaki berera bidaliak dira. Espainieraz idatzita daude. Lehenak «gutxieneko errenta dut» dio; bigarrenean ustez igorlearenak diren izen-abizenak, jaioteguna, nortasun agiriaren zenbakia, banketxea eta kontu korronteko hoge digituak daude. Beste hiruretan hitz bakarria idatzita dago: dirua. Azkenekoan, aldiz, galdera bat: «Zenbatekoa da 400 euroen interesa?».

Maileguak azkar ematen dituen negozio baten zenbakia dela pentsatu, eta horri buruzko informazioa bilatu duzu Interneten. Digitu horiek dituen enpresaren orria aurkitu duzu. Publizitatearen arabera, zuk eskatutako dirua hamar minutuan sartzen dizute kontu korrontean. Gehienez, 400 euro ematen dizkizute, 30 eguneko epean ordaindu beharrekoak. 400 euro eskatu badituzu, 100 euro gehiago bueltatuko dituzu. Guztira, 500 euro.

Krisia herritar guztiak jotzen ari da, batez ere herritar xumeak. Gaur 400 euro ez dituen nola egon daiteke seguru hilabete barru 500 izango dituela zorrak kitatzeko, gutxieneko errenta besterik ez badu? Baliteke aukera bakarria epea amaitu baino lehen beste mailegu bat eskatzea, baina kasu honetan 500 eurokoa. Eta gero, agian, beste bat. Zorra handitu eta handitu. Puztu, lehertu arte.

400 euroko mailegu pribatu horretan %25eko interesak ordaindu behar dira. Duela 25 bat urte, etxea erosteko maileguak %20ren bueltan zeuden Hegoaldean. Lehen kasua lukurreria bada, zer zen orduan bigarrena? Legezko lapurreta, galanta gainera. Larrutik ordaintzen zenuen etxea, hainbesteko interesekin. Garai haietan bazegoen lagunik, bankuari oporretan joateko dirua eskatzen zionik. Koplak amaitu egin dira, baina. Orain, herritar kontsumitzaileak kontu serioagoei aurre egiteko lortu nahi du dirua. Maileguen bidez edo ondasunak salduz. Azken hilabeteotan urrea erosteko dendak ugaltzen ari dira saltoki handietan. Urrea, aberastasunaren sinboloa. Eraztunak, eskumuturrekoak, kateak... balio sentimental handia duten objektuak saltzen ari da jendea. Bihotzak ez du sabela betetzen.

Spike Leeren *Inside Man* filmean, II. Mundu Gerran juduen kontura aberastutako bankari batek judu baten esaldia aipatzen du bere burua zuritzeko: «Rothschildek argi esaten zuen: 'Krisi garaietan, erosi, erosi, erosi'». Rothschild abizena ez duena, berriz, saldu eta saldu dabil egun. Batek jakin krisiak eta ongizatezko gizartea deuseztatzeak nora eramango gaituzten. Batek jakin lehen oporretan joateko dirua eskatzen zuenak etorkizunean ez ote duen eskatuko oraingo doakoak diren botika edo tratamendu bereziak ordaindu ahal izateko. Edo ospitale publikoan egun gehiago emateko eskubidea erosteko, ebakuntza egin eta biharamunean etxera bidal ez dezaten.

Inoiz ez duzu gutunik irakurri, zurea ez denik. Orduan, zergatik irakurri dituzu mezu horiek? Ezezagun batenak direlako? Noizbait zure telefonoa hautsi zela gogoratu duzu, eta mezu batzuk barruan geratu zirela. Mezu intimoak ziren. Telefonoa hartu, eta Reluren mezuak ezabatu dituzu. Arratsaldeko tea hoztu egin zaizu mahaiaren gainean.

Ez ligatu ezezagunekin

Facebook, ezezagunak, sexua, hiesa ... Hitz horien arteko lotura erabili du Gurutze Gorriak Polonian, gaixotasun kronikoaren kontrako kanpainan eginiko iragarkian (http://www.youtube.com/watch?v=TZDXoghu-5o&feature=results_video&playnext=1&list=PLD1C32A366253C3B6). Ostegunean Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen, eta iragarkia horren harira kaleratu dute. Gurutze Gorriaren helburua zein den ez dago argi, baina: herritarren sexu heziketa hobetzea edo harreman mota batzuk gaitzaren iturri bihurtzea.

Izan ere, iragarkian halako irudiak agertzen dira: sare sozial bateko txata ordenagailuan; ondoren, gazteak festan dantzan: garagardoak, barreak ... Halako batean, neska baten lehen plano: begiak, irribarrea, ezpain desiragarriak. Hari begira dagoena —mutila, antza— liluraturik dago, eta harekin joan da. Etxean, neska bainugelara sartu eta ia biluzik irten da handik. Oherantz joan da, eta haren tanga beltza erantzen hasi dira esku batzuk. Badirudi pelikulako onena hastear dagoela, baina ez. Bat-batean, *Cinema Paradiso*, poloniar erara: Gurutze Gorriak artaziak atera eta eszena moztu du. Pantailan mezu hau azaldu da: Neska seropositiboa da. *Orain zu ere bazara. Bizitza ez da Facebook. Ez onartu ezezagunen gonbidapenik.*

Bazegoen iragarkia bestela egitea: neska tangaren atzeko alde mehean kondoi bat lotuta eramatea, esaterako. Edo hura komunikatu irten bezain laster mutilak preserbatibo sorta bat atera eta aukeratzeko ematea. Baina ez, Gurutze Gorriak mezu atzerakoia nahiago izan du: ez onartu ezezagunen gonbidapenik, are gutxiago Interneten bidez. Erakundearen estatutuen arabera, haren zeregin nagusietako bat gaixotasunei aurre egitea da. Alta, hiesaren kontra ez du kondoiak aholkatzen. Txikitan hauxe esaten ziguten gurasoek: «Ezezagun bat hurbiltzen bazaizu, kasurik ez egin». Orain ere, antzera: «Kontuz ibili, ez enroilatu ezezagun batekin! Haren aitatzeko eta amatxorekin txokolatea eta txurroak dozena bat aldiz jan arte, ez ausartu hari *tiramisua* edo *cantuccinia* jaten». Orduan bai, ezaguna izango da, fidagarria, kondoi barik egiteko modukoa. Analisi klinikoak ez, haren amak argituko dizu zalantza, igandean kafea

hartzen ari zareten bitartean: «Kondoi gabe egin dezakezu lasai asko, gure alaba (edo semea) garbi dago eta».

Iñaki Azkunak lezio ederra eman zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua zen garaian. Hiesaren kontrako kanpainaren aurkezpenean kondoi bat atera zuen hedabideen aurrean, eta hitz hauek esan zituen, gutxi gorabehera. «Inor ez dadila engaina: hauxe da hiesetik babesteko modua». Azkunak ez zuen abadearena egin. EAEko osasun arloko arduraduna zen, eta pragmatismoz jokatu zuen. Alde handia, ia bi hamarkada geroago Espainian asmatu zuten kanpainarekin, Aznar presidentea zenean: *Hiesa: zalantzarik baduzu, deitu*. Eta telefono zenbaki bat. Zalantza? Zer zalantza? Kondoia nola jarri behar den?

Madriren bazuten zer ikasia Margaret Thatcherren gobernuak 1986an bultzatutako kanpainatik. Moral kontuetan britainiarrak oso pragmatikoak dira, espainiarrak ez bezalakoak —Jeremy Bentham, utilitarismoaren aita, Houndsditchen jaio zen, ez Carrion de los Condesen—. Urte hartan zuri-beltzeko milaka afixa erraldoi eskegi arazi zituen, kaleetan, Edwina Currie Osasun ministroak. Haietako batean bikote bat agertzen zen, ohean elkarri bizkarra ematen, itxuraz sexu harremanak izan ostean. Kanpainaren leloa hizki handiz agertzen zen: *Hiesa: ez hil ezjakintasunagatik*. Eta azpian, beste testu bat: *Pertsona batekin oheratzen zaren bakoitzean ez zara bakarrik harekin oheratzen ari. Lehenago harekin oheratu diren pertsona guztiekin ere oheratzen ari zara. Kondoia erabili*.

Hogeita bost urte geroago, mezu horrek ez du indarra galdu. Batez ere, ezezagunak ezagutzen badituzu. Batez ere, haien gonbidapenak onartzen badituzu.

'What else?'

George Clooneyk ordezko bat du Suitzan, Zurichen: Serge Kaspar. Gizona haren berdin-berdina dugu. Argazki modeloa da. Aktore estatubatuarrekin duen antzari erreparatu, eta iragarki satiriko bat egiteko eskatu dio Solidar Suisse gobernuz kanpoko erakundeak, Nespressoen jarduera salatzen. Kasparrek baiezkota eman, eta agerian utzi du Nestle enpresaren jokaera — Nespressoen jabea da—.

Clooneyk Nespressoentzat grabatutakoaren parodia da iragarkia: Kaspar kalean dabil, eta bat-batean piano bat erori da haren aurrean. Ez zaio ezer gertatu, baina. Kontrako bidean doala, Nespressoen kartel bat bere lekutik atera da, eta bete-betean jo du. Oraingoan, bai: Clooney-Kaspar zerraldo erori da lurrera. Hiltzailea ez da pianoa izan, Nespresso baizik. *Off*-eko ahots batek hauxe esan du orduan: «Nespresso munduko kafe garestienetako bat da, baina haren negozioa ez da merkataritza justuan oinarritzen». Eta pantailan helbide elektroniko bat agertu da, Clooneyri protesta mezuak bidaltzeko.

Azken hiru hilabeteotan milioi bat lagunek ikusi dute iragarkia. Clooneyk haren berri izan du, eta hordago jo dio Nestleri: frogatzen ez badu kafe soroetako langileak modu egokian ordaintzen dituela eta horiek 18 urtez gorakoak direla, ez die berrituko bere irudia erabiltzeko kontratua. Kanpainaren arrakasta dela eta, Suitzako Publizitate Elkarteak Komunikatzailearen Saria eman dio Kasparri. Herritar suitzarrak Berlingo *Tageszeitung* egunkariari esan dionez, berak ez du ezer Nestleren aurka. Are gehiago, Nespresso kafe makina bat du etxean, baina poztu egingo litzateke iragarkiari esker kafe soroetako langileen baldintzak hobetuko balira.

Ekimena laudatzeko modukoa da. Etorkizunean gurean ere halakoren bat beharko dugula uste dut, zer datorkigun ikusita. Afrika, Asia eta Hego Amerikako herritarrei buruzko kezka Europara ere hedatuko da, hemengo jendearen soldatak eta lan egiteko moduak direla eta. Izan ere, esplotazioaren fenomeno ez da urruneko herrialde horietara mugatuko. Testuinguruak desberdinak dira han eta hemen, baina filosofia, berdina: lan baldintzak gero eta okerragoak jartzea, herritar-langile-kontsumitzaile gehienak gero eta gehiago estutzea, banaka batzuek ahalik eta etekin handienak izateko.

Ikusi besterik ez dago Rajoy jaunak, zenbait iturriren arabera, bultzatuko duen lan erreforma: negozio kolektiboa ahultzeaz gain, badago beste neurri bat: 400 euroko kontratua gazteentzat. Alemaniatik hartutako ideia dela argudiatu dute horren aldekoek. Han gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen omen dute antzeko kontratuekin ari diren gazteek, eta ondo doakie. *Made in Germany* markaren liluraz itsutu egin nahi gaituzte, baina bi kontu ahazten dituzte. Lehena: Alemanian gutxieneko soldata mila eurotik gorakoa dute —Espainiak administratutako Euskal Herrian 641,40 eurokoa da—. Bigarrena: han kontratu mota horiek finkatutako lanaldia 40 ordukoa da... hilean! Hemen errazagoa izango da gazte horiek astean 40 ordu lan egitea eta, deskuiduan, esparru horretan 40 urte arteko *gazteak* ere sartzea. Azken lan erreformarekin 30 urte arte luzatu zuen Espainiako Gobernuak gaztaroa. Oraingoan, zergatik ez 40 urte izan arte? Gure artean nagusitzen ari den ume jokaeraren eta betiko gaztetasunaren alde makurra izango da. Lehen, 25 urterekin, gizona edo emakumea zinen. Orain, hainbat arrazoi direla medio, 40 urte eta oraindik ume.

Zenbait sindikatuk darabilten politika ikusita, esperantza ia bakarra daukat: langileen baldintzak okertzen hasten direnean gure enpresa handi horietako batek Clooney kontratatzea publizitatea egiteko. Has daitezela horretan. Beti izango dugu aukera Zurichera joan eta Serge Kaspar ekartzeko, salaketa iragarki bat egin dezan. Ez da musu truk izango: kafe bat ordainduko diogu, berari gustatzen zaion markakoa. Nespresso. *What else?*

Brontzezko oihuak

Brontzezko estatua batek Japoniaren eta Hego Korearen arteko harreman diplomatikoak astindu ditu. Estatua Seulen dago kokatuta, Japoniaren enbaxadaren aurrean. Neskato bat irudikatzen du, aulki batean eserita, ortozik, eraikinerantz begira. Artelana herritar talde batek agindu eta ordaindu du. II. Mundu Gerran Japoniak milaka emakume asiarrak esklabo sexual moduan erabili zituela gogorarazi nahi izan dute horrela, eta Tokiori egindako kaltea aitortzeko eskatu.

Lanak *Bakearen Monumentua* du izena, eta hiriburuko kale estu batean dago. Japoniako enbaxadoreak eta funtzionarioek egunero ikusten dute enbaxadatik irteten direnean. Ez dago beste erremediorik, ezin dute brontzezko neskatoa **saihetsi**. Estatua asteazkenean jarri zuten, azken hogeitun urteotan biktimetako batzuek enbaxadaren aurrean astero egiten duten elkarretaratze egunean. Kontzentrazioa egiten duten emakumeak gero eta gutxiago dira. Izan ere, biktimak 80 urtetik gorakoak dira, eta horietako asko hil egin dira.

Japoniak protesta egin du, baina Seulgo gobernuak erantzun dio ez dagoela prest herritarrei oroigarria kentzeko eskatzeko. Atzerri Ministerioko bozeramaile Cho Byung-jaek argi hitz egin du auziaren inguruan: «Japoniako Gobernuak hobe luke, estatua kentzeko eskatu baino, bere buruari galdetuko balio zergatik biktima horiek ari diren azken hogeitun urteotan elkarretaratzeak egiten, astero eta hutsik egin gabe».

Koreako biktimak erantzukizuna eskatzen ari zaizkio Japoniari, gerran egindakoetatik. Gurean ere indarkeria guztien biktimak euren eskubideak aldarrikatzen ari dira. Juan Jose Ibarretxek, EAEko lehendakaria zenean, barkamena eskatu zien ETaren biktimei 2007an, Euskalduna jauregiko ekitaldian. «Ez dugu jakin indarkeriaren erasoak pairatu dutenei geure sostengua modu kolektiboan transmititzen», aitortu zuen. Hitz horiekin errealitate gordinaren berri eman zuen: Euskal Herrian badagoela jendea, ETaren jarduerak txalotu edo justifikatu duena; badagoela jendea, hori justifikatu ez arren, beste aldera begiratu duena.

Euskal Herrian, baina, izan da bestelako indarkeriarik ere. Hori pairatu dutenak estatuaren indarkeriaren biktimak ditugu. Tortura, esaterako: herri honetan ehunka eta ehunka torturatu izan dira. Biktima horietako asko ez ziren ETako kideak, baina horrek ez du ardura, azken batean bereizketa egiteak tortura justifikatzea baitakar askotan: herritar xume bat torturatzea ez da onargarria; etakide bat torturatzea, bai. Euskal Herrian eta Espainian badago jendea, hori justifikatu duena. Beste hainbat lagunek, aldiz, beste alde batera begiratu dute, eta ez dute ahotsa altxatu.

Biktimen aldeko ekitaldi gehiago izango dira geroan. Oroigarriak ere eraikiko dituzte. Seulgo ekimena eredugarria izan liteke torturaren biktimak omentzeko eta etorkizunean halakorik ez izaten laguntzeko. Estatuak Seulgoa bezalako estatua bat jarriko balu leku publikoetan, bidearen erdia egingo luke bere aparatuek egiten duen torturaren kontra. Herritarrak eta, batez ere, poliziak kontzientziatu nahi balitu ankerkeria horren aurka, izango luke, bai, estatua non kokatu: Madrilan, DGSren egoitzaren aurrean; Euskal Herrian, Indautxuko komisariaren eta Intxaurrendoko kuartelaren parean, baita Ertzaintzaren egoitza nagusien ondoan ere... Brontzezko estatua bat izango litzateke. Emakume bat irudikatuko luke, aulki batean eserita, ortozik, eskuak atzean lotuta, eta begiak zapi batekin estaliak. Poliziek, guardia zibilek eta ertzainek torturaren biktimen brontzezko oihuak entzungo lituzkete egunero lanetik irtetean, eta gogoan izango lukete giza eskubideak urratzen dituzten bakoitzean gizakien duintasuna ere txikitzen ari direla. Gizarte bat ez dela demokratikoa izango tortura desagertu arte, giza eskubideak urratzeak benetako demokrazia ezabatzen duelako.

Gau erromantikoa

Saltokiaren erdian *Call of Duty: Modern Warfare 3* bideo jokoaren publizitatea dago. Umeak eta helduak soldaduen figurari begira gelditzen dira. Jendea hara eta hona doa, opariak eskuetan. Ilara luzeak daude ordaintzeko. Eguberrietako kantak entzuten dira airean, baina gerlari unibertsalaren bihotza ez da hunkitzen. Hortxe dago, tente, gu herritar koldarron alde hiltzeko prest.

Duela hamar urte, Suitzako Franz-Carl Weber jostailu enpresa handiaren buruak gerra jostailu gehiagorik ez saltzea erabaki zuen, Eguberrietako kanpaina hasi baino lehen. Zuricheko umeak ez ziren gehiago jolastuko berak saldutako alegiazko armekin. Akabo itxurazko lapur, polizia, *cowboy* eta soldaduak; akabo gezurrezko lapurretak eta hilketak.

Weber familiaren enpresak historia luzea du, bere web orrian ageri denez. Alemania hegoaldetik Suitzara joandako gazte batek sortu zuen, 1881ean. Bavariar hark osatutako enpresa hiru mendean garatu da, eta 130 urte ditu jadanik. Saltokiak 6.919 metro koadro ditu guztira, eta 220 enplegatu. Gerra jostailuak ez saltzeko erabakia 2001eko irailaren 11ko atentatuen ondorioz etorri zen. Ez dago argi borondatezko ekimena izan ote zen edo mugimendu bakezalearen aspaldiko presioen ondorioz. Edo enpresako administrazio kontseiluko kideek horrela jokatzeko aholkatu ote zioten Weberri, taldearen izen ona gogoan.

Izan da gerra eta sarraskirik hiru mende hauetan, jostailu mota horiek gure begien aurretik kentzeko modukorik, nahi izanez gero: kolonizazio gerrak, lehen eta bigarren mundu gerrak, deskolonizazio gerrak... Jakina, orduan gerraren kontrako kontzientzia zibila orain baino ahulagoa zen; garai haietako pentsamendu nagusia ez zen joera horretakoa. Vietnameko gerra mugarra izan zen mugimendu antimilitaristaren garapenean, baina Weber familiak ez zuen ezer egin Coloradoko *red-neck* gazte kristauek asiarrak hiltzen zituzten garaian. Timothy McVeigh soldadu ohi zuriak Oklahomako sarraskia eragin zuenean ere ez. 2001eko irailaren 11n, Islamaren izenean inperioari eraso ziotenean, orduan bai, begiak ireki zitzaizkien jostailu saltzaileei: zeinen txarrak diren gerra jostailuak! Zeinen txarrak, batez ere, mairuen umeen eskuetan daudenean. Eta debekatu egin zuten saltzea. Franz-Carl Weberrek, baina, beste

batzuek baino beranduago hartu zuen erabakia: 1999an, Loebek, Bernako saltoki erraldoiak, jostatzeko soldaduak, pistolak eta tankeak kendu zituen apalategietatik.

Gure belaunaldiko umeok pistolak eskuetan *hiltzen* genuen elkar, olgetan. Pistoia sartzen genituen alegiazko armetan, eta hortxe ibiltzen ginen zarataka, atzean ustezko bolboraren usaina utzita. Orain finagoak gara, antza: oraingo umeak ez dira tiro jolasean ibiltzen kalean; pantailako gerra birtualean akabatzen dituzte urruneko arerioak. Orain gaizki ikusita dago kalean ibiltzea pistola eskuan eta kartutxo-uhala gerrian. Zibilizatu egin gara. Gerra ez da hain basatia: etxe barruan egiten da, edo kanpoan, baina *High Tech* tresna zoragarriekin. Atzamarra pantailan borrokak eragiteko erabiltzen dugu, ez katua sakatzeko.

Saltokiko eskaileretan behera joan naiz, irteteko asmoz, eta soldaduekin egin dut topo, berriz. Gizona ez da nekatzen, tente eta baliente segitzen du. Atera hurbildu eta egonaldi bereziak eskaintzen dituzten kutxa koloretsu horien atalean gelditu naiz. «Lagunduko dizut». Neska irribarretsua da. «Hau relax *pack* bat da, *spa* eta guzti. Honetan bi lagunentzako afaria duzu». Beste kutxa bat hartu dut. «Hau gau erromantikoa da hotel batean», esan dit. «Gau erromantikoa gaur izango dut nik» eten diot, irribarretsu ni ere. «Gaur bustiko zara?», erantzun du lotsagabe eta barreka, aditza bihurkari bihurtuz. Portugesaren doinu gozoa ateratzen zaio espainolezko ezpainenatik. Porto da Barrako kolorea du azalean. *Sorria, voce está na Bahía.*

Apian, apika

Ostegunetik larunbaterako jauzia egin dute Apian. Bertako gobernuak ordua aurreratzea erabaki du, eta 24 orduko tartea jan dio egutegiari. Egun bat desagerrarazi egin du: ostirala. Aste honetako osteguna bukatu, eta larunbata hasi da bertan.

Ostegunera arte Samoako hiriburuan Sydneyn baino 21 ordu gutxiago ziren. Australiako hiriburu ekonomikoan goizeko bederatziak zirenean, eguerdiko hamabiak zituzten Apian, baina egun bat lehenago. Hogeita lau ordu aurreratuta, hiru ordu aurretik ibiliko da orain Apia. Bertan eguerdia denean goizeko bederatziak izango dira Sydneyn. *Aussie*-ak ohetik jaiki berriak izango dira, fresko-fresko. Haiekin negozioak egiteko tenore egokia. Samoak AEBekin merkataritzan aritzeko aldatu zuen ordua, duela 119 urte. Orain *business* gehienak Australia, Zeelanda Berria eta Txinarekin egiten ditu. Horixe izan da aldaketaren arrazoia. Apiatik Sydneyra 4.338 kilometro egongo dira beti, baina denbora-distantzia murriztu egin da elkarrekin hobeto lan egiteko: ostegunean 21 orduko aldea zuten; gaur, hiru.

Distantzia geografikoak ezin dira aldatu; denborarenak, bai. Gogoia da kontua. Euskal Herriko politikaren geografian distantziak handiak dira zenbait kasutan, eta orduak ere bai. Horrek guztiak aurrera egitea oztopatzen du. Nolakoak dira EAJren eta UPNren arteko geografia-distantzia eta denbora-distantzia? Zer ordu agertzen du Antonio Basagoitiren erlojuak? Eta Rufi Etxeberriarenak?

EAJren eta Amaiurren arteko distantziek zer esana eman dute asteen. Espainiako Kongresuan eraikuntza nazionalaren alde lan egiteko prest ote dagoen argitzeko eskatu dio BBBko buru Andoni Ortuzarrek Amaiurri. Hori argitzeko, baina, lehenik eta behin eraikuntza nazionala zer den zehaztu beharko litzateke. Suposatu egiten da Euskal Herriaren eraikuntza nazionala izango dela —edo batzuen Euskadi—. Pentsatu ere egin liteke eraikuntza nazional hori Euskal Herrian gusturago sentitzeko proiektua izango dela, ez euskal herritarrak Espainian gusturago egoteko —EBBko buru ohi batek horixe proposatzen zuen—, azken aukera hori Espainiaren eraikuntza nazionala indartzea izango litzateke eta.

Azaroaren 20ko bozen ondoren jeltzale batek esan zuen Amaiur nahasmena dela, ikuspuntu anitzetako jendea, ordena itxurarik ematen ez duena. Amaiur, berez, koalizioa da, eta logikoa da pentsamolde diferenteak izatea, baina berdintasunek eta helburu komunek diferentzia horiek baino eragin eta ondorio askoz handiagoak dituzte. Koalizioa horretaz jakitun da, eta alde horiek lantzen dabil.

Baliteke EAJ urduri egotea Ajuria Enearentz begira. Ulegarria da diskurtsoa klabe abertzalean sakontzen saiatzea, baina Amaiurri kontuak eskatzea nagusikeriaz jokatzeko da. Ezker abertzaleak apustu garbia egin du borroka politikoa modu baketsuen bidez eramateko, independentzia helburu. Amaiur subiranotasunaren aldeko lanean ari da. Noraino heltzeko prest dago EAJ? **A**hots eta norabide argia du? Izan ere, Amaiur ordenarik gabeko lagun multzoa dela diotenek Marx anaien ganbara dute Sabin Etxean. Armairua ireki eta hortxe ageri dira nahasian: Gipuzkoako independentistak, Arabako subiranistak, Bizkaiko autonomistak, Bilboko autonomista-erregionalistak ... **Hori guztia gutxi ez, eta** bada alderdiaren barne hauteskudeen prozesuari gardentasun demokratikoa ukatu dionik. Ez da hori bozetatik aterako den zuzendaritza berriari ongietorria egiteko modurik onena.

Ez da inori lezioak eman edo elkarri kolpeka hasteko garaia, denbora-distantziak murrizteko baizik, elkarrengana hurbiltzeko. Zer egin, horixe gakoa: ordua atzeratu edo aurreratu. Zertarako, argi egon beharko litzateke: ez AEBekin edo Txinarekin negozioak egiteko, eraikuntza nazionalaren alde egiteko baizik. Ez Samoan, ez Australian, Euskal Herrian baizik.

Eskerrik asko alde zurretik

Urtearen amaierarekin batera hitz debekatuen zerrenda kaleratu du Michigango Lake Unibertsitateak (AEB). Azken 37 urteotako ohitura honekin, erabiliaren erabiliz benetako esanahia galtzen ari diren hitzak edo esamoldeak baztertzea proposatzen dute mundu osoko ingeles hiztunek. 2011ko zerrenda osatzeko prozesuan milaka lagunek hartu dute parte. Hona hemen debekatutako hitz batzuk: *amazing*(zoragarria) —«gaur dena da zoragarria», argudiatu dute horretarako— ; *shared sacrifice* (sakrifizio partekatua) —«normalean, sakrifizioa partekatzeko eskatzen badizute, zure bizkar utziko dute sakrifizio osoa»— eta *thanks in advance*(eskerrik asko alde zurretik) —«eskerrak alde zurretik ematen badizkizute, zerbait egitera behartu nahi zaituzte, zu zor moraletan utzita»—.

Hitzak debekatzeko agindua txantxetako da Michiganen. Beste leku eta kasu batzuetan, ordea, ez. Grande-Marlaska epaileak 2012ko hitz eta lelo debekatuen zerrenda osatu du. Horren arabera, gaur Bilbon egingo den manifestazioan zer esan eta zer ez zehaztu du: zeintzuk preso askatzeko eskatu eta zeintzuk ez; ez da zilegi amnistia aldarrikatzea; ezin argazkirik erakutsi; ezin elkartasunik adierazi... Antolatzaileek manifestazio isila egitea erabaki dute azkenean, horixe baita modurik onena ekitaldia arazorik gabe egiteko. Ez da lehen aldia izango, herritarrek kalera halako baldintzetan irten behar dutena, eta, zoritxarrez, ez da azkena izango. Hurrengorako, baina, proposamen bat: manifestazio isila barik, manifestazio isilarazia egitea. Milaka herritar isilek irudi esanguratsua hedatzen dute, baina eragin askoz ere handiagoa izango luke herritar horiek guztiok ahoan esparatrapua itsatsita izango balute. Orduan bai izango litzateke manifestazioa benetan isila akustikaren aldetik —ez hots, ez ahots, ez harrabots —; orduan bai, mezu benetan zuzen eta zirrargarria.

Ertzaintzari argi ibiltzeko eskatu dio epaileak, eta manifestazioaren kontra egiteko, jarritako baldintza horiek betetzen ez badira. Israelgo eta Alemaniako poliziek omen dituzte munduko segurtasun eta kontrol sistema eraginkorrenak. Ertzaintzan aspaldidanik dute aditu horien berri. Batek daki Ares jaunaren neska-mutilak ez ote diren jadanik baliatuko Alemanian erabiltzen ari diren teknikaz: *die stille SMS*, hau da, SMS isila. Poliziak mezua bidaltzen du herritar susmagarri baten sakelakora, baina hura ez zaio hartzaileari agertzen. Mezua ez da

existitu ere egiten erabiltzailearen begien aurrean, isila da, baina telefonoak operadorearen sareak hurbilen duen gelaxkarekin bat egiten du, eta bidalketa erregistratu egiten da. Delitu kasuetan, erregistratutako datuak eskatzen dizkio Poliziak telefono konpainiari, susmagarriaren mugikorra leku jakin batean ote zegoen jakiteko. Ipar Renania-Westfalia *land* edo estatuko Poliziak 255.000 mezu isil bidali zituen 2010ean, asteon jakinarazi dutenez. Alemanian 16 *land* daude guztira. Atera kontuak, zenbat mezu isil bidaltzen dituzten urtean.

Susmagarriak kontrolatu nahi dituzte. Susmagarria nor den eta zergatik, horixe galdera. Delituaren definizioa ere bai. Laster, galdeketetan, poliziek ez dute jakin nahi izango herritar batek zer egin zuen egun jakin batean, telefonoa non zuen baizik. Horretarako pantailan agertuko ez den mezua igorriko dio susmagarriari, eta kito. Gaurko manifestazioari dagokionez, galdera ez litzateke izango larunbatean non egon zinen, herritar susmagarri hori, urtarrilaren 7ko arratsaldeko bostak eta hamarrean, seietan edo zazpiak hogeitun gutxiagotan zure sakelako telefonoa non zegoen baizik. Batez ere, baten batek, deskuiduan, Grande-Marlaska jaunak gustuko ez duen zerbait esan edo eginez gero. Baina lasai: antolatzaileek adierazi dute ez dutela emango mobilizazioa indargabetzeko aitzakiarik. «Historikoa» izango da. Eskerrik asko aldezturik.

Eskoziarra izan nahi nuke

Inoiz ez zait whiskia gustatu, malta onenaz egindakoa ere ez, baina eskoziarra izan nahi nuke. Ez naiz bertako pub zale horietakoa, Europa erdialdeko *cafe* zaharrak nahiago ditut sozializatzeko, ez Starbucks edo Cafe di Roma horiek, Cafe de l'Opera baizik, baina eskoziarra izan nahi nuke. Ez dut Ness lakuko munstroan sinesten, eta ez nuke kilt, gona koadrodun horietako bat jantziko, ezta inauterietan ere —hankak hondartzan eta intimitatean baino ez ditut erakusten, eskola zaharrekoa naiz—. Baina, hala ere, eskoziarra izan nahi nuke. Batetik, inbidia ematen didalako Erresuma Batuko Gobernuak Edinburgok egin nahi duen independentziari buruzko erreferenduma normaltasunez hartzeak —beste kontu bat da bozketa nola kudeatu eta bideratu nahi duen—. Bestetik, eredugarritzat jotzen dudalako Alex Salmond gobernuburu eskoziarrak Londresen aurrean ez makurtzeko erakutsi duen irmotasuna. Badugu zer ikasia hemen.

Eskoziako Alderdi Nazionala gutxiengoan agintzen ari da, baina hori ez da aitzakia izan herritarrei iazko hauteskunde kanpainan agindutakoa ez betetzeko. Erreferenduma 2014ko udazkenean egin nahi du Salmondek. David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroak bozketa lehenbailehen egiteko erantzun dio, ahal dela 2012an bertan. Bakoitzaren jarreraren atzean arrazoi politiko eta ekonomikoak daude. Londresek oraingo krisialdia aprobetxatu nahi du burujabetasunak Eskoziako herritarren artean sor lezakeen egonezinaz baliatzeko. Salmond, ostera, susperraldi ekonomikoaren zain omen dago, eta ez du askorik arriskatu nahi. Beste alde batetik, Cameronek hautu bakarra nahi du bozketan sartu beharreko galderan: independentzia bai ala ez. Salmondek, aldiz, hirugarren aukera bat gehitzea proposatu du: autonomia handiagoa lortzearena. Gainera, esan du galderaren auzia Edinburgok erabaki behar duela, eta Londresek ez diola esan behar zer egin behar duen eta zer ez.

Iritziak iritzi, aipagarriena alde bakoitzaren jarrera dugu. Londresek ez du Edinburgo mehatxatu, eta ez du, printzipioz, Eskoziak erreferenduma antolatzea eragotziko. Gainera, bete beharreko emaitza izatea nahi du. Horrela, argi utzi du subjektu politiko bakarra eskoziarrek osatzen dutela. Eskoziarrek beraiek erabaki behar dute. Cameronek ez du esan Edinburgo eta Glasgoweko herritarrek ez ezik, Londres eta Manchesterkoek ere izan beharko luketela

bozkatzeko eskubidea —Espainian ez dira gutxi Euskal Herriko etorkizuna Cuencako herritarrek ere erabaki behar dutela diotenak, eta hori argudiatzen duten guztiak ez dira eskuinekoak, ez horixe—.

Erresuma Batuak baturik segitzen lagunduko lukeen prozedura nahi du Cameronek bozketan. Ados egon ez arren, jarrera ulergarria da. Alde bakoitzak berea defendatu egin nahi du, eta horrek tirabirak eta gaizki-ulertuak sortuko ditu, baina inportantena hauxe da: Londresek Eskoziako autodeterminazio erreferenduma onartzea. Erresuma Batuak ez du idatzizko Konstituziorik, baina mendeetan indarrean egon diren legeak erabiltzen ditu gobernatzeko. Lege horietan zaharrena 1215. urtekoa dugu. Espainiak, aldiz, 34 urteko Konstituzioa du, besterik ez. Britainiarrek ez dute idatzizko Konstituzioa izango, baina espainiarrek baino tradizio demokratiko handiagoa dute. Gainera, zertarako nahi duzu Konstituzioa XXI. mendean demokraziaren oinarrietako bat, herritarrek euren etorkizuna erabakitzeko eskubidea izatea, ukatzen baduzu?

Eskoziarra izan nahi nuke. Neure herriaren, komunitatearen etorkizuna bakean eta normaltasunez erabaki ahal izateko, inolako mehatxu eta oztoporik gabe —berdin dit 2012an edo 2014an—. Eta, bide batez, Europako beste herri eta estatuei erakusteko badagoela modua Europa barruan arazoak modu zibilizatuan konpontzeko. Eskoziarra izan nahi nuke. Non sinatu behar dut?

Ume lapurtuak

Ume lapurtuen eskandalua gero eta handiagoa da. Aste honetan beste hilobi bat agertu da hutsik. Lapurretak azpijoko edo sare antolatu baten bidez egin zirela esateko goiz dela azaldu du aditu batek. Patxi Lopezek, aldiz, teoria horren alde egin zuen atzo. Baliteke batak zuhurregi jokatu izana, eta besteak ausartegi, baina auziak ez du itxura onik.

Lopezek teoria zuzena izan liteke, kasuak gertatu ziren garaiari eta testuinguruari begiratu gero: 60, 70 eta 80ko urteak. Francoren agintaldia edo, diktadura teoriarik desagertu arren, lau hamarkadatan ereindako menderatze sozialaren uzta artean bizirik zegoen denbora. Orduan, boteredunek eta boteretsuek uste zuten herritarren gaineko erabaki guztiak hartzeko ahalmena zutela. Zigorgabetasuna, pertsonaren duintasuna ezabatzen. Herritarrak mendeko zapalduak ziren, askotan kuraia zibilik gabe oldartzeko. Zapalkuntzak, umiliazioak eta zigorrak esklaboago bihurtzen dituzte esklaboak. Familia bakoitzean ez da Espartako bat sortzen, horien kontra egiteko. Garai ilunenetan jende xeheak nahiko lan du eguneroko bizimodu tristean aurrera egiten saiatzearekin. 2012an ez da ezinezkoa umeak lapurtzeko sare bat egotea, baina gizarte zibilak hobeto kontrolatzen du boterea. Zenbait arlotan, beste kontzientzia bat dago. Herritarrek badakite euren eskubideen berri. Oraingo ama batek nekez sinetsiko luke ume baten heriotza, mediku, erizain edo moja baten ahotik azaleko azalpenak jasota.

Azpijokoaren susmoak frankismoaren boterearen hiru zutabeei lotuak dira. Batetik, botere politikoa dugu. Aldez edo moldez, umeak lapurtzen lagundu zien berak inposatutako erregimen politiko eta sozialean ondo txertatuak ziren eta harekin erlazio onak zituzten herritarrei. Ikusteko dago esku hartze aktiboa izan ote zen, edo soilik ezjakinarena egitea, baina argi dago delitu horien egileek babestuta ikusten zutela euren burua. Umeak lortu nahi zituztenek bazekiten norengana joan laguntza eskatzeko; lagundu nahi zutenek bazekiten nora, zer inguru sozialetara jo, ume horiek lortzeko. Auzi honetan ez dugu Neguriko oligarkiako familia aberats baten salaketa bat bera ere ikusi. Ez dugu ikusiko.

Bestetik, botere ekonomikoa dugu. Halako delituak egiteko babes politikoa eta, behar izanez gero, lotura eta baliabide ekonomiko egokiak zituzten pertsonak osatzen zuten botere hori.

Bilbo aldeko konparazioekin segitzeko: 60 eta 70eko urteetako Zorrotza auzoko Zazpi Landa azpi-azoko bikote batek halako krimenik egin nahi izan balu, ez zuen ez kontakturik, ez dirurik izango aurrera segitzeko.

Azkenik, eliza ofizialeko zenbait kidek boterearekin zuten harreman estua dago, moral kristauaren ikuspegi itxia lagun. Itxia eta fariseua. Zenbait kasutan, neska bat haurdun egonez gero, ez abortatzeko konbentzitzen saiatzen ziren. Erdituz gero, beste familia bati ematen zioten umea. Horretarako, neska onean gozatu edo txarrean mehatxatu egiten zuten. Edo gezurra erabiltzen zuten, haurra hila zela esanez. Fetu baten garapena etetea munstrokeriatzat jotzen zutenei ez zien ardura ume jaioberri bat gupidarik gabe amaren magaletik kentzeak.

Halakoak egiten zituztenek sentimendurik ba ote? Bai, noski. Guk krudelkeria noraino iristen den galdetzen diogu, harrituta, geure buruari, baina egun batetik bestera haurra jasotzen zutenek, egia jakinda edo ezer galdetu gabe, sentimendu onak zituzten, seguruena. Pozik hartzen zituzten umeak, jatorrizko etxeetan baino maitasun handiagoa eta baliabide gehiago eskaintzeko. Eta euren ama edo aita sena modurik krudelenean asetzeko. Pentsatuko zuten, gainera, horrela umea berrerosi egiten zutela familia edo inguru haien ustez penagarrien esklabotzatik. Horrek beste pentsamendu guztiak kentzen zizkien burutik. Umeak lapurtzen zituzten, baina barrena lasai zuten.

«'Yes, sir'»

Azken hamarkadetan *Sir* izendatua izateko aukerari ezezko biribila eman dioten lagunen zerrenda argitaratu dute Erresuma Batuko agintariak. Zerrenda horretan hainbat idazle, aktore, politikari eta artista daude. Batzuen arrazoiak erabaki hori hartzeko ezagunak dira; beste batzuenak, oster, ez. *Sir* izan nahi izan ez dutenei buruzko informazioaren harira, Jon Snow kazetariaren kasua aipatu du *The New York Times* egunkariak. Channel 4 katearen iluntzeko albistegiko aurkezlea dugu Snow. Inperio Britainiarraren Ordenak ematen duen ohorea baztertzeko arrazoia argi azaldu du hark: «Ez dut uste lanean ari diren kazetariak sariak jaso behar dituztenik erakundeetatik, erakunde horiei buruz informatzeko ardura baldin badute». Batzuetan, jarduera profesionalak arazoak ekarri dizkio Snowi. 2008an traidorea deitu zion armada britainiarreko kapitain batek, Harry printzea Afganistanera borrokatzera bidaltzeko erabakiaren berri eman zuenean. Hedabideek isildua zuten informazio hori.

Snowren argudioa abiapuntu interesgarria da kazetarien ustezko independentzia neurtzeko. Kazetaritza boterea fiskalizatzeko tresna izan da urteetan, baina joera hori moteltzen hasi da. Boterearen aurrean gizartearen fiskala izatetik gizartearen aurrean boterearen bozeramailea izatera pasatu dira kazetari asko. Egungo kazetari ugari ahaztua dute prentsaren behinolako funtzio soziala. Mesedeak egiten dituzte mesedeen truke. Kritika gutxi. Prentsa arrosa herriaren opioa dela esango luke Karl Marxek, bizirik balego. Snowk boterearen sariak hartzeari uko egiten dio. Ildo horretan, badaude kazetariak enpresentzat edo erakundeentzat lan egiteari ezetz esaten diotenak, horrek etorkizunean haien jarduna baldintzatuko lukeelakoan. Haientzat pentsaezina izango litzateke eszedentzia hartzea enpresa pribatu batean komunikazio arduradun moduan lan egiteko, esaterako. Edo ministerio, sail edo alderdi politiko batean prentsa arduraduna izateko. Gero, hedabidera itzultzean, nor fidatuko da haien independentziaz, lau edo zortzi urtean jaten eman dienaren lana aztertzen hasten direnean?

Tradizio anglosaxoniarra eta gurea desberdinak dira. AEBetan, esaterako, zenbait kazetari ezagunek inoiz ez dute botorik ematen. Haien ustez, boto emate hutsak agerian uzten du joera politiko bat badutela, botoa sekretua izan arren. Eta haien joera bakarra boterea fiskalizatzea da, gizartearen mesederako. Alde onak eta txarrak izango dira hor. Agian, barregarria irudituko

zaigu jarrera hori, muturrekoa. Hemengo beste jarrera bat ere muturrekoa da, baina: kazetariok ez dugu erreparorik geure iritzi politiko partidistak azaltzeko. Eta kapazak gara igandeko bozetan alderdi politiko batentzako botoa eskatzeko, eta astelehenean botoa publikoki ukatu diogun alderdiko presidentearengana joateko, lasai asko, elkarrizketa bat eskatzera, gure independentzia agiria ahoan. Hori lotsagarria izango litzateke AEBetan.

Kolore politikoak asko markatzen gaitu hemen. Politikariek eta kazetariok badakigu zeintzuk diren gutarrak, eta zeintzuk ez. Politikari gutar bat elkarrizketatzen dugunean, normalean ez zaigu bururatzen galdera oso gogorrik egitea, gure armadako kapitain batek traidoretzat joko gaituen beldur. Lan zikin hori besteek, arerioek egingo dute.

Duela urte batzuk, ETBko programa batean, EAEko lehendakaria agertzen zen kazetarien galderak zuzenean erantzuteko. Oso kasu gutxitan izan ezik, irribarrea eta *rollito* ona zen dena: ondo aukeratutako kazetariak, ondo neurtutako galderak, gure goiko agintariaren onerako. Bazirudien kazetariak jainkoaren aurrean zeudela, Japoniako enperadorearekin edo, tea hartzeko zeremonian belauniko. Ajuria Enean Ardanza zegoen, baina berdin dio: deskuiduan lehendakaria PSE-EEkoa edo ezker abertzalekoa izan balitz, nago, orduan ere, egoera ez zela oso diferentea izango: «Yes, sir...».

Pablo eta sexua

Euskal arazoa ez da ETA; euskal arazoa sexua da». Unibertsitateko kafetegiko mahaian daude eserita. Erdaraz ari dira, baina ez Bilboko erdararen doinuan. Neskak sexu askapenaren apologia egiten ari dira. Mutilak inkonformista itxura du, *guay* joerakoa, ordea. Bere ametsen berri eman die solaskideei: «Leku bat ezagutu nahi nuke, hilean 200 euro patrikan bizi nintekeena». Helbide elektronikoa idazteko gogo piztu zait, lekua aurkituz gero, horren berri eman diezadan. Ez dut uste gure Robinson gazteak bere uhartea aurkituko duenik, edo luzaz utsiko dionik bertan mundu kontsumistatik bakarturik egoteari, haren **ipad-a** gose greban hasten bada.

Gauean etxera itzuli, telebista piztu eta Eduardo Madinari eginiko elkarrizketa agertu **da**, Espainiako hedabide bateko umorezko emanaldi batean. Politikari sozialistak barreka aitortu du euskaldun batek sekretu bat kontatu ziola behin: orgasmo bat izan zuela. Hori miraria! Horrek aurkezlearen iritzia berretsi du: euskal arazoa sexua da; hemen ez da larrutan egiten.

Eta hori egia balitz, zer? Zer ardurarik die espainiarrei gure osasun sexualak, hain kezkatuta egoteko? Erantzun posiblea: libidoa ohiko era naturalean kudeatzen ez bada, modu basati, bortizetara bideratzen omen da. Sexua, behar humano hori asean izanez gero, lasaiago bizi gara, pozik. Bizitza beste era batera ikusten dugu; nirvanan gaude ia-ia, etengabeko *don't worry* batean, arazo barik. Espainia aldetik pentsamolde hori esportatu nahi digute: egin txortan, eta geratu kortan. Txerri moduan, alegia. Hala ere, teoria hori ez da unibertsala. Ez ditut eskura Durex markaren urteroko inkestak datuak, baina, kontatzen dutenez, Frantzian Espainian baino gehiago egiten da. Gehiago, alaiago eta ozenkiago. Alta, horrek ez die gazte frantsesei kalera ateratzeko gogo kentzen, gobernuaren kontrako neurriak salatzeko eta, batzuetan, geldiarazteko. Borrokatzeko. Beste sexu kultura bat dute Frantzian, beste borroka kultura bat. Espainian, aldiz, bestelakoa da kontua. Orain arte, behintzat. Horregatik, arlo horretan, badago zer ikasia frantsesengandik; kondoia duela 30 urte deskubritu zutenengandik, berriz, ez.

Ez dugu larrutan egiten. Betiko kontua. Iritzi hori aitzakia moduan erabiltzen dute gure aldarrikapen politikoak indargabetzeko, zeren, noski, larrutan egiten ez duten bakarrak euskal herritar subiranistak dira. Euskal Herriko espainiar soberanistak edo espainiarrak beraiek, aldiz, ezin beroagoak eta lizunagoak dira. Sabino Aranak zilizioa erabiltzen omen zuen; Antonio Maura, Praxedes Mateo Sagasta eta Pablo Iglesias, berriz, Casanova edo Saderen jarraitzaile sutsuak omen ziren. Benetako frantses bat egiten edo dastatzen ikasteko ez dugu Parisera joan behar, Burgos liberalera baizik, mesetako tradizio libertinoan. Eta birmaniar bat behar bezala jasotzeko leku onena Toledo dugu, Moscardo jenerala hotelean.

Euskal arazoa sexua omen da, baina baliteke arazoa, gure sexu falta ez ezik, beste batzuen sexu falta edo sexu ikuspegia ere izatea. Sexuari dagokionez, Mendebaldeko gizarte aktibo eta promiskuoenetako bat dugu Ingalaterra. Ustezko erromantizismo ingelesa Bronte ahizpen liburuetan geratu zen. Horregatik, errazago konponduko dira arazo irlandarra edo arazo eskoziarra, ingelesek beste era batera bizi dutelako sexualitatea. Espainiarren ustezko espiritu liberalaren azpian moral katolikoaren zama dago oraindik. Mendeetako zapalkuntza sexuala eta erreserba espirituala izatearen arduraren itzala ez dira kolpetik desagertzen, *movida madrileñarekin* eta Almodovarren kamerarekin, paketeak lehen planoetan grabatzen. Arrazoinamendu eskasa Espainian. Dena indarrez, *por cojones*. Hegoaldeko euskaldunok ere ez gaude herentzia horretatik libre, baina ez goaz munduan barrena sexu lezioak ematen. Euskal arazoa sexua da, bai. Arazo espainiarra ere bai.

Prizzitarren ohorea

Iñaki Urdangarin ez dute bideoz grabatuko epailearen aurrean deklaratzeko duenean. Horixe erabaki du Jose Castro Aragonek, *Palma Arena auziaren* ardura duen epaileak. Espainiako Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko bozeramaile Gabriela Bravok bat egin du Castro Aragon jaunaren erabakiarekin, «inputatu guztiak ez direlako berdinak». Bravo anderearen arabera, kameren aurreko grabazioan agertzea Urdangarinen irudia «estigmatizatzea» izango litzateke, iraintzea. Hori dela eta, Palmako dukearen ohorea zaindu beharra dago. Horixe da garrantzitsuena, Bravoren ustez. *Bravo!*

Asmoa txalogarria izango litzateke, baldin eta Euskal Herrian zein Espainian justizia aferetan nahasita ibili diren eta ibiliko diren guztien irudiari ere kezka, ardura berberaz begiratuko baliote. Gauza jakina da orain ez dela horrela izaten eta geroan ere ez dela horrela izango. Hala ere, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko bozeramaileak ez du dudarik: herritar guztiak berdinak gara legearen aurrean. Horixe esan du, kopeta zimurtu barik. Berdinak gara denok, baina pasatu barik: errege-erreginek ohore handiagoa merezi dute. Printze-printzesek eta Prizzitarrek ere bai.

Legeen aplikazioari dagokionez, badakigu berdintasunaren printzipioa nolakoa den. Badakigu orain ez dela Erdi Aroan bezala gertatzen, justiziak aurrera egin duela eta herritarrok babestuago gaudela arlo horretan, baina badakigu, baita ere, herritar guztiak ez gara berdinak justiziaren aurrean. Ez hemen, ez inon. Alta, leku batzuetan Espainian baino gehiago hurbiltzen dira berdintasun idiliko horretara.

Justizia ez dabil oso ondo Espainian, baina badirudi Garzonen auzia lehertu arte herritar asko ez direla horretaz jabetu. Epaileek euren begien aurrean euskal herritarren aurpegiak txikiturik ikusi eta, ezer esan gabe, horiek espetxeratzeko agindua ematen dutenean, salaketarik ez. Justiziak funtzionatu egiten du. Justizia horrek Garzoni lepoa moztu dionean, orduan bai bidegabekeria! Urdangarinen kasuan gertatzen ari dena, hala ere, haratago doa. Azken berriak frogatzen ari direnez, justizia ez da berdina guztientzat, bai, baina hori baino gehiago ere badago. Klase politikoaren morrontza lotsagabea ere erakusten dute, salbuespenak

salbuespen.

Demagun herritar batek etxeko baten ustezko delituen berri badakiela eta lehenbailehen hori egiteari uzteko eskatu diola. Justiziari ez dio ezer azaldu, eta alde egiteko esan dio senideari. Arazo morala sortzen da hor. Alaba, suhia, senarra, emaztea edo aita salatu behar duzu justiziaren izenean? Halaxe egin behar zuen Juan Carlos erregeak? Ez naiz ni lehen harria botatzen hasiko. Gutako askok erregeak bezala jokatu genuke, agian. Etxekoen alde. Baina hori gertatu eta gero, lotsa-lotsa eginda gordeko genuke kontua, paparra atera gabe. Gainontzeko herritarrek txalo egin beharko ligukete, ustezko gaizkile bati alde egiten edo ezkututzen lagundu diogulako? Horixe egin zuten Espainiako Kongresuko diputatu gehienek Borboikoa abenduaren 27an ganberan azaldu zenean, agintaldi berriaren lehen ekitaldian. Bi minutuko txalo zaparrada *Urdangarin auziaren* harira elkartasuna adierazteko, hedabideen arabera. Elkartasuna eta txaloak bost urte lehenago irregulartasunak ezkututzen lagundu zuenari?

Eskerrak futbola dugun eta hiru urtean behin Athleticek eta Bartzelonak Errege Kopako finala jokatzen duten. 2009an Patagonian entzun omen ziren Espainiako errege-erreginak agurtzeko milaka lagunek egin zituzten txistu eta oihuak. Aurten, egoera nola dagoen ikusita, harrera beroagoa eta adeitsuagoa izango da, dudarik ez egin. Erregeari lotsa gabe txalo egin zioten diputatuek lotsagabe deituko diete, lotsa gabe, milaka euskaldun eta katalani, baina berdin dio: txistuak Hego Tasmanian entzungo dira aurten.

Grebarik ez

Greba orokorrak badu eguna Espainiak administratutako eta eskubide politiko eta sozialez pobretutako Euskal Herrian: martxoaren 29a. **Rajoyren** gobernuak onartutako lan erreformak egonezina eta haserrea eragin ditu, eta sindikatuek protesta egiteko erabakiaren berri eman dute.

Erreformak kaleratzeak errazteko balioko du, bereziki. Enpresariak libre izango dituzte eskuak langile kopurua euren komenentzien arabera murrizteko, galera ekonomikoak izan gabe ere. Aldaketak bultzatu dituztenek beraiek onartu dute epe ertainera ez dela lanik sortuko. Sozialistek, agintzen zutenean eskubide sozialak murriztu zituztenek, erabat gaitzetsi dute PPren plana. Halaxe esan dio Rubalcabak **Rajoyri**, Madrilen. Gasteizko gobernutik berdin antzean mintzatu dira PSE-EEko kideak. Haien ustez, kaleratzea merkatzea eta negoziazio kolektiboa lehertzea ekarriko ditu erreformak.

Ez da oso azkarra izan behar hori ikusteko. Orain, enpresa batek gutxiago ordainduko du eta oztopo gutxiago izango ditu langileak kalera bidaltzeko. Bestalde, beharginek eta enpresaburuak negoziatzeko garaian teoriarik duten berdintasuna hautsi egingo da. Lan harremanetarako erreferentziak eta abiapuntuak enpresa bakoitzaren barruan bertan ezarri, garatu eta mugatu nahi dituzte enpresariak. Ez dute arau edo lege orokorrik desio. Langileak enpresako buruaren aurrean sinatutako hitzarmena gizarte eragileek negoziatutako esparru orokorretik aterako litzateke. Bion arteko akordioa izango litzateke, itun pertsonala, berdintasun faltsuan oinarritua. Bien egoera berdin-berdina izango balitz bezala. Biak tabernan txikiteoan ibiliko balira bezala, kuadrillako lagun moduan.

Enpresariak hitzarmen kolektiboak baztertzearen aldekoak dira. Enpresa bakoitzaren baldintzetara egokitutako hitzarmenak proposatzen ari dira. Bada sindikatuen lana gaitzesten duenik, eta 21. mendean horien lana beharrezkoa ez dela dioenik. Horiek ez dute zalantzan jartzen, ordea, enpresarien elkarrean eginkizuna, jabeen eskubideak eta interesak defendatzeko garaian. Langileek ez omen dute sindikatuen beharra. Bakarka negoziatu behar dituzte lan baldintzak eta soldata, askatasun osoz, nagusiaren aurrean. Nork sinesten du hilean

800 -1.000 euro irabazten dituen 45 urteko gizon edo emakume batek askatasun osoz negozioa dezakeela bere lan etorkizuna odola xurgatzen dion multinazionalen marrazoaren aurrean?

Enpresariak pozarren daude. Gauzak haiek nahi duten moduan bideratzen ari da, behingoz, gobernuak. Baina egindakoa ez da nahikoa, antza. Negoziazio kolektiboa lehertu dute, baina haratago joateko lanean ari dira. Greba eskubidea ere murriztu egin nahi dute. Horixe esan du Juan Rosellek. Greba eskubidearen esparrua txikitzeko araua arlo publikoan ezarri nahi du, batez ere, pribatua nahiko ondo lotuta dago eta. Espainiako enpresarien burua beldur da, Bartzelonako garraio publikoko langileen grebak hilaren amaieran hiri hartan egingo den telefonia mugikorraren mundu kongresuari eragingo ote dion. Langileek greba eskubidea izan behar dute, jakina, baina enpresariak erabakiko dute noiz, non eta nola. Langileak ez dira halako ekitaldiez aprobetxatu behar euren aldarrikapenak kaleratu eta protesta egiteko. Ez da zuzena, gainontzeko herritarren kalterako izango delako. Enpresariak, aldiz, beste baldintza batzuk baliatzeko eskubidea dute, euren etekinak handiagoak izan daitezten. Lana merkea den lekuetara eramateko, esaterako. Berdin die horrek zer ondorio eta zer kalte ekarriko dion gizarteari.

Metroko langileek San Tomas egunean greba egiteak kalte sozial itzela eragiten omen du; enpresa bateko ekoizpena Indiako edo Bangladeshera eramatea, lana 12-13 urteko neska-mutikoek egiteko, ez da inondik inora ere aprobetxatzea. Ez du esklabotza bultzatzen han; ez du pobrezia sortzen hemen. Ederrak entzun behar ditugu!

'Aire delizius huntan'

Bigarren etxebizitzaren eraikuntzari buruzko erreferenduma egingo dute Suitzan martxoaren 11n. Ekimena eraikin horiek ugaltzeak sor ditzakeen arazoei aurre egiteko bultzatu dute. Bozkatuko den proposamena onartuz gero, debekatu egingo litzateke udalerrri batean dauden etxebizitzetatik %20 baino gehiago bigarren etxebizitzak izatea.

Bigarren etxebizitza halaxe definitzen dute: pertsona pribatuek urtean zehar, tarteka, oportetarako erabiltzen dutena. Guretzat korapilatsua izan daiteke *pertsona pribatuak* terminoa —*Privatpersonen*—, baina hitza nahita aukeratua da. Izan ere, *gizabanakoa* nahasgarria da. *Privatpersonen* berbak hobeto mugatzen du eremua, hainbat kasu uzten baititu kanpoan: ostalaritzan alokatzen diren etxeak, ikastetxeek edo enpresek erabiltzen dituztenak ikasle eta langileekin... Debekua normalean bertan biziko ez den jendearen jabetzari ezarriko zaio soilik. Gainera, arauak ez du esaten orain dauden bigarren etxebizitzak bota edo desjabetu behar direnik. Eginda dagoena errespetatu egiten da. Legea geroari begira da.

Proposatzen den %20ko mugaren arrazoia argi azaldu dute ekimenaren aldekoek: nahiko lekurik uztea herri bakoitzeko jatorrizko jendeak garapen propioa izan dezan. Suposatzen da *jatorrizko* adjektiboa komenentziazko erroldatzeak eragozteko jarri dutela. Halako mugak ezartzea ez da berria. Austriako Tirolen %8ko kopurua ezarri zieten bigarren etxebizitzetzi 90eko urteetan.

Jakina da suitzarrek erreferendumak egiteko duten ohitura. Batzuek tradizio demokratikoaren seinale dela argudiatzen dute. Beste batzuek arriskutsua dela diote, eta iraganeko zenbait adibide aipatzen dituzte: suitzar pasaporteak lortzeko, esaterako, erabakita dago atzerritarrek bizilagunen onespina jaso behar dutela zenbait kasutan. Bestalde, 2009an, baiezko botoa eman zioten suitzarrek meskitetan minareteak eraikitzea debekatzeari.

Egia da. Suitzako demokrazian bada halakorik, baina egia ere bada soilik horien berri ematen digutela hemen. Minareteei buruzko ekimenarekin gora eta behera ibili ziren nazioarteko

hedabideak bozketaren aurretik, baita gero ere. Hala ere, bigarren etxebizitzei buruzko bozketari buruz ez da ia ezer aipatu orain arte. Suitzarren barne arazoa omen da. Arrazakeriaren gaia heldu beharrekoa da, zuzenean eragiten diolako bizikidetzari. Alta, etxebizitza izateko eskubidearen bermea eta mugak ere garrantzitsuak dira, eztabaidatu beharrekoak.

Gizakiak gara. Ulegarria da halako lekuan halako txokoa nahi izatea, asteburuak edo oporrak geure paradisuari emateko. Bizkaiko kostaldera goaz, kresalaren usainak mozkortu egiten gaitu, eta bertan etxe txiki bat erosteko gogoia pizten zaigu, buruan *Bizkaia maite* kantatzen dugun bitartean. Edo Iratin gaude, eta laborari izerditsuairengana goaz, *Aire deliziuso* huntan doinuaren birusak kutsatuta, etxalde xarmagarria salduko ote digun. Tratu ekologikoa izango da, gainera: baserritarra bertatik joango da eta arbolak pikatzeari utziko dio.

Bigarren etxebizitza —edo hirugarrena, edo laugarrena...— izateko eskubidea aldarrikatzen dugu, kenketa fiskal eta guzti. Baina zer izango litzateke leku jakin bat modan jarri, eta denok bertan eraikiko bagenu bigarren habia? Zer egin beharko lukete bertakoek? Edo zer gertatuko litzateke guri, urrez gainezka dauden batzuk —xeke arabiar islamistak edo Ameriketako aberats kristau integristak— gure herrira etorri eta lur gehiena erosiko balute, mugarik gabe, luxuzko spa-txaletak edo haien proiektu faraonikoak eraikitzeke? Herriko lur onena jabe bakar batzuen eskuetan egongo litzateke. Beraiek baldintzatuko lituzkete herri horren garapen eredu, bizikidetzaren eta ekonomia mota. *De facto*, beraiek erabakiko lukete bertako herritarren bizimodua zein izango litzatekeen. Horren aldekoak izango ginateke?

Urte luzea

EAJ eta ezkerreko subiranisten koalizioa nolabaiteko berdinketan daude, Eusko Barometroaren datuen arabera: jeltzaleek 22-23 eserleku lortuko lituzkete Eusko Legebiltzarrean, bozak orain egingo balira. Ezker abertzalea bere barruan izango lukeen hautagaitzak, berriz, 19-22. PSE-EEK behera egingo luke, eta PPri esker duen boterea ezerezean geratuko litzateke. Euskal subiranistak unionismoaren ordezkari nagusituko litzazkieke ganberan. Datuek nahiko ondo azaltzen dute EAEko errealitate soziopolitikoa. Izan ere, azken hiru urteetan Gasteizen izan dugun gehiengoa artifiziala izan da, ezker abertzalea legez kanpo utzi eta gero sortua.

Azken agintaldia salbuespena izan da. Batek daki noiz arte ez den izango Ajuria Enean lehendakari unionistarik, batez ere mugimendu politiko zibilak hasitako bideari behar bezala eusten badio, alde baten indarkeria politikoa desagertu eta gero. Ez dago atzera egiterik. Legez kanporatzeek ez dute balio, Fernandez Diaz ministroak aitortu duenez. Hori jakinda, PSE-EEK ez du hauteskundeak aurreratzeko asmorik. Suizidio politikoa izango litzateke. Horregatik, saihetsezina ahalik eta gehiena atzeratzen saiatuko da: boterea galtzea. Horrek legebiltzarra gizartearen benetako isla izatea ekarriko luke, ondorio batzuekin: errealitate soziopolitikoa kudeatzeko ekimena beste batzuek izango lukete.

Aldaketa instituzionala izan eta gero, garrantzi handia izango du EAJren anbiguotasun neurtuak. Sozialistak eta popularrak boteretik kanpo egonez gero —eta hori ikusteko dago oraindik, batez ere sozialisten kasuan—, ahaleginak egin beharko dira sentsibilitate politiko horiek akordio baten inguruan biltzeko.

Lopez denbora irabazten saiatuko da, hilaren 8an aurkeztuko duen planaren bidez. Bitartean, PPK PSE-EEri laguntzen segituko du, gogorraren plantak egin arren. Hala ulertu behar dira Basagoitiren adierazpenak *Abc* egunkarian: «Guk inork baino gogo handiagoa dugu Batasuneko horiek harrapatzeko, baina gauza bat da zer nahi duzun, eta beste bat zer egin daitekeen». Nork esan du zakarkeria Ezker Aldearen eta ezker aldekoen monopolioa dela?

EAJk prest du Ajuria Eneara itzultzeko bidea. Sozialistei ekonomiaren egoera txarra eta ekimen politikorik eza leporatuko die. Bilduri ere gaitasunik eza egotziko dio, koalizioak agintzen duen lekuan, Gipuzkoan. Azpiegiturekin eta, batez ere, gori-gori dagoen zaborra biltzeko atez atekoaren sistemaren gaiarekin. Greenpeacek sistema onena dela esan du, baina hori ez dute kanpainan adieraziko beste zenbaitetan erakunde ekologistaren kezkak errazago ulertzen dituztenek. Koalizioak kontu handiz ibili beharko du gai horren kudeaketan, boto periferikoak galtzea ekar baitezake. Zarautz ez da Hernani. Bi herrietako alkateak Bildukoak dira, baina gehiengo politikoak eta soziologiak desberdinak ditugu.

Polo subiranistak, bestalde, indarrak batzen segitu beharko du, ondo neurtutako aurrerapauso gehiago eskatzen, alde bakarrekoak izan arren —Iñaki Antiguedadek asteon eginiko adierazpenak ildo horretan doaz—, eta jakinda Madrilek ez duela aise amore emango, Sarkozyk bidea erraztu arren. Epe ertainerako inbertsioa izango da, urrats bakoitzak, alde bakarrekoa bada ere, gero eta ageriago utziko baitu estatuaren inpotentzia.

«Herri honek prentsa ez-nazionalista erosten du, baina boto nazionalista ematen du. Eguna helduko da prentsa ez-nazionalista erosi eta boto ez-nazionalista emango duena», esan zion behin Gipuzkoako egunkari bateko zuzendariak EAJko buru bati. Definizioetan ez zen oso fin ibili: herri honek prentsa nazionalista erosi eta erosten segitzen du, baina nazionalista espainiarra; bestalde, sozialistak eta popularrak sostengatzen dituzten boto asko ere nazionalistak dira, baina nazionalista espainiarrak. Botere aldaketa iradokitzen zuen iragarpenean asmatu egin zuen, ilegalizazioei esker. Baina ez dirudi luzerako izango denik.

Aspirinak Missourin

Pilula dugu antisorgailu onena. Pilula, baina ez edonolakoa; denon eskura dagoen pilula, oso merkea: aspirina. Pilula hori erabiltzeak, gainera, ez dio inolako ondoriorik eragiten emakumearen gorputzari: belaunen artean jarri, eta nahikoa da. Umerik ez.

Horixe iradoki du Foster Friess aberatsak AEBetan antisorgailuei buruz piztu den eztabaidaren harira. Izan ere, bertako eskuinak protesta egin du, Obamaren osasun erreformak arlo sexuala hartzen baitu kontuan. Eliza katolikoa ez dago prest ordaintzeko bere erakundeetan lan egiten duten emakumeentzako familia planifikazioa. Zerbitzu hori AEBetako osasun arduradunek proposatzen duten laguntza medikoaren barruan sartzen da, baina antisorgailuak ordaintzea bere kontzientziaren kontra doala argudiatu du Elizak.

Obamak amore eman, eta esan du beste bideren bat jarriko duela emakumeek antisorgailuak lortzeko, Elizak ezer ere ordaindu gabe. Elizaren salbuespena onartu dela ikusi eta gero, haien kontzientzia ere errespetatu behar dela adierazi dute enpresari *lobby*-ek. Beraiek ere ez dute nahi aseguruetan antisorgailuak sartzerik. Enpresari horiek estatuaren esku hartzea gaitzesten dute, baina ez dute erreparorik emakumeen osasun eskubidea urratzeko. AEBetako Ginekologoien Kongresuko presidenteorde Hal C. Lawrencek esan du kontrazepzioak amaren ongizatea hobetzen duela eta osasun arazo larriak dituzten emakumeei lagun diezaiekeela. Horrek ez die ardura. Enpresari batzuek ez dute ordaindu gura emakumeak nahi gabe haurdun ez egoteko botika edo metodorik, baina gero oztopoak jartzen dizkiote emakume haurdunari lan egiteko edo kontratatzeke. Paradoxa? Ez. Argi dago zergatik: emakumeak etxean egon behar du, umeak ekartzen eta umeak zaintzen.

Ez dira garai onenak emakumeentzat —noiz izan dira?—. Alberto Ruiz Gallardonek ere berea bota du asteen. Espainiako Justizia ministroak azaldu duenez, emakumea abortatzera behartzen duen indarkeria estrukturala dago gizartean, eta horri aurre egin behar zaio. Haren ustez, amatasuna emakumeen eskubide garrantzitsuena da. Hobe haxe esan balu: emakumeen eskubide funtsezkoenen artean badaude bi, bata bestea bezain errespetagarria: ama izateko eskubidea eta ama ez izateko eskubidea. Haurtzaindegi publiko gehiago, amatasun

eta aitatasun baimen hobeak, lana eta umeen zaintza ondo ezkontzeko moduak, eta behar bezalako laguntzak egongo balira, babestuago egongo litzateke ama izan nahi duen emakumea. Baina hori guztia berrmatuta balego ere, behartu egin beharko litzateke emakumea gogoz kontra umeak izatera?

Eraso kontserbadorea hasi baino ez da egin gurean. Atlantikoz bestaldean, berriz, aspaldikoa da kontua. Abortua 1973tik da legezkoa AEBetan, haurdunaldiko lehen hiruhilekoan egiten bada, baina integrista kristauak inoiz ez dute amorerik eman haren kontra. Haien kanpainan edozein irainek balio du. Rush Limbaugh irrati esatari kontserbadoreak *prostituta* deitu dio bere programan Georgetowneko unibertsitateko ikasle bati, Sandra Flukeri. Limbaugh Missourin jaio zen, 1951ko urtarrilean, eta 70eko hamarkadatik ari da irratian. Zer egin du Flukek? AEBetako Kongresuan osasun zerbitzuen barruan antisorgailuak sartzeko eskatu dio gobernuari. Limbaughen arabera, Fluke «puta» da, «sexua izateko dirua nahi baitu». Gizona haratago joan da: «Haren antisorgailuak ordaindu behar baditugu, zerbait nahi dugu horren truke. Haren bideoak Interneten jartzea nahi dugu, geuk horretan ikusteko».

Limbaughen urteak eman ditu mezuak modu argi eta zakarrean hedatzen. Eskuinaren ikonoa da. Aitona, aita eta anaiei bezala abokatua izateko grina piztu balitzaio, ez zuen irratian jardungo. Edo dantzari profesional trebea izan balitz —eskolan ez zen horretarako gauza—. Edo Missouriko emakume batek aspirina bat jarri izan balu belaunen artean 1950eko udaberriko egun batean.

'Adeu, Espanya!'

Katalana zarela esaten duzunean, ez litzateke ulertu behar ezer edo inoren kontra zoazenik. Katalanak izan nahi dugu, eta kito». Katalanentzat ez ezik, guretzat ere balio handia du Sergi Lopezek joan den larunbatean Biltzar Nazional Katalana aurkezteko ekitaldian irakurritako diskurtsoak. Aktore katalanak, *Western* filmarekin ezagutu genuenak, elkartzeko eskatu zien independentista guztiei, Espainiatik konplexurik gabe aldentzeko eta estatua eraikitzeko. Lopezek —Sergi, ez Patxi— adierazi zuenez, independentzia aldarrikatzeko arrazoiak asko dira, «baita ekonomikoak ere», baina badira beste hamaika motibo: «Hizkuntza bat, kultura, lurralde eta nortasun bat defendatu nahi ditugu, mundua ikusi eta ulertzeko modu bat, azken batean. Baina independentzia eskatzen badugu, beste zerbaitengatik ere bada: sinesten dugulako lagundu egingo digula berdintasunezko gizartea eraikitzen, askoz demokratikoago eta justuagoa. Independentzia ez da bukaera, hasiera baizik».

Independentziaren aldeko batasun deia Herrialde Katalanetan; independentziaren aldeko batasun deia Euskal Herrian. Ezkerreko independentistek eta subiranistek «akordio estrategiko nazionala» aurkeztu dute Baionan. Bidea gorabeheratsua izango da: unionistek hamaika oztopo jarriko dituzte. Batzuetan, argudioak; beste batzuetan, mehatxuak; zuzenak edo zeharkakoak.

Komeniko da horiei guztiei adimenez eta irudimenez erantzuten asmatzea. Ez soilik gure uestezko iragan loriatsuaren nostalgia ahoan. Hobe faktore emozionalak eta arrazionalak ondo txertatzea, dosi egokietan. Independentziaren truke aza jatea onartuko luketenek beti emango dute horren aldeko botoa, baina nola erakarri bisigua labean nahiago dutenak? Areago: nola lortu bi muturren erdian dauden herritarren sostengua —gehienak dira horiek—, idealismo itsuan erori gabe? —bizi garen gizarteari erreparatuta, hobe errealismoari eusten badiogu—. Nola? Historia liburuak irentsaraziz ala gu guztiok hobeto bizitzeko independentzia modurik onena dela argudiatuz?

Independentziaren hautua Europako Batasunaren barruan jokatu da, eta argudio emozional hutsek ez dute balioko. Negoziazio mahaira *konkistatuak baina ez garaituak* dioen Asterix eta

Obelixen kamiseta jantzita hurbiltzeak ez digu ezer ekarriko, beste aldearen barregura baizik: gure herrixka txiki polit zoragarrira itzultzeko eta Panoramixi edabe gehiago eskatzeko esango digu. Garaitu ez bagintuzten, zergatik ari gara orain, ba, kateak hautsi nahian?

Egun batean erreferenduma egiten bada —eta egin egingo da, euskal gizarteak hala nahi badu—, hobe galdera ondo zehaztea. Ez da egokia izango galdera autonomia ala independentzia eta sozialismoa bikotea nahi ote dugun izatea, edo independentzia eta ekologismoa, independentzia eta ateismoa. Edo independentzia eta kapitalismoa bikotea nahi ote dugun, independentzia eta harrapakeria, independentzia eta katolizismoa. Banaketa eragingo du independentisten artean, eta porrota. Halakoetan hasiz gero, tranpan eroriko gara, ziri ederra sartuko baitigute: beste bost mende emango ditugu haien menpeko kolonialismoan, herritarrak geure gogoko eredu sozial eta ekonomikora nola etorrarazi eztabaidatzen. Bitartean, ez pentsa orain baino askeagoak izango garenik gizarte, genero eta ekonomia arloetan. Beste bost mende ezinean, euskal herritar guztiak ekologista, ateo edo komunista-libertario bihurtzeko alferreko ahaleginetan. Eta deskuiduan hori lortuko bagenu, Espainiak eta Frantziak hauxe esango ligukete: «Eta orain, zertarako nahi duzue estatua, anarkistak bazarete?».

Lehena, independentzia, eta gero gerokoak. Independentzia, Sergi Lopezek Bartzelonan esan zuenez, ez baita bukaera, hasiera baizik. Independentzia, Lluís Llachek ekitaldira bidalitako mezuan adierazi zuenez, «argia» baita. Eta argia ondo ikusteko, argi ibili behar da.

'Halal', 'burger' eta abar

Tolosako hilketen gaia bete-betean sartu da Frantziako presidentetzarako hauteskunde kanpaina. Sarraskia atzerritarrak eta segurtasunik eza lotzen dituen diskurtsoa indartzeko erabili nahi du eskuinak, eta askatasunik murrizteko. Mohamed Merahen nolabaiteko garaipena ere bada, *post-mortem* garaipena. Ustezko hiltzaileak Frantziako errepublika belaunikarazi nahi zuen. Ez du guztiz lortu, baina haren erasoak ondorioak ekarriko ditu legeetan: segurtasunaren izenean kontrol polizial eta sozial handiagoa ezarriko du Parisek, muturreko ideologiak dituzten webguneak itxiz eta haiek bisitatzen dituzten herritarrak kriminalizatuz. Adierazpen askatasuna mugatzen saiatuko da, zalantza asko sortzen dituzten argudio eta prozeduretan oinarrituz.

Tolosako hilketen ondoren adierazpen askatasunari egin nahi dizkioten murrizketek agerian uzten dute erabateko adierazpen askatasunaren eskubidea gezurrezkoa dela. Mito horren arabera, zilegi da edozer argitaratzea, baina hori ez da guztiz egia. Bada salbuespenik: norbanakoaren ohoreari kalte egiten diotenean, adibidez. Adierazpen askatasunaren ilusioa saltzen digute, eta horri eusten saiatzen dira, adierazpen askatasuna erabiltzeak ordena sozial eta politikoa arriskuan jartzen ez duenean. Alta, hori gertatzen denean, jokaera aldatu egiten da informazioa kudeatzeko unean, informazio hori benetakoa izan arren. Esaterako: gerra denboran zentsura ezartzen da, zuzena edo zeharkakoa, herritarren eta soldaduen morala ez jaisteko.

Gaur eta hemen informazio jakin batzuk gordetzen dira, «interes nazionalak» zaintzeko. Zenbait kasutan ez dago argi zeintzuk diren nazioaren interesak: lurralde horretan bizi diren herritarren interesak edo nazio hori sustengatzen duen estatuaren zerbitzari ustez leialenak. Ez dugu inuzenteak izan behar: botereak ez du beti utziko informazio guztia herritar guztien eskuetan. Inozokeria da hori pentsatzea. Baina ondo zehaztu behar da informazioa kudeatzen dutenen arduraren mugak zeintzuk diren, eta erantzukizun hori noiz bihurtzen den paternalismo, hortik autoritarismora urrats bat besterik ez baitago. Zigortu behar naute etsaitzat jotzen nauenaren webgunean sartu eta haren argudioak ezagutzegatik?

Hemendik aurrera kontrol polizial handiagoa izango da. Denok genekiena adierazi du Sarkozy, jende aurrean: Frantziako errepublikako herritarren ordenagailuak kontrolatuta zeuden, baina orain kontrolatuago egongo dira. Bestetik, zenbait lekutara bidaiatzeak susmagarri bihurtuko ditu herritarrak. Afganistanera edo Pakistanera joango dena susmopean egongo da, ofizialki, aste honetatik. GKE batean Lahoren umeei lagundu, edo Kabulen amona ikusi, berdin dio zer nahi duen. Susmagarria izango da.

Ikusi egin behar zeren arabera erabakiko duten zein webgune den muturrekoa, zeinek hedatzen duen gorrotoa. Gorrotoaren hondarrak orri horien edukietan eta mezuetan daude, baina nago soilik alde bateko gorrotoari erreparatuko diotela, *besteek* gure kontra eragiten duten gorrotoari. Amorruzko sentimendu irrazional guztien adierazpena errotik moztu nahi badute, badute nondik hasi. Mendebaldeko herritarrak munduko gaitz guztien kulpa dugula eta heriotza merezi dugula dioten fanatikoen webguneak itxi behar badira gorrotoa hedatzen laguntzeagatik, zer egin behar da gure inguruko egunkari errespetagarriek gorrotoa hedatzen laguntzen dutenean? Zer egin ustezko lapur, bortxatzaile edo hiltzaile baten jatorriaren berri jakin eta gero, irakurle fanatikoei «*hay que matar a todos los moros*» eta halako esaldiak idazten uzten dietenean foroetan? Egunkariaren webgunea itxi? Foroko moderatzailea auzipetu? Foroko herritar-idazle aktiboa espetxeratu? Foroko herritar-irakurle pasiboa atxilotu? Inoiz salatu dute hedabide horiek euren foroetako kide bat gorrotoa hedatzeagatik? Soilik *besteen* gorrotoa da zigorgarria?

Perrexil japoniarra

Narkotrafikoak eragindako indarkeriari buruz galdetu zioten, duela gutxi, Carlos Salinas de Gortariri. Mexikoko presidente ohiak hori baino bortizkeria handiagoa bazegoela erantzun zion kazetariari: «Mexikoko bortizkeria latzena pobrezia da». Salinas de Gortari ez da marxista; ondo frogatu zuen bere agintaldian. Hala ere, hango errealitate soziala ezagutzen du, eta badaki goseak eta oinarrizko bizi-baldintzarik ezak indarkeriaren txakurrak xaxatzen dituztela.

¡Sin pan, sin paz!. Ogirik gabe, bakerik gabe. Horixe zioen Espainiako Gobernuaren lan erreformaren aurkako greban kalera irtendako manifestari baten kartelak. Argazkia Madrilgo protestaldian hartu zuten, antza, eta ondo azaltzen du herritar askoren egoera: kezka, egonezina, beldurra. Orain ezer ez da betiko. Lehen ez zen dena betiko, baina luzeagoak eta lasaiagoak ziren gure arnasaldiak. Eta herritar xumeak bere bizi-interesen defentsarako baliabide gehiago zituen eskura. Orain, aldiz, ...

Belaunaldi berriek *no future* haren oihartzuna dute buruan. Asko hitz egin da gazteen desmobilizazioaren arrazoiei buruz. Hainbat daude. Horien artean, dudarik ez, komunikazio arazoa dago. Zaharrenek ez dute asmatu belaunaldien arteko lankidetzaren sozial eta humanoaren beharra transmititzen. Zaharrenek ez dute asmatu beren mezua hedatzen, baina paradisu sortzaileek, bai: etengabeko kontsumoan errotu eta eraikitako *wonderland* koloretsua saldu digute, ondo saldu ere. Orain geure burbuilan bizi gara, eta hurbil eta urruneko *kleenex* erlazioetan eraikitzen dugu gizarte likido aldakorra. Orain, etxean olioak bukatu bazaigu, ez gara gauza bizilagunari eskatzeko. Ez dugu jana prestatuko, eta kito. Nahikoa da Bergen, Montevideo edo New Orleanseko lagun birtualari esatea, *lol* sinbolo barregarrien artean, ezin izan dugula tortilla egin, zartagina erreko zitzaigun beldur. Eta hark konponbidea emango digu hurrengorako: oliorik gabeko tortillaren errezeta, Fukuokako chef batek garatua, Marrakex aldeko perrexilarekin.

Geure burbuilan bizi gara, bakartuta, nahasmen ideologikoan galduta. Lotura sozialak beste era batera egituratzen ditugu, eta elkartasuna ere bai. Elkartasun birtuala, batzuetan. Antzinako ereduak aldatu edo suntsitu beharra dago, baina iparra galdu barik. Adibidez: gero eta jende

gehiagok esaten du sindikatuak ez dutela ezertarako balio. Jakina, sindikatuak ez dira perfektuak. Huts egiten dute, eta garai berrietara egokitu behar dute, baina enpresarien eta langileen arteko bitartekariak dira. Funtzio sozial bat betetzen dute enpresetako buruen eta enplegatuen arteko harremanak bideratzeko. Sindikatuak desagertzearen aldeko mezua interesatua da, baina jende ugari irensten ari da. Sindikatua —hitza edo erakundea— zaharkitua bada, beste zerbait asmatu beharko da, soldatapeko herritarren interes profesional eta humanoak defendatzeko. Berdintasunean eta elkartasunean indartsu defendatzeko eta negoziatzeko, ez menpekotasunean eta zatituta amore emateko.

Langile batzuek sindikatuak desagertzeko eskatzen dute, baina enpresariak tinko eusten diete euren elkarteei. Zergatik ote? Gerardo Diaz Ferran enpresari espainiarren buru ohia ustez iruzur egiteagatik auzipetu dute, baina sindikatuak desagertzea proposatzen duten herritarrek ez dute esan enpresarien elkarteak desegin behar direnik. Are gutxiago herritar horiek enpresariak badira. Nork defendatuko ditu haien interesak? Nork aholkatuko ditu legearen azken zirrikituak aprobetxatu eta txakur txikirik ere ez galtzeko, edo arauak ezkutuan saihesteko, horrek arazo handirik ekartzen ez badie?

Onuragarria da sindikatuak kritikatzeko eta erakunde sozial horiek autokritika zorrotza egitea; sindikatuak desagertzeko eskatzea eskuinaren mezua da, araurik gabeko merkatu basatienaren apologia, bake sozialaren kalterako. Ogirik gabe ez baitago bakerik. Bortizkeria latzena pobrezia baita.

Gerra jokoak

Italiako kostaldean maniobra militarrek egitera joateko agindua eman zuen Israelgo Itsas Armadako buru Ram Rothenbergekek, apirilaren 1ean. Haifako hiru gerraontzitako soldaduak hamar eguneko ezusteko bidaia prestatzen hasi ziren estu eta larri, txantxetan zela jakin arte. Broma zen, apirilaren 1eko urteroko broma.

Israelek gertaera ikertzeari ekin dio, eta txantxak ondorioak ekarriko dizkio Rothenbergi, *Times of Israel* egunkariaren arabera. Jaurlaritza ere ikertzen ari da, kasu honetan Iñigo Cabacasen heriotza. Orain arteko ondorio bakarra: 2013tik aurrera Ertzaintzako elite taldeek baino ez dituzte erabiliko gomazko pilotak. Dena den, ertzainek nahi adina gomazko pilota jaurtitzen segituko dute ordura arte. Horixe esan zien poliziaburuak, harro antzean, Bilboko gazteari gertatutakoa gaitzesteko lehengoan elkartu ziren herritarrei.

Bromak eta bromak daude, eta, zenbaitetan, horien ondorioak ez dira txantxetakoak. Batzuek Italiara doazela diote, maniobra militarrek egitera. Beste batzuk «oreinak» —herritarrak— ehizatzaera joaten dira. Zenbait ertzainek beren burua grabatzen dute sakelako telefonoetan furgonetatik irten baino lehen, balentria lagunei erakusteko gero —ez dut asmatu—. Jokaera horiek salatzea politizatzea omen da, baina.

Horixe leporatu diote ezker abertzaleari «Ertzaintzak jaurtitako gomazko pilota baten ondorioz» hildako gaztearen kasuan —hain zaila da «Ertzaintzak hildako gaztea» idaztea?—. Ez omen du familiaren dolumina errespetatu. Familiaren mina, arlo humano eta pribatua, errespetatu egin behar da. Ez da zuzena Cabacas gogoan senideek eta lagunek deitutako ekitaldietan lelo politikoak aireratzea. Hori bideratzeko bada beste modu eta momenturik. Hildakoaren gertukoak horren kontra badaude, biktimak politikarekin zer ikusirik ez zuelako, nahi hori errespetatu, heriotzak konnotazio politikoak izan arren —bestela, zergatik errepikatu Cabacas hil zuten lekutik hurbil herriko taberna bat dagoela? Ertzaintzaren oldarraldia justifikatzeko? Ez al da hori politika egitea?—.

Kontua desberdina da ekitaldi jakin horietatik at. Gizakiak erantzukizun pertsonal eta soziala du. Ulergarriak eta errespetagarriak dira atsekabea eta dolumina. Hala ere, eremu pribatu horretatik kanpo ere injustizia ez salatzea, isiltzea, konplize bihurtzea da. Ertzaintzaren kudeaketak eta jokaerak guztioi eragiten digute, gizarte osoari, eta geroan ere ondorio latzak ekar ditzakete. Dolumina eta errespetua, bai; erantzukizun pertsonal eta soziala, ere bai. Erantzukizun horri muzin egiteko eskatzea «betikoei» jokia ez egiteko beste «betikoei» jokia egiteko eskatzea da.

Dena politizatzen da. Adibideak edonon ditugu. Pernando Barrena politika egiten ari da edukiontzi batek pertsona baten bizitzak baino gehiago balio duela dioenean? Bai, noski. Cabacasen heriotzaren lekukoei jaramonik egin gabe lauzpabost egunean hainbat zalantza nahita hedatu dituztenek ere politika egin dute. Kritika sakonik egin gabe Ertzaintzarekin elkartasuna bultzatu dutenek ere politika egin dute. Ezezagunek kutxa automatikoak erre eta gero, egunkari batek «Bandalismo 'antikapitalista' Santutxun» titulatzeko duenean, albistea politizatzen ari da. Hedabide berak «Abdulele apirilean pairatuko du etxetik botatzea» titulua jartzen dionean albiste bati, «Abdulele apirilean pairatuko du bankuen bandalismo 'kapitalista'» jarri beharrean, orduan despolitizatzen ari da. Edo politizatzen, despolitizatzea, azken batean, politizatzeke beste modu bat delako.

«Zertarako nahi duzue euskal polizia? Euskal herritarrei tiro egiteko eta espainiar agintarien aurrean makurtzeko?». Hebrongo palestinarrak bazekien Ertzaintzaren jardueraren berri, 2002an. Orduan, Israelgo Armadak setiatu zuen Jasser Arafat, Ramallahen, eta gerraontziak zeuden Haifako portuan. Orduan, Balza zen Herrizaingo sailburua, ez Ares. Eta ertzainak zeuden Bilboko kaleetan.

Bibotedunak Aerofloten

Lana bilatzeko garaian curriculum anonimoak eskatzeko kanpaina bultzatu dute Alemanian. Urtebeteko proba izango da, Diskriminazioaren aurkako Bulego Federaleko zuzendari Christine Lüdersek aditzera eman duenez. Bost enpresa pribatutan egingo da —haien artean Deutsche Telekom eta L'Oréal kosmetika etxea— eta zenbait erakunde publikotan.

Egitasmoaren arabera, lanpostu jakin batzuetan jarduteko hautagaiak gaitasun profesionalen berri ematen duten datuak baino ez ditu argitu beharko: ez izenik, ez adinik, ez sexurik, ezta egoera zibil eta jatorririk ere —argazkirik ez da hartuko, noski—. Izan ere, datu horiek guztiek bidea eman dezakete aukeratzailerak aurreiritzi eta gustu pertsonalen arabera jokatzeko langilea hartzeko unean.

Teorian ez litzateke hala izan beharko. Hala ere, badakigu praktika nolakoa den. Janek —Erdi eta Ipar Europan sarri erabilitako izena— eta Ahmedek —herrialde musulmanetakoa— konnotazio desberdinak izan ditzakete zenbait belarritan. Berdin gertatzen zaie Ingrid edo Nadima izenei. Adinak garrantzirik ote duen lana aurkitzeko, ba, galde diezaietela 55 urtez gorako langabeei. Sexuari buruz zalantzarik badago, ikusi zenbat emakume dagoen lan hierarkiaren goi aldean. Egoera zibila ere garrantzitsua da, gehienetan emakumeen kalterako. Alta, batzuetan gizonen kontra ere erabiltzen da. CDUko emakume kristau-demokratek Gerhard Schroeder kantziler alemaniarraren laugarren ezkontza erabili zuten gobernuburua kritikatzeko, kutsu ustez feministako iruzkina eginez: «Ez fidatu harekin. Hiru emakume ezin dira erraturik egon gizon berarekin».

Eta jatorria... Jatorria ez omen da garrantzitsua, ezta lan diskriminazioaren aurkako lege zorrotzak dituzten herrialdeetan ere. Erresuma Batuan, adibidez. Baina izan, bada. Londresko jatetxe bateko arduradunak halaxe argudiatu **zidan** jatorri txinatarreko herritar britainiar bati gezurra esan eta gurekin sukaldean lan egiteko aukera ukatu eta gero: «Postua libre dago, baina ingelesa naiz eta badakit ingelesek nola pentsatzen duten arraza kontuetan. Zerbitzari bat edo bi beltzak jartzea ondo dago, baina denak beltzak izango balira, kaletik begira dagoen

jende asko ez litzateke sartuko». Jatetxeak kristal handi bat zuen kanpo aldeko horma moduan. Kaletik dena ikusten zen.

Berdintasuna nahi dugu. Beharrezkotzat jotzen dugu. Hala ere, geure senek traizionatu egiten gaituzte. Hara zer **entzun nion** behin eskubide sozialen aldeko borrokalari sutsua den lagun **bati**, Aeroflot aire konpainia sobietarraren diskriminazioaren aurkako politikaren harira: «Ondo dago berdintasuna, lana merituen arabera ematea, baina **sobietarrak pasatu egiten ziren**. Moskutik Habanarainoko hegaldi luzea azafata bibotedunez inguratuta pasatzea ere...». Irribarre maltzurra egin nuen. Bai, *gizon* jokatu nuen.

Halaxe kontuak. Curriculum anonimoak bultzatzeko erabakia txalogarria da, hautagai bakoitza soilik gaitasun profesional hutsen bidez aukeratzeko. Horri NA zenbakia ez jartzea gehituz gero, askoz hobeto. Horrela zailagoa izango da pertsona hura nor, nolakoa eta noren senide edo laguna den jakitea. Ongi etorriak curriculum anonimoak. Baita politikan ere. Gure (politikari) profesionalak aurpegia ikusi gabe aukeratzeko, zenbat seme-alaba dituzten eta asteburuan zer egiten duten jakin gabe. Curriculum anonimo hutsekin ukitu humanoa galduko luke politikak, baina noiztik dira gaurko politikariak humanoak? **Laster, teknokrata hutsak izango ditugu**. Washington, Brusela, Paris edo Madrilek inposatutako politikak bideratzeko kudeatzaile ona baizik ez dugu beharko. Edo horien kontra egingo duen iraultzaile argia, nondik ikusten den. Berdin dio Brad Pitt edo Homer Simpsonen itxura duen. Aizu, eta horretaz ari garela: nork esan du Homer Simpsonen ez duela titulu akademikorik? Inork deitu al du Springfieldeko unibertsitatera?

Puntaren puntan...

Interrail benetako Interrail zen garaietan aljeriar bat ezagutu zenuen, Ipar Europako lurralde horietan. *Youth hostel berean* zeundeten. Laguntzeko eskatu zizun larrialdietara joateko, han inork ez omen zekielako frantsesez. Arazoa? Auskalo zertan ibiliko zen, baina azkura zeukan zereko zerean, puntaren puntan, eta txiza egitean mina, puntaren puntan txoria zegoen kantari. Marrazki primitibo bat egin zizun hori guztia azaltzeko.

Ospitalean medikuak eta erizainak hartu zaituztete —biak emakumezkoak—. Ingeleseko *pain* hitza ezagutu ez, eta minaren sentsazioa antzezten hasi zara, erizainari imintzioak eginez, morroiaren picassoan ageri den puntaren punta seinalatzen. Ze panorama: bi *morenitoak* eta erizain ilehoria, han. B serieko film porno merke horietako bat ematen du eszenak. «Zertan ibiliko ziren hauek biok», pentsatuko du. Bai, zeren irudiak nahi adina interpretazio egiteko ematen du. Mutila artatu eta faktura luzatu diote, etxera bueltan ordaintzeko. Erietxetik irten eta barre egin du.

Aljeriar hura ez zen etorkin magrebtar pobrea. Turista aberatsa zen, dotore jantzia, Houari Boumedienneren garaiko elitean ondo hazia, baina ez hezia —«Mendebaldeko gizonak benetako gizonak izateari utzi diozue, emakumeek errespetua galdu dizuetelako. Emakumea jo egin behar duzu batzuetan, ez harrotzeko» —. Ez zuen artatzea ordaindu. *Osasun turismoa* egin ote zuen? Ez. Ez zen Ipar Europara oporretan joan iruzur egiteko asmoz. Iruzurra gero egin zuen, gastuak ordaintzeari uko egin zionean.

Osasun turismoari hesia jarriko diote aurrerantzean. Neurria ondo egongo da abusuei aurre egiteko, baina ez dute argi azaldu. Edo beste neurri batzuekin nahasi dute. *Pack* berean sartu dituzte jomuga diren lagunak: gurera ustez iruzur egin eta sendatzera datozenak eta gurean jadanik bizi direnak. Izan ere, *osasun turisten* abusuei aurre egitea gauza bat da, eta paperik gabeko etorkinei osasunerako eskubidea ukatzea beste bat. Tratamenduan ari diren etorkinei ateak itxiko dizkiete orain? Hemen bizi eta gaixo daudenek ez dute artatuak izateko eskubiderik izango?

Gizatasuna kentzen ari zaie osasun zerbitzuei. Batzuetan arrazoi ekonomikoak argudiatuta, ekimen pribatuaren onerako. Beste batzuetan, itxuraz, herritarrei zerbitzu modernoek eskaintzeko asmoz. Baina... imajinatu 70-80 urteko pertsona bat, gaixotasun kronikoa duena, osasun zentrora deitzen eta bat-batean... erantzungailu automatikoa. Azkenean, alabari deitu behar laguntza eske. Edo etxetik irten apirileko egun euritsu demonioan eta oinez joan osasun zentrora, hantxe eskatzeko txanda.

Teknologia berriek zerbitzuen modernizazioa ekarri dute. Egun dena da telefonoaren edo Interneten bidez. Baina badago plus bat, horrek guztiak ematen ez duena: harreman eta laguntza humanoa. Zertarako balio du Kronikoen Sarea osatzeak —Osakidetzak gaixo kronikoak elkarrekin harremanetan jartzeko sortua, berez ideia ona dena— egunerokoan gaixo kronikoak direnak eta ez direnak zorutzen badituzte deitzen dutenean?

Ongizate gizartea salbatu egin nahi dute. Baina zer ongizate gizarte eredu dugu eta zer nahi dugu? Kontzeptua argi ez badago, nekez jakingo dugu zer den beharrezkoa osasuntsu eta duintasunez bizi ahal izateko, eta zer den guraria. 80ko urteetako Espainia *sozialistan* ederra bota zuen Osasun Ministerioko buru batek: hortzak eta haginak ezin ziren osasun zerbitzu publikoetan artatu, bestela «mundu guztia» joango zelako haginlariarengana. Kontu bat da ahoa osasun arrazoiengatik artatzea. Hori osasun zerbitzu publikoek eskaini beharko lukete — ez daitezela kezkatu hortz kliniketako profesionalak; garai oparoetan eskaini ez bazuten, orain gutxiago—. Beste kontu bat, larunbat gauetarako kapritxoak: Megan Foxen edo Patrick Dempseyren irribarrea nahi duenak gehiago ligatzeko, bere poltsikotik ordain dezala.

'Laika' ametsetan

Lasse Hallströmen *Mitt Liv som Hund* filmean (***Nire txakur bizitza***) *Laika* txakur emearekin konparatzen du bere burua ume protagonistak. Istorioa 1959ko Suedian dago girotuta. Bi urte lehenago, sobietarrek *Laika* jaurti zuten espaziora, gizakientzako lehen espazio bidaiak prestatzeko. Bidali eta zazpi ordura hil zen *Laika*. Ingemar, hamabi urteko mutikoa, triste bizi da. Ama hiltzeko zorian dago, eta anaia nagusia ez da bereziki gozoa. Kontsolatzeko, *Laika* txakurraz gogoratzen da. Bai, bada berea baino patu tristeagorik.

Hamabi urte inguru izango ditu irratira aholku eske deitu duen neskatoak ere. Urtebetetze eguneko festa egingo du, eta gonbidatuen artean gustukoa duen mutiko bat dago. «Nola esango diot gustatzen zaidala?», galdetu dio esatariari, urduri. Bera ere galdua dago une honetan. Bere bizitzak txakur bizitza dirudi.

Nolakoa da txakurren bizitza, ordea? Aspergarria, antza. Eta negozio iturria. *The Huffington Post* egunkariaren arabera, San Diegoko enpresa batek DogTV txakurrentzako telebista sortu du, egunero zortzi orduko emanaldia eskaintzen duen kable bidezko katea. Horrela, jabeak lanera doazenean, txakurrei telebista piztuta utzi, eta bakea. Haurrei igande goizetan egiten zaien bezala, gurasoen logelara ezustean ez agertzeko. Izaren arteko izerdialdiak ez eteteko, alegia.

The Huffington Post-eko artikuluan argazki bat dago: txakur bat adi-adi, telebistari begira. Pantailan beste txakur bat ageri da. DogTVko emanaldiak lasaigarriak dira: ez *Rin Tin Tin*, ez *Scooby-Doo*, ez Tintinen *Milou*. Ekintzarik ez, ikuslea —txakurra— sobera ez aztoratzeko. Gilad Neumann enpresako buruak adierazi du programa «txakurren ikuspegitik» sortzen dutela. Horretarako, belauniko jartzen dira katedralariak, «hartualdi geldoak» egiteko. AEBetako 46 milioi etxetan dituzte txakurrak. Jadanik milioi bat lagunek erosi dute DogTVren zerbitzua. Mary Catania dugu horietako bat: «Errudun sentitzen naiz lanera joan eta txakurra bakarrik uzten dudanean. Ez dut seme-alabarik, eta umea balitz bezala tratatzen dut».

Halaxe bizimodua: San Diegoko txakurra telebistaren aurrean lokartzen ari da, pantaila barruko txakur dotoreari so. Baina txakur dotore hori Santa Monicako etxean dago jadanik, telebistako beste txakur pinpirin bati begira. Gaur, estresatuta dago, lau orduko **hartualdiak** izan dituelako «kameradari txakur horiekin». Ez du ezagutzen telebistako txakurra. Zein da? Berari baino oilasko eta arroz gehiago emango diote jateko? *Elite dog food* markakoa, gainera? Intziri moduko soinu leuna egin du. Jabeak kexua ulertu eta pilula bat eraman dio, *Bourbon* batekin. San Diegoko txakurra lokartu egin da, eta amets egin du, amets *Laika*-rekin. Berak ere baduelako *Laika*-ren berri, telebistan agertu ez arren. Txakurrek, gizaki batzuek ez bezala, amets egiten dutelako oraindik. Guk txakur-ametsak deitzen diegu geure ameskeriei. Txakurrek gizaki-ametsak deitzen diete haien amesgaiztoei.

Txakurrak gizaki bihurtzen ari gara. Ile-apaindegira eramaten ditugu. Jantzi egiten ditugu, antidepressiboak eman... Baina txakurrak deprimituta daude ala geuk deprimitzen ditugu pertsona bihurtu nahian? Txakurrak gizaki bihurtzen ari gara; eta gizakiak, txakur. Txarra da hori. Edo ona, nondik ikusten den. Txakurrekin esperimentuekin bukatu eta gero, sobietarrek Yuri Gagarin bidali zuten kanpo espaziora, 1961ean. «Oraindik ez dakit espaziora doan lehen gizona edo azken txakurra naizen», esan zuen. Gagarin espaziora bidali eta zazpi urtera hil zen, hegazkin militar bat pilotatzen. 34 urte zituen.

Irratiko esatariak aholkua eman dio neskatoari. «Ba, festa amaitutakoan galdetu lagun horri gustatu zaion. Eta baietz erantzuten badizu, esan beste bat egingo duzula laster, eta etortzeko». Kazetariak kementsua izateko esan dio gaztetxoari. Elkar agurtu dute. Eta nerabearen barre herabeak zimur bat lisatu dio entzulearen bihotzari.

Garitano gabarran

Bukaresteko partida jokatu aurretik gabarra ateratzeko komenentziaz hitz egiten hasi ziren Bilbon. Egunik egokiena etzi omen zen. Halaxe izango zen, baldin eta Simeoneren hamaikakoa Bielsaren mutilei nagusitu ez balitzaie. Alabaina, batzuen ustez, gabarra noiz atera baino inportanteagoa zen gabarran nor atera. Partidaren bezperan mezu txotxoloak izan ziren sare sozialetan. Hauetako batek hauxe zioen: «Ezetz asmatu nor egongo den gabarran: Martin Garitano Bildu!». Ondoren, iruzkin kritikoak idatzi zituzten Gipuzkoako ahaldun nagusiari eta gabarrari buruz. Ez zen nahikoa Garitanori bigarren abizena aldatzea eta, Larrañagaren ordezt, Bildu jartzea. Batzuek ez zuten gustukoa Garitano Bildu jauna gabarran joatea. Eta halaxe azaldu zuten.

Iruzkinetan ez zegoen argi zeintzuk ziren Garitano gabarran azaltzea kritikatzeko arrazoiak: haren ildo politikoa, kargua edo hura, ustez, Athleticen zalea izatea. Martin Garitano gabarran egotea kritikatzeko arrazoi nagusia ezker abertzalearen ordezkari politikoa izatea bada, zer egingo diogu. Herri honen aniztasun politikoa behin eta berriro gorai patzen dutenek hori onartu beste erremediorik ez dute. Patxi Lopezek edo Antonio Basagoitik Athleticen garaipenak ospatzea ulertzen dutenek berdin egin beharko lukete Martin Garitanoren kasuan. Hura ere politikaria eta botere publikoaren ordezkaria delako: Gipuzkoako agintari nagusia.

Hortxe egon liteke arazoa, baina. Baliteke batzuentzat horixe izatea mingarriena: Gipuzkoako ahaldun nagusia zuri-gorrien aldekoa izatea, berdin dio zer talde politikotako kidea den. Gipuzkoar bat, Gipuzkoako agintari gorena eta... *Bilbaoren* aldekoa. Barkaezina, nonbait. Alde batetik pozgarria izango litzateke horixe izatea arrazoi bakarra —baikorra izan nahi nuke—; baina, beste alde batetik, tristeza ere bai. Batez ere, euren burua abertzaletzat jotzen dutenek pentsatzen badute horrela. Espainiar unionista-konstituzionalisten eta frantses jakobino-erregionalisten portaeretan ulergarria izango litzateke. Kexua beste aldetik etortzea, ordea...

Izan ere, asteazkenean donostiar abertzale eta realzale amorratu bati galdetu nion ea noren alde egongo zen partidari. «Gaur, inpartzial», esan zidan. Inpartziala? Athletic eta Atletico Madrilen arteko partida batean inpartziala? Bartzelonaren aurka, tira, ulertu egingo nuke,

Gipuzkoa erdia *culé* delako. Baina madrildarren aurka? Ez gabiltza oso ondo abertzale batek nahiago badu Madrilgo Neptuno Plaza piper-potoz josita ikusi, Bilboko Plaza Barria ikurrinez baino. Felipe Borboikoa *ustezko koltxonero* sutsuarekin batera ospatu besterik ez zuen behar asteazkeneko garaipena.

Hobe geundeke apur bat hausnartuko bagenu. Alde guztietatik. Bai, zeren txanponak bi alde ditu beti: zer pentsatuko lukete bizkaitar athleticzale askok inoiz Bizkaiko ahaldun nagusia realzalea balitz eta Donostiara joango balitz txuri-urdinen garaipena ospatzera? Hori ezinezkoa dela erantzungo du batek baino gehiagok. Nik gutxienez hiru bizkaitar ezagutzen ditut realzaleak direnak. Bai, ez dira asko, badakit, baina Bizkaian bozkatzeko eta aukeratuak izateko eskubidea kenduko diegu, badaezpada ere?

Munduko hainbat lekutan hautagaiek zer erlijio duten argitu behar dute bozetako kanpainan. Inor gutxi ausartzen da bere burua ateotzat jotzera, badaezpada ere. Gorrienak ere «kezka espiritualak» aitortzen ditu, basapiztia moduan ez agertzeko. Gauzak ikusita, komeniko litzateke gurean, datozen bozetan, hautagaiek esatea zer futbol talderen aldekoak diren, badaezpada ere. Hemen lasaiago onartzen baitugu lehendakaria, ahaldun nagusia edo alkatea prozesioan azaltzea, kargu ofizialaren domina paparrean, horietako batek gurea ez den futbol talde baten garaipena ospatzea baino. Hemengo eliza-erretzaile, ateo, agnostiko, fededun, elizkoi eta jainkojale guztiok erlijio bakarra dugulako: futbola. *Paísss...*

Epilogoa

Kaixo, Aritz:

Denbora luzea ezer ere esan gabe, eta hemen naukazu, igande goiz-eguerdi honetan idazten.

Gaur lehen zutabeak berrirakurtzen hasi naiz. Egia esan, lana ez da hain latza. Irakurri, eta zerbait txarto badago zuzendu, hitz edo ideia berririk sartu gabe. Dagoena dago; ez dagoena balego...

Ondo dago denboraren perspektibarekin errepasatzea, norberaren garapena modu kritikoan ikusteko. Izan ere, garai bateko zutabeak eta oraingoak konparatu, eta orain arlo politikora emanago nagoela nabaritu dut, alde horretara lehen baino sarriago jotzen dudala.

Lehen ere halaxe egiten nuen, baina modu arinago batez-edo. Egia esan, horrek nolabaiteko kezka sorrarazten dit batzuetan, kontraesana: batetik, gauza arruntei buruz idatzi nahi nuke, hainbeste bueltarik eman gabe; bestetik, Euskal Herrian bizi gara, ez gaude herri edo gizarte normal(du) batean.

Ezaugarri bereziak ditugu hemen, estatu independente batzuetan ez daudenak. Han eta hemen emakumeen borroka berdintasunaren alde, neoliberalismoaren ondorioak eta abar daude; gizarte homogeen eta whatsappizatuan bizi gara, gero eta isolatuagoak geure "lehen munduan". Eta hirugarren mundu horretako herritar asko gureari segitzeko irrikan ditugu. Panorama ederra. Baina hemen, horretaz gain, beste kontu batzuk ditugu: euskararen egoera, Madrilen eta Parisen politika, gure eskubide nazionalen kontrako zapalkuntza. Bai, betiko rolloa, betiko kaka, esango dute batzuek, baina baztertu ezinezkoak, euskalduna naizen aldetik. Eta batzuetan neure buruari galdetzen diot: "Joder, orain berriro ere euskarari buruz edo PPSOeri buruz idatziko dut?". Nekagarria izaten da batzuetan, baina ezin isildu. Ez dut nahi, gainera.

Danimarkarra banintz, gustura asko idatziko nuke gauza arinago batzuei buruz, edo ez hain

"traszendentalei" buruz: *Akvavit* botilen diseinua, Suedia-Danimarka ferryetako bidaiariak harrapatzen dituzten mozkorrak, Tivoli jolas-parkearen gainbehera edo sirenatxoaren begirada galdua eta jarrera otzana. Baina nolaz idatziko dut Guggenheimeko txakurraren koloreei buruzko zutabe bat, munduko beste museoetako figurekin konparatzeko? Euskarazko egunkari bakarrean zutabe bat, orri erdi oso-osoa astean behin idazteko pribilegioa izan, eta horretan "gastatu", alferrik erabili? Herri normalizatu batean bizi banintz bezala idatzi, besterik gabe, herri ez normal(du) batean nagoela ahaztuta? Tentazioa hor dago, baina barrenak, azkenean, bestelakorik agintzen dit. Horixe nire kezka, nire barne borroka.

Tira, besterik ez. Abarketa ederra sartu dizut igande hotz honetan. Hustu egin naiz, beharra neukan.

Ondo izan eta laster arte.

Jose Mari